

**Herietako bestak**

Iurrita, Urdazubi eta Berroeta

BERA → 10Gobernuaren Alokairu
Poltsarekin bat eginda**BORTZIRIAK → 16**Deskontuak materia
organikoa birziklatzeagatik**MALERREKA → 19**Institutuko ikasleek 2017ko
Euroscola saria irabazi dute**KIROLA → 11/40**Bera eta Baztango mendi
itzuliak maiatzean**ERREPORTAJEA → 3-5**

Urre-meatzearen beldur

Sudmine enpresak Lapurdiko hamaika herritan urrea ustiatzeko baimena galdegin du. Tartean dira, Sara eta Senpere. Proiektuak arrangura sortu du eta hamaika herrietako Herriko Kontseiluek kontra direla adierazi dute, baita Lurralde Elkargoko lehendakariak ere. Laborariek ere kalteak baizik ez dizkiote ikusten proiektuari. Baina azken hitza Frantziako Gobernuak du.

**Malerrekako Eguna | Maiatzaren 27an**

Aurtengo hitzordua Urrozen

Itureni lekukoa hartuz, Urrozen ospatuko dute Malerrekako Eguna maiatzaren 27an. Egun osoan izanen dituzte ekitaldiak, eta omenaldien tartean, 85 urtetik goitiko zazpi herritar omenduko dituzte. Heldu den urtean, Sunbillan eginen dute besta hau. → 22

**Eskulangintza azoka maiatzaren 28an Leitzan**

Kultur Aroaren barne, XXXIX. artisau azoka eginen dute maiatzaren 28an. 10:00etatik aurrera hainbat eskulangile bilduko dira plazan. → 39

ORONÓZ-MUGAIRI → 42**Sahararekiko Elkartasun Eguna maiatzaren 20an**

Hirugarren aldiz, egun osoko besta antolatu du Saharaztanek. Hasana Aaliri harrera ere eginen diote.

ZOKKETAK

→ 59



Txartela egiteko deitu
948 63 54 58ra edo idatzi
info@ttipi.eusera.

ALMACO BAZTAN

GRUP **GAMMA**

www.almacobaztan.com

t. 948 580 104



Birziklatu zure ibilgailuaren hondakinak

Erabilitako olioak eta pneumatikoak berriz ere erabil daitezke

JOAN TAILER ERREGISTRATU BATERA*
Zure ibilgailua eta Ingurumena zaintzen ditugu

Kanpaina honen
barnean egin da:

Plan de Residuos
de Navarra
2017-2027
Nafarroako
Hondakinen Plana

*Tailer erregistratuetan Industriaren plaka
urdin bat dago; hartan, tailerra zertan dagoen
espezializatuta eta erregistro-zenbakia
ageri dira.



SIGAUS

SIGNUS



Nafarroako
Gobernua

Gobierno
de Navarra

Nafarroako
Ingurumen
Kudeaketa, S.A.

Gestión
Ambiental de
Navarra, S.A.

DGT
Dirección General
de Tráfico

GIZARTEA → URREA USTIAZKEKO PROIEKTUA

Paristik etorriko den azken erabakiaren esperoan

Sudmine sozietateak Lapurdiko hamaika herritan urrea ustiatzeko baimena galdegina du

Ekonomian eta tokiko jardueran eragin positiboa izanen duela dio Sudmine enpresak, baina hamaika herrietan, tartean dira Sara eta Senpere, kontrako

mugimendua sortu da. Hamaika Herriko Kontseiluek kontra direla adierazi dute, baita Lurralde Elkargoko lehen-dakaria den Jean Rene Etxegaraik ere.

Laborariek ere kalteak baizik ez dizkiote ikusten proiektuari. Baina Frantziako Ekonomia Ministerioak du azken hitza.



INTERNETETIK HARTUTAKO ARGAZKIA

Frantziako Aude departamenduan dagoen Salsigneko urre-meatzea. Azken urteetan itxia dago.

G. PIKABEA

Arrangura eta ezine-gona sortuak ditu Lapurdi aldean Sudmine sozietateak egin nahi duen urre-meatzeak. Sara, Senpere, Ainhoa, Kanbo, Ezpeleta, Halsu, Itsasu, Jatsu, Larresoro, Uztaritze eta Zuraide inguruko 126 km²-ko eremuan galdegina du zundaketak egin eta urrea bilatzeko baimena, eta aurkako mugimendua sortua bada ere, Frantziako Ekonomia Ministerioak du baimena eman ala ez erabakitzeko azken hitza. Hasmentan, apirilera jakinaraztekoa zuen bere erabakia, baina azke-

nean, gibeleratu egin dute.

Kontua ez da oraingoa. 2012an Arnaud Montebourg Frantziako orduko Ekonomia Ministroak Meatzeen Kodea aldatu eta berriz urrea ustiatzea baimendu zuen. 2014ko azaro hondarrean Lapurdiko aipatu eremuan urrea bilatzeko baimen eskusiboa eskatu zuen Sudminek, baina 2015eko udan jakin zuten herritarrek eta hautetsiek, Pirinio Atlantikoetako Prefetak proiektuarekin hunkituak izanen liratekeen Herriko Kontseiluei gaiaren inguruko ikusmoldea galdetu zie-

KONTRAKO MUGIMENDUA

Proiektuak hunkituko lituzkeen hamaika herrietako Herriko Kontseiluek proiektuaren kontra direla adierazi dute, baita Lurralde Elkargoko presidentek ere.

nean. Prefeturak txostena igorri zuen hamaika Herriko Kontseiluetara, baina ez zien herritarrei erakusteko baimenik eman. Herriko Kontseilu guztiak aurka agertu ziren, eta herritarrek mugitzen hasi ziren. Orduan sortu zen proiektu honen kontra-

ko Stop Mines EH herritar kolektiboa. Herriz herri bilerak egin ziren, protestak... Sarako Herriko Kontseiluak, erraterako, aho batez adierazi zuen kontrako jarrrera, tokiko ekonomia, ingurumena eta turismoaren gainean ondorio kaltegarriak izanen lituzkeela erranez. DREAL Akitania mailako Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza delako egitura, ordea, alde agertu zen.

Horretan gelditu zen afera. Aurten berriz hautsak harrotu diren arte. Inongo abisurik eman gabe, Frantziako Gobernuak kontsulta publi-

koa ireki zuen Interneten. 500 orriko txostena argitaratu zuen, eta herritarrei bide elektronikoz bakarrik proiektuaren inguruko iritzia emateko aukera eman zien urtarilaren 30etik otsailaren 17ra.

«Nehor abisatu gabe ireki zuten inkesta publikoa». Halaxe salatu du Joana Urbistondo Sarako laborari eta hautetsiak. Kasualitatez jakin zuten inkesta hori bazela: «Bretainiako kolektibo batek ingurumenaren defentsan aritzen den CADE taldekoei abisatu zieten», dio Mixel Gerendiain Sarako hautetsiak. Horren on-

dotik etorri zen Stop Mines EH elkarteak deituta otsailaren 11n Ezpeletako karriketan egin-dako manifestaldia. Kasik mila lagun bildu ziren. Jean-Rene Etxegarai Lurralde Elkargoko presidentea ere mintzatu izan da eta proiektuaren kontra agertu da. Inkesta publikoaren epea bukatua da baina ez da geroztik berririk.

«Enpresak urrea
ustiatzeko lehen
baimena baduelarik,
gero ez du berriz
bertze baimenik
eskatu beharrik
izanen perimetroa
zabaldu nahi badu».

Joana URBISTONDO
Sarako laboraria eta hautetsia

GEHIAGOREN BELDUR

210.000 euroko aurrekontua duten lanak egin nahi ditu Sudminek. Hiru urterako baimena galdegina du eta lau fasetan banatuta eginen omen lituzke: lehenbiziko esplorazio eta bilatzeko lanak, eta emankorra izanez gero garrantuko luke proiektua. Horrekin, ordea, mesfidati da Urbistondo: «hori da beraiek erraten dutena, baina behin ustiatzeko baimena badutelarik, gero ez dute berriz bertze baimen bat eskatu beharrik». Gehiago ere azaldu digu: «beraien txostenean erraten zuten lehenik bigarren mailako urrea miatzen hasten direla, baina ez dutela bazterrearen perimetroatik zabaltzea». Garbi dio Sarako laborariak: «nahiz eta baimena 126 km²ko eremuan galdegin, hortik kanpo urrea baldin badute, eremua zabaltzen ahal dute, bertze baimenik galdegin gabe». Deigarria den datu bat ere azaldu digu: «hiru-



Mixel Gerendiain eta Joana Urbistondo Sarako hautetsiak. Urbistondo laboraria ere bada.

lau gramo urre atzema-
teko tona bat lur mugitu
behar dute, eta hala
ere, errentagarria da.
Eremuak eta eremuak
zultatzen dituzte».

Urrea baino gehiago izanen denaren beldur ere badira: «urre miaketan izanen dela erraten dute, baina azkenean, atzematzen duten guzia ustiatzeko baimena da: urrea, uranioa... Zerna-hi izaten ahal da».

Duela 2.000 urte meatzeak izan ziren Euskal Herrian. Sudmineren arabera, 2001ean eta 2005ean lurrean egindako ikerketa eta azterketa geomorfologikoen arabera, beraiek orain ustiatu nahi duten eremuan, garai batean 44 urre-meatze zeuden. Lur komunak eta pribatuak dira: «jabeel baimena eskatuko dietela erraten dute, baina lehen aldian ezet erraten baduzu, espropiatu egingen dute». Geroztik azaldu digunez, «legeak dio lur-azala bakarrik dela jabearena, eta azpian dagoena estatuarena dela. Estatuak ustiatzeko baimena ematen badu, zuk ez duzu deus ere egingen ahal».

Loiret eskualdeko
enpresa da Sudmine.

«Halako kasuak izan diren bertze tokietan ikusi dugu nolako ondorioak utzi dituzten. Beldurgarria da».

Mixel GERENDIAIN
Sarako hautetsia

Urbistondok erran digunez, «*junior* sozieta-teak deitzen dira, enpre-

sa ttiki batzuk dira, aurpegia ematen dutenak, baina giblean multinazionalak dituzte». Has tapenean «geologoak zirela zabaldu zela» ere gaineratu du Gerendianek. Sudminek txostena aurkeztu zuenean, ingurumen mailako in paktuen gaineko azterketa ere egina zuela jakinarazi zuen: «baina azterketa hori egin du-

en enpresak eta Sudmin-
nek nagusi bera dute.
Kuriosoa da berak epai-
tuko duela bere lana eta
lanaren ondorioa», dio
Urbistondok.

«Sudmine bezalako enpresak *junior* deitzen dira, enpresa txiki batzuk dira, baina gibelean multinazionalak dituzte».

Joana URBISTONDO
Sarako laboraria eta hautetsia

«HEMEN EKONOMIA JADANIK BADUGU»

Proiektuak inguru-
menean eragin «ttikia»
izanen duela dio Sudmi-
nek, eta, aldiz, lanpos-
tua sortuko dituela eta
ekonomian eta tokiko
jardunean eragin posi-
tiboak izanen duela. Bai-
na ez dira iritzi berekoak
denak. Gerendianen iru-
diko, «diru-iturria ikus-
ten dute, baina dena xe-
hatua uzten dute. Ha-
lako kasuak izan diren



bertze tokietan ikusi dugu nolako ondorioak utzi dituzten. Beldurgarria da. Guk ez dugu horrelakorik nahi, ez hemen eta ez nihun ere».


«Lur hauetan hiru sor-marka ekoizten dira. Kalitateko produktuak dira eta hemengo laborari gehienak horretatik bizi gara».

Joana URBISTONDO
Sarako laboraria eta hautetsia

Nahiz eta enpresak ekonomiarentzako ona izanen dela erran, Urbistondok ez du horren beharrik ikusten: «hemen ekonomia jadanik badugu. Lur horietan laborantza sektore indartsua da eta laborariok kalitatearen aldeko hautua egin a dugu». Lur horietan hiru sor-maka eta hainbat produktu ekoizten direla oinarazi digu: «lur hauetan Irati Ossau gasna ekoizten da, Ezpeletako piperrak, Itsasuko gerezi beltza, Kintoa zerriak... Kalitateko produktuak dira eta hemengo laborari gehienak horretatik bizi gara. Horrek egunerokoan bizikaltatea ekartzen du, ingurumen mailan hainbat gauza errespetatzen ditugulako. Guk indarra egiten dugu eta kontsumitzaileak hori eskertzen du, tokikoa eta ona jatea». Horregatik, urmeatzearen proiektuak ez duela ondorio onik ekarriko uste du: «halako proiektuarekin laborantza mota hau galduko da, eta horrekin dena, turismoa ere bai».

Kanboko ur termalak ere kaltetuak izanen direla diote Urbistondok eta Gerendianek eta horrekin batera, Errobi inguruko beharrak hornitzeko ura urrea ustiatu nahi duten eremutik

URREA BILATU NAHI DUTEN EREMUA



Sarako Herriko Kontseiluaren ikusmoldea

«Proiektua Sararentzat eta Euskal Herriaren irudiarentzat biziki txarra da»

Sarako Herriko Kontseilua hasieratik egon da urrea ustiatzeko proiektuaren kontra, eta Pirinio Atlantikoetako prefetak iritzia galdegin izan die-nean, bai 2015ean eta bai 2017an ere, hala adierazi izan diote, aurka direla. Arrazoi ekologikoak, ekonomikoak eta turistikoak aipatzen dituzte prefetari igorritako txostenean:

ARRAZOI EKOLOGIKOAK

Natura 2000 deitzen den Europako Babestutako Tokien sarearen barne, Sarako hiru eremu sartuak daude: Larrungo mendigunea eta Errobi erreka habitat, flora eta faunagatik eta Lizarietako gaina hegaztiengatik. Horrez gain, Sarako bertz tokitan jaiotzen da Errobi eremuko ur beharrak asetzeko erabiltzen den **ura**. Bertzalde, **Sara Lapurdi kostaldeko Uren Antolakuntza eta Kudeaketarako Eskema Nagusia** (SAGE) dago, eta uren kalitatea hobetzea, naturguneak babestua eta uholde arriskuak saihestea dira, bertzeak bertze, helburuak. Proiektuak ukituko lukeen eremuan daude Kanboko ur termalak ere. Sarako Herriko Kontseiluaren irudiko, halako proiektu batek teknika inbasiboak eta uraren kutsadura haundia ekarriko luke, «gure inguruan nagusi den ingurumen ikuspegiaren kontra doazenak».

ALDERDI EKONOMIKOA

Proiektua garatu nahi den eremuan, **hiru sor-marka** ekoizten dituzte: Ossau Irati ardi gasnako sor-maka, Kintoa zerriaren sor-marka edo Ezpeletako piperrak. Bertzelako produktuak ere ekoizten dituzte: Itsasuko gereziak, adibidez. **Saran** berean, **50 bat laborari** dira, eta ingurumena errespetatuz laborantza ekologikoa egiten dute. Aldi berean, **30 bat komertzio** eta bertze horrenbertze **artisau** badira. Sarako Herriko Kontseiluaren hitzetan, «proiektuak laborantza inguruak hondatuko ditu, eta aldi berean, tokiko ekonomia aberatsaren iturri diren produktuen jasangarritasuna kaltetuko du».

ALDERDI TURISTIKOA

Euskal turismoarentzat erakargarri haundia da Sara. Datuak dira lekuko: Departamentuko tokirik bisitatuena da **Larrungo mendigunea** eta **lezeak** hirugarren tokirik bisitatuena dira. 2.461 lagunendako lotarako lekua eskaintzen dute Saran: oporretarako 346 ohe, hiru kanpin, lau hotel, landetxeak, bigarren etxeak... Horregatik guztiagatik, «proiektua Sararentzat eta Euskal Herriaren irudiarentzat, biziki txarra» izanen dela uste du Herriko Kontseiluak.

hartua dela nabarmen dute: «Baionara igortzen den ura inguru honetatik hartua da. Eta

hori dena zer? Dena galdu behar dugu?». Gehiago ere kontatu digu Urbistondok: «alde ba-

tetik, laborariok indarra egiten dugu kutsadura mugatzeko, eta bertze alde batetik, horrelako

proiektu batek batzuen interes pribatuentzat den interes zabalaz du. Hori ezin da onartu».



Nire txanda
Joseba URROTZ

Nostalgikoak?

Maiatzaren 6an ospatu zen Elizondoko Lanbide eskolaren 50. urtemuga besta; aspaldiko *Laborala*. Ospakizun horren berri izan nuenetik, garbi nuen han izanen nintzela. Eta nere gogoan irudikatu nuen hainbertze jende, aspaldi ikusi gabekoak, pozik elkar agurtuz. Mordoxka izan baginen ere, *labora*etik seguraski milaka lagun pasatu garela jakinta, gehixeago espero nuen. Bazen ikasten urte bat baino egon ez zenik, eta noski, bortz edo gehiago egon ziren aunitz falta ziren. Baziren Lekunberri edo Errenteriatik etorriak, eta Elizondo bertako aunitz, ordea, ez zegoen. Ezustekoa hartu nuen, uste bainuen, edozein egonen zela aspaldiko eskolako lagunak berriz ikusteko aiherrik, eta itsu-itsuan apuntatuko ginela bazkarira. Bat baino gehiagori galdetu nion ea ez zuten joateko asmorik, eta denak ezetz. Hortaz, uste dut egon beharrekoak egon ginela. Baina, zergatik batzuk maite ditugu iraganean galdu eta inoiz itzuliko ez diren garai haietan elkarrekin egon ginen jendeekin elkartzea? Nostalgia zaleak gara holakoetan elkartzen garenak? Nik ez dut argi nostalgia gauza ona denik, aldi berean mina eta atsegina ematen baitu, baina zer eginen diogu bada!


Ezpala

Aitor AROTZENA

Eta hi, ze planetatan bizi haiz?

Hemendik ehun urtera bertze planeta bat bilatu eta kolonizatu beharko omen dugu bizitzeko, gizakiok Amalurra suntsitua izanen dugulako. Eta ez da nik errana, ezta hippy-ekologista-rastadun-galtxaxabal-zakurxirulariren batek ere... Stephen Hawking zientzilaria handiak baizik. Eta nere bigarren eskuko koheteak ITVa pasatu ez duenez, hegalak jarri beharko dizkiot *Opel Corsa* zaharrari?

Nabarmentzekoak



Joanes ILLARREGI
Eskolartekoan txapeldun

Hirugarren aldiz Nafarroako Eskolarteko Bertso-lari txapelketa irabazi du leitzarrak. Xabat anaia txapeldun orde izan zen eta biek Nafarroa ordezkatu dute Euskal Herriko txapelketan.



Isidro BAZTERRIKA
Ardi haztegi ugalkorrena

CONFELAC latxa eta karrantza ardi hazle elkarteen Konfederazioak antolatutako ernalkuntza artifizialeko bosgarren lehiaketan lehen saria lortu du, bere haztegiko ugalkortasunarengatik.



Abel BARRIOLA
Pilota profesionalari agur

Euskal Herriko frontoi nagusietan egin duen despedida biraren azken partida Donostia-ko Atano III. ean jokatu zuen leitzarrak. Horma-biko bikainarekin bukatu du bere ibilbide oparoa.

Atzera begira → 2007-V-17 • TTIPI-TTAPA 446 zk.



Gazte homosexuali arreta zerbitzua eskaintzen Madrilen

Gaur egun idazle moduan ezagutzen badugu ere, duela hamar urte FELGT Lesbiana, Gay, Bisexual eta Transexualen Estatutako Federazioko teknikaria zen Hasier Larretxea arraioztarra Madrilen. Gazte homosexuali arreta zerbitzua eta gurasoei informazioa eskaintzeaz gain, gizonezko sexu langileentzako HIES-aren prebentzio programen koordinatzailea zen. «Normaltasunean biziko bagina, ez guke elkartearen beharrik izanen» zioen. Elkartearen helburu nagusietarikoa, berriz, «homofobia, lesfobia, transfobia eta bifobiarekin akitzea» dela ere aipatu zion TTIPI-TTAPAri Larretxeak.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxa (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Iruñe Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Gueren-diaín, Martín Bertiz, Martín Larraide, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administratzailea** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzuen Mank.

2017ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	36€
Leitza	22€
Hego Euskal Herria	42€
Ipar Euskal Herria, Europa	75€
Amerika eta Australia	130€



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua



Kolaborazioak

ETAren bukaera

Esteban IRUSTA MALLEA

Azkenengo urte luzeetan, gehienentzako bizitza guztian, ETAren gorabeherak Espainia eta Euskal Herriko komunikabideetan ordu eta orrialde asko bete dituzte. Askok gara ETAren denbora guztia, hasieratik ezagutu dugunok, ez barrutik baina, bai hurbiletik, Euskal Herrian bizi izan garelako. Eta esan beharrik ez dago, iritzi askorekin ez gaudela ados, batez ere, Espainia aldeko ikuspuntua azaltzen dutenekin. Honetarako ez daukagu urrutira joan beharrik. Euskal Herriko komunikabideetako kazetari asko abertzaleen ikuspuntutik oso urrutiti daude. Horien artean, Luis Haranburu Altuna eta Manuel Montero daude. Biek oso ezagunak dira. Bere artikuluen ia gai bakarra, euskal gizartearen da. Eta beti, salbuespenik gabe, bere kontra hitzegiteko. ETA dela eta herritar guztiak zikindu nahian dabilta, urte guzti hauetan. ETak bere ekintza bukatu arren, berdin jarraitzen dute. Gehiago esan dezakegu. ETak bere ekintzak bukatutzat adierazi zituenean, kazetari askok eta Espainiako Gobernuak erakusten ari diren haserrearen harritu egiten gaitu. Portaera hauek zer pentsa ematen dute. Azken baten, ETa aparte, barne barnean, ikusi ezin dutena euskaldunen pentsakera da. Mayor Orejak, bere denboran garbi esan zuen: *"Peor que ETA es el nacionalismo"*. Hau da, benetan, mingarriena beraientzat. ETA desarmatu ondoren, hasi dira esaten ez dela desagertu, eta ez dela desagertuko inoiz. Adierazpen horrek nahi-ko garbi adierazten du beraien ardura nagusia euskal nazionalismoa dela. Inoiz esan izan dute, denok, herritar arruntok, etarrak ginela. Setien eta Uriarte gotzainak ere, bere denboran, nahiz eta borroka armatuaren kontra azaldu, behin eta berriz, kristau elizaren eta bere izenean, etakidetzat hartuak izan ziren. Politikari eta kazetari espainolek ez dute ulertzen, edo ez dute ulertu nahi, zergatik sortu zen ETA. Baina Francoren diktadura ezagutu genuenontzat ez da batere zaila. Euskal kultura, oro har, eta euskera batez ere, lur jota zegoen. Irtenbide bat beharrezkoa zela ikusten genuen denok. Eta batzuk kultura mailan pausu ausartak ematen hasi ziren. Hasieran, eztabaida asko egon omen zen, eta hamar urtetan ez zuten hilketarik egin. Geroko urte luzeak, zoritxarrez, beste bidetik joan ziren, denon kalterako, batez ere, hildako eta bere familientzako. Une honetan, pozteko arrazoiak ditugu, zeren armen bidez lortzen dena ez da bidezkoa. Beste aldetik, askorentzat geroagoko ETAren helburua zein zen ez zegoen oso garbi, ez eta zein zen bere gizarte-eredua ere. Behar bada, eredu bat baino gehiago izango zituzten. Bestela ezin da ulertu ETA-PMko kide batzuk PP eta PSOE alderdietara pasatzea. Horregatik eta beste ekintza ulertezin askorengatik ondorioztatu zuten etakide asko ez zirela abertzaleak, eta ez zutela Euskadi aberriaren alde borrokatu. Honela pentsatzea ez da harritzekoa, jakinez, horrelako erakundeetan etsaia-ren infiltratuak ere izaten direla. Baina zeintzuk ziren jakitea, beste kontu bat da. Orain, ETarik gabe, etorkizunerako zein bide den egokiena da eztabaida berria, politikarien eta orokorki, herritarren artean.

Manex likarekin

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Manexek, kaskabeltz handiarekin lehendabizi eta karnabarekin ondoren, izan zituen porrot garratzen zaporeak dastatu eta gero, bolada luzetxo batez alde batera utzi zituen txoriak harrapatzeko gogoa eta grina, baina udaberriaren etorrerarekin batera, berriz ere, aida batean piztu zitzaion ideia horixe bera, bere buru geldigaitzean. Izan ere, udaberrian sartzearekin batera, baserri inguruko euntze gehienak hori-horiak jarri ziren, txikori belarren loreen eraginez. Lore haien haziak, karnabek arrunt gus-tura jaten dituzte, eta arrazoi horrexegatik, Manexen base-riaren ondoko belardietan, berehala hasi ziren karnaba multzoak agertzen. Baina Manex ez zegoen lo, eta hura ikusi-ta, burura aida batean etorri zitzaion likaren ideia. Izan ere, pertsona helduei aspaldian entzuna zien, bazegoela lika izeneko produktu artifizial bat, oso itsaskorra, eta txoriak harrapatzeko zeharo baliagarria zena. Hauxe da egitea era-baki zuena: txikori belar loreen artean, bi makilatxo lurrean sartu, bertikalean, eta gainean beste bat horizontalean ja-rri, futbol atea edota langa balitz bezala. Horizontalean gel-ditu zen makilatxoa, likaz oso ongi igurtzi eta hornitu zuen, eta jarraian, bere burua urrutiratu eta pixka bat ezkutatzea baino ez zitzaion gelditzen. Minutu gutxi batzuk igarotako-an, lehen karnaba taldetxoak hasi ziren iristen. Txoritxo ba-tzuk, konfiantza osoz, inguratzen ari ziren Manexek jarrita-ko tranpara. Halako batean, karnaba xalo bat, Manexen tresnatxoaren gainean pausatu zen. Ihes egiten saiatu zen, baina hegoak zenbat eta gehiago mugitu, orduan eta ge-hiago nahasten zitzaizkion lika malapartatuarekin. Manex, karnaba erabat geldiarazita zegoela ikusi bezain azkar, ani-maliatxoarengana joan, kontu handiz hartu eta etxera joan zen, txoritxoa kaiolan sartzeko.

Aurreko bi kasuetako akats berberak ez errepikatzeagatik, alegia, lehendabizi kaskabeltzarekin eta gero galbahean ha-rrapatutako karnabarekin, hauxe da Manexek egin zuena: kaiola barruan, ontzitzo batean janaria jarri eta beste bate-an ura. Jarraian, presondegi osoa arropa zahar batekin es-tali zion hegaztiari, kanpoko aldea ikusi gabe, lasaiago egon zedin, baina, aldi berean, argitasun pixka bat utzi zion, ja-nari-edaria ikusi eta hartu ahal zezan, behar zuenean. Baina, oraingo honetan ere kukuak makur jo zion mutikoa-ri, izan ere, eta berriz ere, txori haren asmo eta gogo ba-karra espetxe hartatik ihes egitea baitzen. Janaria eta ura bost axola. Kaskabeltza bezalaxe, kartzelaren alde batetik bestera hasi zen mugitzen eten gabe, handik hanka egite-ko zirrituaren bila, baina zirikitua ez zuen inon ere topat-zen.

Karnaba gaixoak bitartean, laztura eta izu-ikara itzel haie-tan, lumaje osoa behin eta berriz bustitzen zuen, Manexek edateko jarri zion edontziaren urarekin, eta horrela, egun pare baten ondoren, hotzeria hartuta, nekeak abailduta eta goseak jota, azkenean, txoritxoa gorpu bihurtu zen. Gure mutikoa, berriz ere, jota eta porru eginda gelditu zen. Ino-la ere ezin zuen lortu bere helburua. Deabruaren madarika-zioen bat zeukala ematen zuen. Berriz ere, haserre, negar-ti eta goibel gelditu behar izan zuen, beste aukera hoberen baten zain.

Komikia



Irakurleak mintzo

'Xinko' postalak

Antton ERKIZIA (Lesakatik)

Bereizkuntzarik egitea ez zait gustatzen, hil eta gero denok berdin. Baina zor zaio (zor diot) Alvaro Telletxea *Xinkori* aipamen hau, barrenak eskatzen dit.

Hautahorihura, ba-kointzak bere ustea izanen du, eta hau da nirea: Xinko hasi zen Lesakak duen **irudi eder hau lan-tzen**. *Xinkori* zor diogu gure herriko **ttikitasunak** maitatu eta irudi eder bihurtu izana.

Lesakako postalak ditut gogoan. Postalak, garai hartan, Donostiak barrikarrik zituen bere postalak, errateko moduan; Donostiak eta... Lesakak: Zarandia, Plaza Zaharra, Xaxerna, Elizako amabirgin ederra eta baita Xonboillen egurrazko fatxada ere... garrantzirik guk ematen ez genizkion txoko haiek, Xinkok begiz jo eta postal bihurtu zituen, eta guk postal haietan idazten genien kanpoko lagunei... harro... gurea zen... eta eder...

Bizitza ez da postalak baina gustatzen zaigu gauza ederrak bizitzea. Xinkoren postal haiei esker, uste dut hasi ginela Lesakako edertasunak **baloratzen**. Eta, hala

Udaletxean ere, obra berriarentzat baimena eman aitzin, itxura estetikoak ere kontutan hartzen hasi ziren. Zarpailkeriarik ez zen onartzen, obra baimena nahi bazen, behar zen zaindu **estetika**... Orduko erabaki haien ondorioa ere bada gaurko Lesaka; zor diogu aitortzea.

A, eta Xinko eta sanferminak, noski!!! Ez soilik *Zubi-gainekoa*, baita xeheak ere: balkoiak loretan edo ezpata-dantzarien makilak gurutzatuak edo espartzinak eta kaskabiloak eskaparatetan luzitzen, eta nola luzitzen gainera, eta gure banderaren koloreak, *japoniarrera*... bestatako programa eleganteak (inon gutxi ateratzen zizutenak)...

Oroitzen naiz, baserritarra izaki ni, baserritar mutur zikin, oroitzen naiz aski ongi: **baserritarrez jantzirik neska-mutikoak** argazkitan ikusi nituekoea, postal baterako bezalatsu, aizu, Xinkok bere etxeko lurreko su bazterrean, kobrezko pazien artean... orduantxe hasi nintzen nire baserritar izaera onartzen, uste dut lehen aldiz, harro sentitzen, estetikoki ere baloratua. Auto-estimua deitzen diote orain.

Orain arrunta da hori dena. Orduan erabat ez-

ohikoa zen; joan deneko berrogei eta gehiago urtetako kontuaz ari natzazue.

Eskerrik asko, Xinko.

Lesakako Gazte Eguneko eskerra

Jon ETXEGARAI, Olaia IANTZI, Ainara ETXABIDE, Beñat IANTZI eta Ladis SATRUSTEGI (Lesakako Buruztanka Gaztetxearen izenean)

Lerro hauen bidez, Buruztanka Gaztetxearen izenean, eskerrak eman nahi dizkiegu gazte egunaren inguruan lanean aritutakoei.

Lehenik eta behin, duela hilabete batzutatik honat hurbildutako gazteei. Egunean bertan ez ezik, ekitaldi guztien prestaketa eta antolakuntzan egondakoei.

Horretaz gain, Beti Gazteko eta Bittiriko lagunei bazkariko mahai eta aulkiak uzteagatik ere gure esker ona eman nahi diegu. Hendaiako Sasioko Gaztetxeari, beraien esperientziak trukatzegatik, musikariei giroa alaitzegatik (Polekeleke elektrotzaranga, Oskar Estanga eta DJ JotaTxori). Hala nola, Lesakako ostalariei egunean zehar emandako errazta-

sunengatik eta modu batean edo bertean inguruan egon ziren guztiei, laguntza eta lanerako prestutasunez. Esker hauek emanik, orain Gaztetxea atontzen segituko dugu hurrengo hila-betetan irekitzeko ilusioz. Horretarako, jendea animatu nahi dugu parte hartzera, ikusirik denen artean lan pixko bategin-dagauza ederrak lortzen direla. DENOK baitugu zer egin eta zer eskaini. *Buruztanz buruztanka, gaztetxia ailetu da!* Hurbildu eta parte hartu!

Doneztebeko Dantzari Eguna elkartasunaren fruitu

Leire ORTUOSTE (Doneztebeko Dantzari Tikien guraso taldea)

Amatxo baten ametsa egia bihurtu zen apirilaren 30ean. Aspaldi zuen buruan egun hau ospatzeko ideia, beraz, Dantzari Txiki gurasoen taldean proposatu eta segidan lanean hasi ginen. Erreka dantza taldekoekin harremanetan jartzea izan genuen lehenengo lana, beraiek baitira proiektu honen zati garrantzitsua eta el-

karlanean eguna aitzinera atera dugu.

Bidean jende anitzekin topo egin dugu eta herri guztia gurekin batera dantzan jarri dugu. Idatzi honen helburua, antolaketa lanean modu batean edo bestean lagun izan dugun guztioi eskerrak ematea da (espero dugu inor ez ahaztea eta barkamena eskatzen dugu alde zurretik). Lehenik eta behin Erreka dantza taldeari eguna gurekin batera ospatu eta antolatzegatik. Burrumba elkarteari gure egarría asetzegatik; Zabalar gure makilei asotsa emateagatik; Apeztegia Berriari gure mahaiak apaintzegatik. Aldi berean Legasako kontzejuari mahaiak uzteagatik; La Caixa eta Doneztebeko Udalar, laguntza eta kolaborazioagatik; Mendituriko Joxemari bere pazientzarengatik; Nerea Erasun eta Jaioneri kartel ederra eta ikuskinari ahotsa jartzeagatik; Ituren-Zubieta; Sunbila-Baztan eta Lesakako dantzari beuren bixitagitik eta ezin ahaztu musutruk aritu diren hainbat eta hainbat lagunei, giblean, ikusten ez den lekuan antolakuntza lanetan aritu direnei ESKER ANITZ GUZTIOI

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.eus

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Gu denon txikitako ilusioa pilotari izatea zen, profesionaletara heltzea. Debuta egiteko momentua ez dago gure esku, beste batzuek hartu behar dute erabakia; baina bukaera emateko erabakia nire esku egon da eta hori, kakotx artean, pribilegio bat da (...). Nire ilusioa goi mailan uztea zen. Ez dut batere damurik, ze uste dut bukaera polita dela».

Abel BARRIOLA
Leitzako pilotari ohia
ZAZPIKA 2017.04.30



«Ni oroitzen naiz gure belaunaldian, unibertsitatera oso gutxi joaten zirela, eta, gainera, pentsatzen genuen profesionaletara iritsita ez genuela ikasi beharrik. Argi dago oker geundela, ze ikasketek, adibidez, kiroleko momentu zailtan pilo bat laguntzen dute. Gaur egun ikusten ari gara ia gazte gehienek euren ikasketak dituztela.

Abel BARRIOLA
Leitzako pilotari ohia
ZAZPIKA 2017.04.30

11 galdera labur

Nor dugu Igor Aldaia Zabaleta?

Nik neronek zehaztea zail xamarra baina hitz gutxitan esan behar banu, ameslari eta sentibera.

Etxeko bi ttikiek uzten dizute denbora librerik?

Egia esan, ezin naiz kexa. Azkenean antolakuntza kontua da eta loari tarte kenduz, gauza asko egin daitezke.

Zein afizio dituzu?

Naturarekin bat datorren edozein gauza.

Zer ematen dizu korrika aritzeak?

Lasaitasuna, bakea... orokorrean, endorfina txute ikaragarria.

Leitzako eskolan ikasi duzu zure... zertan aldatu dira gauzak?

Aro digitalean nabarmen, nahiz eta oso ezberdin ikusten den guraso moduan ikasle modutik alderatuta.

Zein da eskola ttikien abantaila?

Batik bat hurbiltasunean, hartueman gehiagorako aukera ematen du.

Zer duzu antolatua maitzaren 27rako?

Jokuak, tailerrak, zumba, bazkaria, txokolatea, kale animazioa... gauza aunitz ongi pasatzeko.

Inguruko lau herriak elkartzeko aitzakia polita da...

Hori da, eta herriez gain, adin guztietako jendea, ikasle-irakasle zein guraso... denen arteko gertutasuna bideratzeko modu bat.

Nork pasatzen du hobe, haurrek edo gurasoek?

Haurrak jolasten eta gurasoak beraiei begira tarte baba garbituz..

Zer behar duzu zoriotsu izateko?

Bihotzaren barruan dagoenari kasu egin eta haren pausoak jarraitzea.

Amets bat?

Erlojuari begiratu gabe, opor egunetan *pairatzen* den plazerra 365 egunetara zabaltzea.



Igor ALDAIA ZABALETA → Leitzako gurasoa

MARITX
Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450
Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

sarobe
gozotegia okindegia
pº de eztegará 25 bajo
31780 bera (navarra)
t.948 63 08 99
www.sarobe.net

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

KATEA BIKE
BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.
Eta orain, GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK, bizikleta estatikoak lasterketako zintak
2. eskuko bizikletak
Kanttonberri 1, BERA
948 631 218
kateabera@telefonica.net
MASSIMO ORBEA CONDA SCOTT LOOK

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaila jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

BERA

GIZARTEA → HITZARMENA

Nafarroako Gobernuaren Alokairu Poltsarekin bat egin du Udalak

Programa kudeatzen duen Nasuvinsak, errenta zuzen kobratzeko bermea ematen die etxebizitza jartzen dutenei

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuaren Alokairu Poltsarekin bat egin du Udalak. Miguel Laparra Nafarroako Gobernuako presidentea ordea eta Josu Irtatzoki alkatea, hitzarmena sinatzeko ekitaldian.

Laparrak adierazi duenez, «apopilo sartzen diren pertsonen ahalmen ekonomikoa errentak dituzten etxebizitzak merkaturatzerakoan, gizarte integrazioa eta kohesioa bultzatzen da». Hitzarmenak dioenez, etxebizitza hutsa jartzen dutenei errenta zuzen eta tenorez kobratzeko bermea eskaintzen die, baita etxebizitza egoera onean itzultzea eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Miguel Laparra Nafarroako Gobernuako presidentea ordea eta Josu Irtatzoki alkatea, hitzarmena sinatzeko ekitaldian.

etxebizitzarako arrisku anitzeko aseguruia kontratatzea ere.

Modu berean, Nafarroako Gobernuak, Gizarte Eskubide Departamentuaren bidez, apopilo sartzen diren familiei diru-laguntza ematen die, beraien diru-sarreraren arabera.

Berako Udalak, bere aldetik, inguruko eza-gutza eta herriarrekiko hurbiltasuna eskaintzen du, programa honen baldintzen inguruko informazioa eskaintzeko. Herrian hutsik dauden etxebizitzak identifikatuko ditu, herrian zer behar dauden zenbatu eta etxebizitza babestua

behar dutenei laguntza eman, bertzeak bertze.

Alokairu Poltsarekin bat egin zuen lehen udalerria Baztangoa izan zen, 2016ko abenduan. Ildotik etorri ziren Tu-

tera eta Barañain, 2017ko urtarrilean, Zangoza 2017ko otsailean, Antsoian 2017ko martxoan eta Berriozar eta Burlata, 2017ko apirilean.

SAN JOSE ZAHAR ETXEKO PATRONATUA

Kanttonberriko beilatokia funeraria-enpresa guztiei irekia

Hemendik aitzinera Kanttonberriko beilatokia funeraria-enpresa guztiei irekitzea erabaki berri du San Jose Zahar Etxeko Patronatuak. Horiek horrela, orain arte Tanatorios Irache-rekin zuen kontratua bertan behera uztea erabaki dute eta lokala erabiltzeko aukera edozein funerariari zabaltzea. Tarifak hauek izanen dira eta urtero KPlarekin eguneratuko dira. Berakoek: 116 euro. Berakoak ez direnek: 155 euro.

BESTAK

‘Berako Oihua’ aldirikarirako lanak aurkeztu ahal dira

TTIPI-TTAPA

Urteroko moduan, Berako besten programarekin batera, *Berako Oihua* aldirikaria banatuko da etxeetan. Bertan artikulatuak idaztera animatu dute Kultur Batzordetik. Hauek aurkezteko epea ekainaren 16a bitarte izanen da.

Lanak nahi den gai eta luzerakoak izaten ahal dira, eta irudi edo argazkiz lagunduak joaten ahal dira. Lanak, posta elektronikoz kultura@bera.eus helbidera bidaltzen ahal dira edo, bertez, zuzenean Berako Kultur etxera eraman. Kultur Batzordeak aunitz eskertuko luke, ahal izanez gero, lanak formatu digitala aurkeztuko baliara. Gehienez ere bi orrialdeko lanak aurkeztuko dira. Aldizkarian jorratzen ahal diren gaiak herriarekin erlazionatuak izan behar dute.

BORDALARRA
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
Tel. 943 467 244 • 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordako.com

Bidasoa
GASOLINDEGIA
A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA 24 ORDUZ
Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA • T. 609 446 693

BAR Botxo OSTATUA
Zalain • BERA • 948 630 052

GIZARTEA → MAIATZAREN 6AN

Isidoro Fagoaga omendu dute Agramontea sortetxean

Oroit-plaka jarri du Udalak eta musikaz eta dantzaz ohoratu dute

TTIPI-TTAPA

Isidoro Fagoagari omenaldi nagusia maiatzaren 6an egin zioten Illekuetako Agramontean, bere sortetxean, Abesbatzaren, Bandaren eta Gure Txokoako dantzarien eskutik. Oroit-plaka bat ere paratu zion Udalak etxe atarian, tenorearen esaldietako bat ageri duena: «Geure kulturari uko egitea bizitzari berari uko egitea litzateke».

Alkatea eta udal ordezkariekin batera, Isabel Elizalde, Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilaria eta Susana Irigaray, Museo Zerbitzuko zuzendaria izan ziren ekitaldian, Fagoagaren senide eta hainbat beratarrekin batera.

Agramontean jarritako plaka azaldu ondotik, Gure Txokoako Jon de la Cruz eta Iraia Gileneak aurrekoa dantzatu zuten eta berriz ere, abesbatzak eta musika bandak eskainitako kantuekin bukatu zuten omenaldi ekitaldia.

Igandera bitarte zabalik dagoen erakusketaz gain, hilaren 19an hitzaldia Beralandetan, 26an mahaingurua Gure Txokoan eta 30ean LHko 5. eta 6. mailako ikasleen ginkanak iragarriak dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIA
Nafarroako Gobernu eta udaleko ordezkariak, Isidororen Lagunak elkarteko kideekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Traktorea nagusitu zaio idi-pareari II. Azienda Feria egunean

Berako II. Azienda erakusketa feria ospatu zen apirilaren 29an. Bertako arrazen erakusketa ere izan zen: pottokak, betizuak, sasi ardiak eta euskal xerria, gainerako aziendarekin batean. Eguraldia lagun jendea bildu zen Toki Ona kiroldegi ingurura. Traktorearen eta idi-parearen arteko apustua ere jokatu zen, 15 minutuz zeinek plaza gehiago egin, eta traktorea nagusitu zen. Azienda erakusketarekin batean inguruko ekoizleek ere jarri zituzten postuak, hala nola: barazkiak, ogia, gasna, haragia... hauekin batean, iaz bezala Berako base rrietako gasna eta sagardoa probatzeko aukera izan zen.

FLASH

Gurasoentzat Drogei buruzko tailerra

Drogen inguruko gaiez hitz egiteko, izan ditzagun gauzak argi gurasoentzako tailerrak eginen dute maiatzaren 24, 29 eta 30ean Beralandetan, 16:00-etatik 18:00etara. Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Hegoak elkarteak antolatu dute, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz. Izen emateko ssb@lesaka.eus helbide elektronikoan edo 948 635036 telefonoan.

Berako Mendi Itzulia igandean

Agerra mendi taldeak antolatutako XIII. Berako Mendi Itzulia eginen dute maiatzaren 21ean. Mendizaleek 28 kilometro eta 1.750 metroko desnibela duen itzulia egin beharko dute. Larunera igo gabe egiteko aukera ere izanen da eta bigarren aukera honetan, 1.250 metroko desnibela izanen dute. Izen-ematea egunean berean 06:00-etatik aitzinera edo www.mendizmendi.com webgunean.

Karrantzako Abesbatzaren kontzertua

Karrantzako Abesbatzak kontzertua eskainiko du maiatzaren 27an, larunbatean 20:00etan Kultur Etxean. Berako Abesbatzak antolatu du emanaldia.


okaNea
HARATEGIA / URDAITEGIA
Enaut & Nekane
Kanttonberri 12 • BERA
Tfno/Fax: 948 630 018


xuga
tel. 948 631 519
www.xugabera.com
www.facebook.com/xugabera

LESAKA

KULTURA → MAIATZAREN 19TIK EKAINAREN 4RA

Artea Oinez erakusketa Harriondoan ikusgai

Fabrika eta harremanak landuko dituzte maiatz hondarrean

Aitor AROTZENA

Apirileko azken asteburuko *Bikin Batin Duetloia* eta herri bazkariaren ondoren, maiatzaren 19an, Artea Oinez erakusketa Iruñeko Condestable jauregitik herriko Harriondoa Kultur Etxera ekarriko dute eta bertan izanen da ikusgai. Ortziralean 18:00etan egingen dute inaugurazio ekitaldia eta ekainaren 4ra bitarte ikusgai izanen da hainbat artelan biltzen dituen erakusketa. Tartean, herriko Javier Igoa, Juan Carlos Pikabea eta Irantzu Pastorren lanak ere ikus daitezke.

Astelehenetik ortziralerara, 17:00etatik 20:00etara eta larunbat eta igandetan 10:30etik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara ikusgai izanen da.

FABRIKA ETA HARREMANAK

Maiatzeko azken aste hondarrerako ere ekitaldi bereziak antolatuko daude, *Fabrika eta harremanak* izenburupean. Maiatzaren 27an, larunbat goizean, *Inguaruarekin harremanak* landuko dituzte eta Biurrana errekan garbitze lana egingen dute, Na-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

420 lagun bildu ziren duatloi ondoko herri bazkarian.

farroa Oinezeko Ingurumen Batzordearen bidez eta Irekibai-ren laguntzarekin. Maiatzaren 28an, *Haurren harremanak* landuko dituzte Arratzubi karrikan. Igandeko goizeko 10etatik aitzinera Erraldoien Topaketa egingen dute. Harriondoatik abiatu eta Arratzubi karrikan bukatuz, Bera, Elizondo, Etxalar, Igantzi, Sunbila eta Lesakako erraldoiek parte hartuko dute. 11:30etik aitzinera

Erronka Ttikia egingen dute Arratzubin, Lehen Hezkuntzako haurren arteko taldekako jokoa.

Bi egunetan, *Fabrika eta harremanak* erakusketa ikusgai izanen da Bihotzkada elkartearen Taupadak lokalea. Bertzeren artean, Artea Oinezeko batzordeak ikastolako ikasleekin lana eta harremanekiko aitatxi-amatxi zein guraoen bizipenen inguruan sortutako bideo lana ikusgai izanen da.

FLASH

Abesbatza eta Musika Eskola elkarrekin

Lesakako Abesbatzak eta Musika Eskolak emandia eskainiko dute maiatzaren 21ean, igandean 18:00etan Harriondoa Kultur Etxean.

Nafarroako izenen misterioaz jardunaldia

Nafarroako Unibertsitateko euskal hizkuntza eta kultura katedrak jardunaldi berezia antolatu du maiatzaren 26an Harriondoan, *De Engracia a Garazi. El misterio de los nombres en Navarra* izenburupean. Ortziralean 10:30ean, antroponimia eta heraldikaz ariko da Andoni Esparza eta 11:30ean bisita gidatua egingen dute Egoitz Telletxearekin.

Bortzirietako II. Abesbatzen Topaketa

Bortzirietako II. Abesbatzen Topaketa antolatu du Giltzarri abesbatzak, Lesakako Udalaren laguntzaz maiatzaren 27an, larunbat arratsaldeko 8etan Harriondoa Kultur Etxeko Komentuko elizan. Giltzarri abesbatza antolatzailearekin batera, Madrilgo Colmenarejo hiriko Coro del Camino Real eta Frantziako Basse Goulaineko Choeur Colomante ariko dira kantari.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lanzaroterako bidaiaren zozketa

Lesakako Zerbitzuen Elkartek bezeroen artean Lanzarotera bi lagunendako bidaia zozketatu du. Belen Mutuberria, Lesakako Udaleko kultura eta turismo teknikariak atera zuen zorbaki sariduna eta Berrizaungo Eulalia Garro suertatu da irabazle. Argazkian, Eulaliaren alaba, Lourdes Begino ageri da, Lesakako Zerbitzuen Elkartearen presidentea den Rakel Conderen eskutik saria jasotzen.

Errenta aitorpenak egiten ditugu!

asesoría
Emaizta
AHOLKULARITZA

- Kontable
- Fiskala
- Laborala

Eltzeta, 20 beheka LESAKA | 948 638 077
amaia@emaitza.eu

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 4AN

XXV. Gasna Feria eta lehiaketa prestatzen ari da Altxata elkarteak

Inguruko gasnagileak beraien gasnak aurkeztera animatzen ditu

Irene ELIZAGOIEN

Ekainaren 4an ospatuko da Gasna Feria eta egun horretarako prestatuta lanetan hasia da Altxata. Gasna lehiaketa eguerdian egingen da eta gasnagileei parte hartzeko gonbidapena luzatu zaie. Bortziriak, Malerreka, Baztan, Ur-dazubi, Zugarramurdi eta Leitzaldean bizi diren gasnagileek ardi latxaren esne gordina-ekin egindako gasna aurkez dezakete, gutienez 60 egun duena. Bakoitzak gasna bakarra aurkeztuko du eta honen truke 15 euro ematen

zaizkio. Lehenengo saria 120 eurokoa izanen da, bigarrena 90 eurokoa, hirugarrena 75 eurokoa, etxalarko gasna hobereenak 50 euro irabaziko ditu eta bigarrenak 30 euro.

Bertso kantu afaria

Gure esku dago ekimenaren alde, bertso kantu afaria egingen da Kultura txokoa maiatzaren 20an. Txartelak salgai daude herriko okindegian.

Herri kirol desafioa

Ekainaren 3an Beran herri kirol desafioa egin nahi da, *Eman Bortze*-koa taldearen aldeko ekimenaren baitan. Herri kirol taldea sortu behar da herrian (667 766290 telefonora deitu).



Ba al zenekien

Mireia Martinez Marbellako telebistan agertu dela ofizio espiritualen inguruan solasean



ARGAZKIA: ANA INDABURU

Nafarroako Soinularien Topaketa

Maiatzaren 6an Nafarroako hainbat xokotatik hurbildu ziren akordeoilariak Etxalarrera. Eguraldi bikaina lagun, goizean herriko karrikak alaitu zituzten, gero Juan Jose Tomasenari omenaldia egin zioten, eta ia 130 lagunek bazkaria egin zuten frontoian. Ilunabarrera arte akordeoi doinuek alaitu zuten herria.



ARGAZKIA: ARANTXA DANBORIENA

Lurritziederrako bestak

Maiatzaren 7an ospatu ziren Lurritziederrako bestak. 62 lagun elkartu ziren Landaburuko bordan bazkaltzeko eta mahai inguru politean egon ziren.

XAGU LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

"TELLETXEA" Lorazaintza

Paisajismoa
Kimaketak
Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak

Otxangoko Ind. 18 | LESAKA
T. 619 418 683 | johnnetletxea@hotmail.com
www.telletxealorazaintza.com

ERANDONEA, S.L.

FRUTAS
VERDURAS
FLORES
Y OTRAS PRODUCTOS

**BILTEGIA 948 630 102
ANDER 687 736 929**
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

JAIONE-GOXOTEGIA

948 630 786
Aitzate, 21 • BERA

ARANTZA

GIZARTEA → EKAINAREN 11N

Eman Bortzekoa egunpasa antolatu dute Ternida Egunerako

Bazkaldu ondotik Beñat akordeoilaria ariko da

Nerea ALTZURI

Gaínean dugu ekainaren 18an egingen den herri-galdeketa eguna. Egun haundia izanena da, baina hori baino lehen Eman Bortzekoa taldearen eskutik hainbat ekimen antolatzen ari dira.

Joan den maiatzaren 6an, erraterako, bortz herrietako herritarrekin egindako bideo klipak aurkeztu zuten Baskulan. Saio bat baino gehiago

izan ziren, eta 140 bat lagun hurbildu ziren bideo-klipa ikustera.

Ekainaren 11n, berriz, Ternida Eguna da eta herritarrek ohitura handia izaten dute Mendaurko kaxkora oinez joateko. Egun hori probetuz, mendian egunpasa antolatu du Eman Bortzekoa Elkarteak. Norberak bere bazkaria eraman eta Senberroko bordan bazkari herrikoia izanen da. Edaria Eman Bortzekoa Elkartekoek paratuko dute. Eta bazkalondan, Beñat Mitxelena akordeoilariak arratsaldea girotuko du.

ABUZTUAREN 19AN

Arantza Rock 2017 prestatzen

Arantzako Gazte Asanblada urteko bere ekitaldi nagusienetako bat antolatzen ari da. Arantza Rock abuztuaren 19an izanen da eta eguna iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du aurten ere. Parte-hartzea irekia da. Pertsona bakoitzak lan bakarra aurkezten ahal izanen du eta lanak originala eta argitaratu gabea izan behar du. A3 formatuan aurkeztu behar da eta informazio honek agertu behar du: *Arantza Rock 2017* (logo berri bat sortu) eta 22 (edizioa); *Abuztuak 19*; taldeen izenak: *Estu & Larri, Liher, Bad Sound System, Trikizio, DJ Jotatxo, Sarrera debalde, Egitaraua: 13:00etan aperitibua, 14:00etan bazkaria, bazkalondun jinkana, Ilunabarrin poteua elektrotxarangarekin eta 22:30etik aitzinera kontzertuak*; Ikurrak: *Euskal Presoak Euskal Herrira* eta *Eraso sextarik ez*. Arantzako Gazte Asanbladaren zigilua ere behar du.

Kartela arantzagazteasanblada@gmail.com e-postara bidali behar da ekainaren 4erako, 23:59 arte. 200 euroko saria eramanen du irabazleak eta epaimahaia Gazte Asanbladako kideek osatuko dute. Herrian erraten den moduan, animzte eta parte hartu!



ARGAZIAK: EMAN BORTZKOA

Herritar saila ageri dira Eman Bortzekoa Elkarteak egin duen bideo kliplean. Irudietan batzuk.

Eliza garbitzeko bidaia eta berendua

Urtero bezala, eliza garbitzen duten herritarrek saritzeko bidaia eta berendua antolatu dituzte herriko eta Igantziko parrokiek.

Ortzegun honetan, maiatzak 18, Bergara eta Eibar aldera bidaia antolatu dute. 08:00etan autobusez abiatuko dira.

Itziarren gosari bokatua egin eta Bergarako Laboratorium museo ospetsua ikusiko dute. Arratsaldean, Eibarko Armagintza museoa ezagutuko dute. Autobusa

parrokiek ordaintzen dute eta norberak bere bazkaria eta bisitak ordaintzen ditu.

Bidaia joan ezin zirenek berendua izan dute.



Ba al zenekien

Arantza Hotelak Conde Nast Traveler 2017 saria irabazi duela? Bortz izarretako landa-hotelak ihesaldi-hotelaren saria irabazi du, bertz bertz establezimendurekin lehiatu ondotik.

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.com

aterpe

albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

GIZARTEA → MAIATZAREN 5EAN

‘Eman bortzekoa’ bideoaren aurkezpen jendetsua

70 herritarrek parte hartu zuten bideoan eta hori nabaritu zen aurkezpenean

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 5ean Eman Bortzekoa herri galdeketa bideoaren aurkezpena egin zen Biltokian. Bideoan 70 bat herritarrek parte hartu zuten, eta hori nabaritu zen aurkezpenean, bertze horrenbertze lagun eta gehiago berratu baitziren bideoak ikustera.

BTT jautsiera eta kontzertuak

Xabi Telletxearen omenezko 7. Mendi bizikleta jautsiera borobil ateri zen maiatzaren 6an. Bertze urteetan baino parte hartze handiagoarekin (kirol orrialdeetan informazio zehatzagoa).

Gazteek antolatutako kontzertuak ere jendetsuak izan ziren egun berean. Hauek dire zenbaki saridunak: 0129 (lehen saria); 1088 (bigarren saria) eta 0208 (bigarren saria). Saridunik agertzen ez bada, ekainaren 6an egingen da berriz zozketa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Biltoki elkartea ttiki gelditu zen ‘Eman bortzekoa’ bideoaren aurkezpenerako.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Juantxo Skalari&Rude Band taldeak kontzertu bikaina eskaini zuen.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Edredoi nordikoetan espezialistak

edredoi fundak • albormozak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

BORTZIRIAK

GIZARTEA → NAFARROAKO HIRI-HONDAKINEN TRATAMENDURAKO PARTZUERGOAREN TASAK

Konposta egiten dutenek %25eko deskontua dute eta zaborrontzi marroikoek %20koa

Tasak kalkulatzeko bi faktore kontuan hartzen dituzte

TTIPI-TTAPA

Tasak kalkulatzeko an bi faktore kontuan hartzen dituzte Hiri Hondakin Tratatamendurako Partzuegoan: **Hondakin Sorkuntza** batetik eta **Organikoaren Ezarpena** bertzetik. Lehenengoaren kasuan, errefusaren sailan ahalik eta hondakin kopururik txikiena sortzea da helburua eta Bortzirietako kasuan hori gauzatzen denez, %5eko deskontua aplikatuko zaie Bortzirietako erabiltzaile guztiei. Bigarren faktorea **Organikoaren Ezarpena** da eta, kasu honetan, deskontua ezberdina izanen da erabiltzaileak eragiten dituen bilketa eta tratamendu gastuen arabera. Hau da, etxeko eta auzoko konpostaje sistemak erabiltzen dituen erabiltzaileak %20ko murrizketa gehigarria izanen dute, eta kopuru horri hasierako %5a gehitzen badiogu, osotara %25eko deskontua aplikatuko zaio. Eta zaborrontzi marroia (Lesakako kasuan bezala) edo atez-ateko sistema erabiltzen duten sortzaile handiek (gehienbat jatetxe, ostatu eta antzekoak), %15eko deskontu gehigarria izanen dute (denetara %20ko murrizketa hasierako deskontuari batuz gero).



Bortzirietako
 Hiri-Hondakin Mankomunitatea

www.bortzirietakabor.com
 bulegoa@bortzirietakabor.com
 Tel. 948 63 52 54

Jakinarazten da: 2017ko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinatzen den bezalaxe:

2017ko TASAK

ERABILTAILEEN eta TASEN MAILAK

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA	KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	€/urteko		€/urteko	€/urteko
Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorren bizi ala ez	77,50 €		1. Landetxea: 6 toki edo gutxiagokoa	78,70 €	
Zaborrontzi 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak	86,00 €	46,32 €	Zaborrontzi 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak	67,00 €	
Zaborrontzi 500 metrotik gora dauden baserriak	54,30 €		Zaborrontzi 500 metrotik gora dauden landetxeak	55,10 €	
1. Merkataritza eta zerbitzuak.	78,70 €		2. Landetxea: 6 toki edo gehiagokoa	167,60 €	
Elkagaien eta etxetresna sektorekoak ez direnak: Merteriak, drogeriak, burundegiak, okindegiak, ileapaindegiak, lan bulegoak, Erakiri publikoak.			Zaborrontzi 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak	134,10 €	
2. Merkataritza. Elkagai dendak (harategiak, arraindegiak, janari dendak), etxetresna dendak eta farmaziak	154,80 €		Zaborrontzi 500 metrotik gora dauden landetxeak	110,30 €	
3. Merkataritza. Autozerbitzuak	235,70 €		1. Hostala. 10 logela edo gutxiagokoak	549,80 €	
1. Ostalua. Nolizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltegiak eta jarrailan irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m ² ko edo gutxiagoko azalera dutenak.	157,10 €		2. Hostala. 10 logela baino gehiagokoak	785,60 €	
2. Ostalua. 30m ² baino azalera handiagoa dutenak eta janari denda daukaten ostatuak	314,50 €		Merkataritzako saltokiak, opariak bakarrik saltzeko	392,30 €	
3. Ostalua. Pub eta diskotekak	392,80 €		Merkataritzako saltokiak, janaridenda edota ostatudunak	785,60 €	
1. Jatetxea. Modu iraunkorren irekiak dauden Elkarte gastronomikoak, eta 5 m ² baino gutxiago dituzten jatetxeak	392,80 €		Merkataritzako saltokiak, jatetxedunak	1.178,50 €	
2. Jatetxea. Bortz mahai baino gehiago dituzten jatetxeak	707,40 €		Lantegiak, 4 langile bitarte. Jarduerak: argikariak, iturginak, pintoreak...	78,70 €	
			Lantegiak, 5-10 langile bitarte	157,10 €	
			Lantegiak, 11-30 langile bitarte	392,80 €	
			Lantegiak, 31-60 langile bitarte	785,60 €	
			Lantegiak, 60-150 langile bitarte	1.178,50 €	
			Lantegiak, 150-300 langile bitarte	2.233,10 €	
			Lantegiak, 300 langile baino gehiago	3.291,50 €	
			Norberaren erabilerarako edukiontzia	763,50 €	

Ordaintzeko era

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:
Abisua agertzen den edozein kontutan agintzen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoitzua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:
Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea

• 2017ko maiatzaren 31n bukatuko da.
• Ordaintzen ez bada, epea 2017ko ekainaren 30era arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da.
• Aipatutako epea pasatu ondoren, premiarenduzko exekuzio bidez %20ko errearguarekin kobratuko da.

Bortzirietako, 2017ko apirilaren 1a
Presidentea,
Miguel Maria Irgolien Sanzberro

GIZARTEA → AKATS ZUZENKETA

Bortzirietako Hiri-Hondakin Mankomunitateko 2017ko tasak

Tipi-Ttapa aldizkariaren 684. zenbakian argitaratu ziren 2017an indarrean izango diren tasak. Iragarki horretan ikusten ahal denez, kontzeptu bakoitzarengatik bi tasa ezberdin zehazten dira: bilketa tasa alde batetik eta tratamendu tasa bertzetik. Bigarren honi dagokionez, 2016ko abenduaren 2ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (233 zk) argita-

ratu zen lehendik (2011z geroztik) indarrean zeuden tasen eguneraketa. Horren arabera, Mankomunitateak erabiltzaile bakoitzarekin adostua duen bilketa eta tratamendu sistemaren arabera, %20 edo %25eko deskontua aplikatuko zaio Nafarroako Hiri Hondakin Tratatamendurako Partzuegoak kobratzen duen Tratamendu Tasari dagokionean.

ARANTZA ETA IGANTZI

Birziklapen eta konpostaren inguruko kanpaina abian

TTIPI-TTAPA

Iaz Etxalarren egindako esperientzia pilotua ematen ari den emaitza onak direla eta, Bortzirietako Hondakin Mankomunitateak bertze herrietara zabaltzea erabaki du. Horregatik, aste honetan bertan birziklapen eta konpostaren inguruko kontzientziazio eta sentibilizazio kanpainari hasiera emanen zaio Arantzán eta Igantzín.

Helburu nagusia bi herrietako bizilagunak gure hondakinak sortzen dituzten arazoez eta etxean ongi bereiztea duen garrantziaz kontzientziatzea da.

Kanpaina hasi baino lehen eta ondotik lau zaborrontzi berde hustuko dira Arantzako plazan eta bertze lau Igantzínko frontoian. Hondakinak bereiziko dira eta dagozkien edukiontzietan sartu. Horrela jakinen dugu zertan hobetu behar den momentu honetan eta kanpaina bukatzerakoan datuak alderatu ahal izanen ditugu emaitzak ateratzeko. Bi herrietako etxebizitza guztietatik pasako dira informazioa ematera.

GIZARTEA → APIRILAREN 27AN IRUÑEAN BILDU ZIREN ERAKUNDE EZBERDINAK

Bidasoa, Urumea eta Urdazuri ibaiak kudeatzeko hitzarmena berritu dute

Nafarroako Gobernua, Gipuzkoako Diputazioa eta Hego Lapurdiko Hirigunea elkarlanean ari dira, bertze zenbait erakunderekin batera

TTIPI-TTAPA

Bidasoa, Urumea, Oria, Errobi eta Urdazuri ibaietako urak elkarrekin kudeatzeko konpromisoa berretsi zuten apirilaren 27an Iruñean Nafarroako Gobernuak, Gipuzkoak Diputazioak, Hego Lapurdiko Hiriguneak, Pirinio Atlantikoetako Departamentuak, Uraren Euskal Agentziak, Errobiko Syndicat Mixte du Bassin Versant erakundeak eta Aturri-Garonne Uren Agentziak.

Ekitaldi berean, elkarrekin dituzten uren kudeaketarako kartaren jarraipen batzordeko presidentziarako txanda Gipuzkoak hartu zuen Isabel Elizalde, Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Inguru-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ignacio Zalakain oiartzuarrak atera du Bidasoko Lehenbizikoa

Denboraldia ireki eta hamabi minutu nahikoak izan ditu Oiartzunen sortu eta Lezon bizi den Ignacio Zalakain arrantzaleak aurtengo denboraldiko lehen izokina ateratzeko. Ignacio Zalakainek urteak daramatza arrantzan, amurrairetan lehenik, eta izokinetan ondotik. Enderlatsa parean arrantzatu du 4,7 kiloko eta 80 zentimetro luzeko arraina, maiatzaren 1eko 07:12ean. Kutxarila erabiliz lortu du lehenbiziko izokina arrantzatzea. Izokin arra eta basatia zen, ez baitzuen txipik ezta hegal mozturik ere. Berako Ehiza eta Arrantza Elkarteko Lorenzo Jaurena presidenteak saria eman dio Zalakaini lehen alea harrapatzeagatik. Izokina, berriz, Donostiako Errekondo jatetxeak erosi du, 1.800 euroren truke. Gustura agertu da Zalakain bera: «Tratua egin dugu, eta pozik geratu naiz. Halakoak gutxitan lortzen dira». Denboraldiko lehen izokina soilik sal daiteke, gainontzekoak ezin dira merkaturatu. Enderlatsako presa bota dute aurtan eta hortaz, arrantzaleak sakabanatuagoak zebiltzan ibai bazterrean. Aurtan, denera 78 izokin arrantzatu ahal izanen dituzte Bidasoan, azken urteetan baino guttiago. Kopuru horretara ailegatutakoan bukatuko da sasoi, edo, bertzenaz, uztailaren 31n. Aurtan, lehen aldiz, arrantzale bakoitzak gehienez hiru izokin arrantzatze modua izanen du sasoi osoan.

men eta Toki Adminis-
trazio departamentuko
kontseilariaren eskutik.

Elizalde aipatu zuenez, egitasmo honen helburua «uraren kudeaketa norbere lurraldearen

muga administrati-
boetara ez mugatzea
da, eta horren ordez,
modu globalean kude-
atzea, ibaien arro guztia
kontuan hartuta». Hego Lapurdiko Hirigu-

neko ordezkariak gogo-
rarazi zuenez, 2017ko
urtarrilaren 1ean Ipa-
rraldeko hamar manko-
munitatek bat egin zu-
ten, konpromiso honi
lotzeko.

BARAKALDON

‘Uraren Bailarak’ Expo-
Vacacionesen
parte hartu du

TTIPI-TTAPA

Maiatzeko lehen asteburuan Baztan-Bertizarana-Malerrera eta Bortziriak present egon ziren Barakaldoko BECen egin den *Expovacaciones* turismo azoka handian. Baztan Bidasoa Turismo Garapena, eskualdeko udal gehienak biltzen duen lankidetzak bilguneak, gure bailarak promozionatzera joan zen, Nafarroako standaren baitan.

Egun guztietan jendetza hurbildu zen informazioa eskatzera eta atenditzen ibili ziren bi langileak gelditu gabe aritu ziren. Igandean, Baztan, Bortziriak, Bertizarana eta Malerrera biltzen dituen *Uraren Bailarak* turismo marka aurkeztu zuten eskualdeko hautetsiek. Las-ter, marka horren aurkezpen lanekin segituko dute, eskualdean bertan.

Expovacaciones 2017 azokan parte hartu izanaren balorazioa hagitz positiboa da, eta esperientziak eskualdeko udalek promozioa lantzen segitzeko irakaspen interesgarriak ere eskaini ditu.

Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Penen blusak

kattigorria
lentzeria mertzzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

ZUBIONDO
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika
BERA NAFARROA

Tlf: 948 625 474

IRU BIDE
Erretegia · Asador

Biurraña, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

SUNBILLA

GIZARTEA → AHOBATEZ ONARTUA

573.000 euroko aurrekontua onartu du Udalak

Inbertsioetara 74.030 euro bideratuko dira

Maidar PETRIRENA

Herriko Etxeak 572.967,28 euroko diru-sarrera eta irteerak izanen ditu aurten, azken udal batzarrean ahobatez onartutako aurrekontuaren arabera. Gastuen atalean, inbertsioei dagokienez, 74.030,40 euro erabiliko dira eta diru-sarretan, zuzeneko zergen bidez 201.700 euro lortuko ditu Udalak.

Kirolariak bikain

Bikin Batin duatloia ospatu zen Lesakan apirilaren 29an eta bortz sunbildarrek parte hartu zuten. Bikote lana zuten egin beharra eta bi-

kote bat Igor Agestak (bizikleta) eta Eneko Herrerak (lasterka) osatu zuten, bertzea Xabier Irazoki (bizikleta) eta Iñigo Arrietak (lasterka), eta, azkenik, Aitor Apeztegiak (bizikleta) lesa- kar batekin egin zuen bikote.

Koldo Herrera Urroz ere hor daukagu fuerte Caja Ruralek antolatzen dituen karreretan parte hartzen. Martxoaren 5ean hasi zen Untzueko karrerarekin, ondotik Kaskanten eta Irunberrin parte hartu du eta uda baino lehen Zangoza eta Lizarra gelditzen zaizkio, maiatzaren 28an eta ekainaren 4an. Tartean Euskadiko Openeko karreran parte hartu zuen Izkuen maiatzaren 7an eta bigarren postua lortu zuen.



ARTXIBOKO ARGAZKIA
Koldo Herrera sasoiko dabil aurtengo denboraldian ere. Maiatzaren 7an Izkuen egindako Euskadiko Openeko karreran bigarren izan zen.



ARGAZKIAK: JOSETXO APEZTEGIA

Ameriketean artzain ibilitakoen besta

Maiatzaren 1a egutegian gorritz apuntatutako eguna da Ameriketean ibili ziren herriko artzaintzat. 1987az geroztik urtero urtero elkartzen dira mezan, ondotik Ulibeltzak elkartean beraien *highball* edaria hartu eta Ariztagain kanpinean egin zuten bazkari ederra eta pixka bat luzatu zirenak, baita berendua ere.



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Sunbildarrak Doneztebeko lehen Dantzari Egunean

Apirilaren 30ean Donezteben, lehen Dantzari eguna ospatu zen eta dantzarien artean sunbildarrak zeuden. Lehenik Ezkurra pilotalekuan egin zen aurkezpena eta gero herrian barrena dantzan ibili ziren. Bukaera berriz ere pilotalekuan eman zioten eta bertan dantza talde bakoitzak dantza bat egin zuen eta ondotik denek elkarrekin hiru dantza.



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Urteroko bisita egin du Mikel Donearen irudiak

Maiatzaren 7an urteroko bisita egin zuen Mikel Donearen irudiak herrira. Aurten aldaketa tiki bat izan zen. Ongi etorria Udaletxean egin zitzaion eta gero prozesioan eta kantuan elizaraino joan ziren.

GIZARTEA → MAIATZAREN 20AN

Erreka garbiketa antolatu du Herriko Etxeak

Life Irekibai finantza-tresnaren laguntzarekin

Marga ERDOZAIN

Erreketako Ingurumen Boluntarioria programaren barrenean erreka garbiketa antolatu du Udalak. Hitzordua maiatzaren 20an (larunbata), Merkatuko Plazan, goizeko 9etatik 12etara izanen da. Ekimen honek Life Irekibai finantza-tresnaren laguntza jaso du. Herriko guraso elkarte, kirol elkarte eta norbanakoei gonbidapena luzatu die. Animatzen denak udalera (948 450017) deitu behar du edo alkatetza@doneztebe.eus helbidera idatzi. Antolatzaileek eskularruak, poltsak eta matxardak ekarriko dituzte. Izena ematen dutenak aseguruak egonen dira, bukatzean, boluntarioentzat hamaiaketakoa eginen da. Antolakuntzatik aholku bat luzatu dute: arropa egoia, botak eta, zer gerta ere, euritarako xira eramateko.

Pintxo lehiaketaren irabazleak

Apirilaren 28tik maiatzaren 1era ospatu zen X. Pintxo Lehiaketak honako irabazle hauek utzi ditu: epaimahaiakoen saria Ameztia ostatua-

rentzat, bezeroen saria Pepa's kafetegiarentzat. Pintxo dastatu eta parte hartu dutenen artean Inurrieta upategiaren ardo lote bat zozketatu da eta Haritz Arriolari egokitu zaio. Aipatu behar da aurtengo edizio hagitz jendetsua izan dela. Zoriondu behar da sukaldeetan buru-belarri pintxo goxoak presu duten guztiei eta aldi berean azpimarratu behar da pintxoaren kalitatea gero eta altuagoa dela.

Bestak

Bestetako suziria nork botako duen erabakitzeko ekimena martxan paratu du Udalak. Aipatu behar da herriarrek pertsona bat edo talde bat aukeratzeko ahal dutela, zergatik aukeratzeko ahal aipatuz. Behin proposamen guztiak aurkeztuta, bestetako batzordeak izendatutako epaimahaiak aukeratzeko du ekainaren 28an beste hasiera nork emanen dien. Parte-hartzeko alkatetza@doneztebe.eus helbidera idatzi behar da.

Igerilekuko taberna

Aurreko bi urtetan bezala, Udalak igerilekuko taberna hartzeko aukera luzatu die herriarrei. Taberna udako denboraldia idekia egonen da, hau da ekainaren 18tik irailaren 10era.



ARGAZKIA: MARGA ERDOZAIN

Jakoba Errekondoren tailerrak interesgarriak izan dira

Jakoba Errekondoren tailerrak beti interesgarriak, gustagarriak, entretenigarriak suertatzen dira. Maiatzaren 6an Doneztebeko Herri Baratzak bertatik eza-gutzeko aukera izan zuen Jakobak eta bertaratutakoei hainbat aholku, argibide eman zizkien. Aldi berean jendeak egindako galderei plazer handiz erantzun zien. Jakobak martxan jarri duen buletina jasotzeko aukera zabaldu du, nahi duen guztiak edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatziz eta eskaera eginez lortzen ahal du astelehenero buletina jasotzea. Gogorarazi behar da dagoeneko 20 baratza martxan daudela eta ekimen honetan parta hartzeko aukera badela, beraz, beste inork herri baratza bat eskatu nahi badu udaletxetik pasa eta argibideak emanen zaizkio.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

22 ahari aurkeztu dituzte Udaberriko Feriako lehiaketara

Udaberriko feria hamekagarren aldiz ospatu zen maiatzaren 5ean, Udalak, Nafarroako Gobernuaren eta Cederna-Garalur eta Doneztebarrak elkartearen laguntzaz antolatua. Hamalau baserritarrek 22 ahari aurkeztu zituzten lehiaketara, azken urteetako kopururik handiena. Zazpi ahari muturbeltz eder aurkeztu ziren. Horien artean, iaz bezala, Donamariko Zabalteneko Joxe Mari Indak aurkeztutakoarentzat izan zen 120 euroko lehen saria. Bigarren saria, 70 euro, Beintza-Labaiengo Iñarreko Pablo Elizondoren ahariarendako izan zen eta hirugarrena, 50 euro, Ezkurako Ibiako Ascension Mindegiaarendako. Mutur gorrien atalean, 15 buru aurkeztu ziren eta diru-kopuru bera izan zuten saritzat hiru lehenbizikoek. Lehenbiziko saria Donamariko Epeloako Kontxi Bazterrikak aurkeztutako ahariarentzat izan da. Bigarren saria Oizko Peletxeneko Luxi Telletxeak lortu du eta hirugarrena Donamariko Sorameneko Nicolas Lasagak ahariak eskuratu zuen.

Taberna hau hartzeko asmoa duenak udal bulegoetatik pasatzen ahal

da baldintzen plegua eskuratzeko. Interesatuak ekainaren 2ko arratsal-

deko ordubiak arte aukera dute eskaerak aurkezteko.

ITUREN

GIZARTEA → MAIATZAREN 3AN

Eskolara bisita egin dute parlamentariak

Malerrekako sei herri eskola ttikietan 228 ikasle eta 40 irakasle ari dira

Arkaitz MINDEGIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak Iturengo (67 ikasle eta 8 irakasle) eta Saldiasko (9 ikasle eta 3 irakasle) herri eskolak bisitatu zituen maiatzaren 3an. Modu honetan, herrietako eskola ttikiei babesa eman nahi izan diote, inguruarekin duen lotura, baliabideen aprobetxamendua eta hezkuntza arloan berritzaileak direla goraipatuz. Iturengo eskolan harrera egin die-

te lehenik Arantxa Diez zuzendariak, Ane Otxandorena idazkariak, Guraso Elkarteko Maite Lujanbiok, Malerrekako Herri Eskolen koordinatzaile den Mikel Iriartek, Nafarroako Eskola Kontseiluko Aitor Etxartek, Mari Jose Bereau alkateak, Jagoba Manterola zinegotziak eta 0-3 urteko negoziatu buru den Miren Oñatek eta herrietako eskolen atal buru den Jesus Castiellak.

Bisita honekin, «Nafarroako herri eskoletako funtzionamendua eta hezkuntza esperientziak ezagutu nahi izan dituzte». Iturengo eskola ikusi ondotik, Arantxa Diezek eta Mikel Iriartek Malerrekako sei he-



UTZITAKO ARGAZKIA

Parlamentariak, Iturengo eskolako komunitateko eta udaleko ordezkariarekin.

rreri eskolen hezkuntza proiektua eta lan plan-gintza azaldu diete parlamentariak. 25 kilometro inguruan 228 ikasle eta 40 irakasle dituzte, hauetatik sei ibiltariak.

Arantxa Diezek hurbileko irakaskuntza azpimarratu du, «indibidualizatua, inguruari eta tradizioei lotua eta ezinbertzekoa herriak mantentzeko. Zorioneko sentitzen gara».

FLASH

40.000 euroko laguntza Udal Planerako

Nafarroako Gobernuak zenbait lankidetzak hitzarmen onartu ditu Udal plan orokorrak egiteko. Udalarekin 40.000 euroko urte anitzeko konpromisoa baimendu du. Horietatik, 8.000 euro 2017. urteari dagozkio, 24.000 2019koari eta 8.000 2021. urteari.

Fruta kanpaina eskolan

Bertze urte batez, elikadura osasuntsua bultzatzeko eta obesitatea ekiditeko asmoz, Nafarroako Gobernuaren fruta kanpaina ari da ikasturte honetan bigarren aldiz Pulunpa eskola ekainaren 26ra arte.



UTZITAKO ARGAZKIA

Isidro Bazterrika artzaina saritua

Eusko Jaurlaritzak Arkauteko Itsasmendikoi Nekazaritza Eskolan egindako azimendaren enkante ofizialaren baitan, CONFELAC latxa eta karrantza ardi hazle elkarteen Konfederazioak antolatutako ernalkuntza artifizialeko bosgarren lehaketan saritua suertatu zen Zubialdeko Isidro Bazterrika Mutuberria. Hain zuzen, 40 eta 75 ardi arteko artaldearen kategorian eskuratu zuen lehen saria. 71 ardi ditu Bazterrikak eta %76,56ko ugalkortasuna lortu du artaldean.

Sabaia Inmobiliaria

Salmenta - Alokairua - Aholkularitza
Bordak - Etxeak - Baserriak - Lokal komertzialak
Hiri eta landa-lursailak
Garajeak
Balorazioak
Salerosketa eta alokairuen kudeaketa

ORDUTEGIA
Astelehenetik ortziralerara 10:00-13:30 / 17:00-20:00
Larunbatetan 10:00-13:00

Eliza kalea, 22 DONEZTEBE
T. 948 451 337 | 685 153 665 | 667 275 013
sabaia@sabaiaimmobiliaria.com
www.sabaiaimmobiliaria.com

AGENTE ESCLUSIBOA
Seguros Bilbao

IBERDROLA
Berresen arretarako gunea
iberdoneztebe@gmail.com

Energia-ziurtagiriak
Lan egunetan
09:30 - 13:30

ELGORRIAGA

NARBARTE

KIROLA → MAIATZAREN 14AN

Mendizale ugari bildu ditu II. Mendi Itzuliak

Herrikoei ez ezik kanpokoei ere zabaldu zaie aurten

Mattin LARRALDE

Aurten bigarren urtez mendi itzulia egin da maiatzaren 14an. Joan den urtean herrikoentzat bakarrik izan zen. Aurten, ordea, ideki da edozein lekutako jendearentzat. Mendizale ugari bildu zen igandean.

Sagardotegiko menua Zorroilo elkarteak

Apirilaren 29an izan zen urtero Zorroilo elkarteak sagardotegiko menuarekin antolatzen duen afaria eta



aurten ere jende anitz hurbildu zen elkartera. Afal ondotik, kantuz aritu ziren ordu tikiak arte, giro ederrean.

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 3AN

Sagardoaren Eguna antolatu dute aurten ere

Bazkarira apuntatzeko hondar eguna maiatzaren 29a izanen da

Idoia IRIARTE

Aurten ekainaren 3an izanen da Sagardoaren eguna Narbarten. Honako egitaraua:

14:00etan bazkaria

menu honekin: entsalada, sagardoan egin dako txorizoa, bakailao tortilla, idi txuleta edo legatza, gazta, intxaurrak, irasagarra, kafea eta kopa. 17:00etan musika Salaberriren eskutik. Afaltzeko bokatak izango dira.

Bazkarira apuntatzeko epea maiatzaren 29ra arte dago zabalik. Animatu egun eder pasatzeko.

ETXEBIZITZA BERRIAK DONEZTEBE

2 eta 3 gelako etxebizitzak terrazarekin



KOKAPENA
MOURGUES IBILBIDEA

Lokal komertzialak ere baditugu!

- ✓ Lehenengo solairuak TERRAZA-SOLARIUM-arekin
- ✓ Ekialde, hegoalde eta mendebalderantz begira
- ✓ Goi mailako aislamendu termiko-akustikoa eta efizientzia energetiko goren
- ✓ Berogailu sistema mistoa galdara eta AEROTHERMAL energia berriztagarriarekin
- ✓ Trastelekua eta garajea
- ✓ Sukalde ekipatua (aukeran)

Zure neurria egindako finantziazioa

395 €/hilean

135.000€tik aurrera
Informa zaitez

EZKAIN ERAIKUNTZAK
Inzakardi kalea z/g | DONEZTEBE

629 951 170



ERNE! Ez galdu zure aukera

URROZ

OSASUNA

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 27AN

Egun osoko besta prestatu dute Malerreko Egunerako

85 urtetik goitiko zazpi herritar omenduko ditu Udalak eta Sunbillari pasatuko zaio lekukoa

TTIPI-TTAPA

Iturendarrei lekukoa hartuta, aldi honetan, Urrozen ospatuko da Malerreko Eguna. Oiturrari eutsiz maiatzeko hondar larunbatean, hila-27an izanen da eta egun osoan ekitaldi saila izanen dira.

10:00etan harrera ekitaldia egingen dute plazan, eta herrietako ordezkariak egunari hasiera emanen diote. Ondotik, 85 urtetik goitiko zazpi herritarrek omenaldia jasoko dute Udalaren izenean: Joxepa Etxegia, Bitoriano Arzuaga, Trinidad Grajirena, Demesia Iribarren, Joxe Arozena, Pedro Etxegia eta Bixi Arozenak izanen dira omenak.

10:30etik 14:00etara artisauak eta talogileak plazan egonen dira eta 10:30etik 12:00etara dantzariak ere plazan ariko dira. Abesbatzak ere emanaldia eskainiko du. Eguerdian, 12:00etatik 12:30era, Malerreko musikariak herrian barna ibiliko dira eta horien ondotik, 12:30ean, buru-haundiak eta joaldunak ibiliko dira harat eta honat. 13:00etatik 14:00etara



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Gaztainondoen izurritea

Gure inguruan ere agertua da aspaldixko gaztainondoek duten eraso berria, hau da *Dryocosmus kuriphilius* intsektua, gaztelaraz *avisquilla* deitzen zaio eta 2014an ikusi omen zuten lehenbiziko aldiz Galizian, Txinatik etorria. Hemen ere bizpahiru urte izanen dira agertu zenetik eta ez du indarririk galdu. Intsektu hau hostoa agertu orduko hor izaten da hazten, karitza gorri bat agertzen da hostoaren hasieran. Ondorioz, hostoa igartu egiten da haunditzera eta zuhaitza hiltzera ere ailegatzen da. Galizia, Gaztela edo Andaluzian, gaztainaren ekoizpena garrantzitsua den lekuetan alegia, aspaldixkotik ari dira zaintzen eta neurrien eskean. Hemen, ordean, gure gaztainondoak utzi samarrak daude eta ez du ematen deus haundirik egiten ari denik. Dena den, intsektu honi kontra egiteko modu bakarra, bertze intsektu bat da, baina Gobernuak ez du oraindik haren libratze masiboa utzi nahi. Mendeetan gure biziraupenerako hain beharrezkoa izan zena ere erortzen ari da.

bingoa egingen dute plazan eta 14:00etan pella jatea Malerreka Kantuz-ek lagunduta.

Arratsaldean, 16:00etatik 19:00etara Malerreko Mus Txapelketako finala jokatu dute Herriko Ostatuan eta 16:30ean Muxikoak izanen dira plazan. Beranduxeago, 17:00etatik 18:00etara, haurrak izanen dira protagonistak: txokolatada eta joak izanen dituzte eta buru-haundiak kalejiran ibiliko dira. Frontoian, berriz, aizkora apustua jokatu dute.

Ba al zenekien

Azkeneko astetan herriko argiterian aldaketa egin dela eta lehengo bonbilak kendu eta LED teknologia duen sistema berria paratu dutela. Gainera, hamar farola inguru berri ere paratu dira, lehen ez zeuden hainbat tokitan.

LEKUKOA SUNBILLAK HARTUKO DU

19:00etatik 21:00etara globoa izanen dute herriko landan eta 20:00etan zozketa eta mus txapelketako sari banaketa egingen dute. Ondotik, heldu den urtean Malerreko Eguna antolatzeke Sunbillari pasako diote ur-

roztarrek lekukoa. 20:30etik 22:00etara Oharkabe taldearekin dantzaldia izanen da plazan eta 22:00etan herri afaria frontoian. Herri afarirako txartelak Malerreko Mankomunitatean eskuratzen ahal dira (948 450746). Gaurerdiatik aitzinera Oharkabe ariko da plazan.

ESKUALDE OSOAN

Koloneko minbizia detektatzeko programa

TTIPI-TTAPA

Nafarroan kolonekoa da minbizirik ohikoena, emakumeetan heriotza gehien eragiten duen minbizia mota, eta bigarrena gizonetan. Baina garaiz antzematen bada, heriotza-ariskuak nabarmen egiten du beheiti. Horixe da Nafarroako Gobernuak martxan paratu duen Kolon eta Ondesteko Minbiziaren Detekzio Goiztiararen Programaren helburua. Berriki eskualdera ailegatu da. Nafarroan bizi diren 50 eta 69 urte bitarteko gizonetako eta emakumeetako asintomatiko guztiei zuzendua da. Martxoan Baztan aldeko 2.334 laguni bidali zioten programan parte hartzeko gonbitea eta horrekin batera, proba egiteko behar den materiala. Apirilaren 19tik maiatzaren 3ra Bortziritako 2.347 lagunei bidali zieten, eta maiatzaren 10etik 17ra Malerreko 1.522 laguni. Probahori norberak bere etxean egiten ahal du eta ondotik Osasun Etxean utzi. Herritar horiek bi urtetik behin test hau egiteko aukera izanen dute, kaketan ikusten ez den odolik ote den jakiteko, horrek tumore honen arriskuaz ohartarazten ahal baitu. Eta sendatzea errazagoa da garaiz detektatuta: goiz diagnostikatzen denean, %90a sendatzen da. Aurretiratu faseetan detektatuta, biziraupena %50era murrizten da.

OSPAKIZUNAK → IGANDEAK ETA BESTABERRI EGUNA

Lore eskaintzan hasiak dira Maiatzeko Aingeruak

Bittori Erasun
dute erakusle
herriko zazpi
neskek

Fermin ETXEKOLONEA

Aspaldiko ohiturari eutsiz, Maiatzeko Aingeruak aurren ere Amabirjinari loreak eskaintzen ari dira. Hilabete-ko igandeetan eta Bestaberri Egunean ariko dira. Bittori Erasun erakusle eta antolatzaile dutela, Ainara Arregi, Enara Santesteban, Sara Santesteban, Mirari Iribarren, Maialen Men-

diburu, Zaira Bendoiro eta Uxue Santesteban dira aingeruak.


Urrezko Ezteiak

Apirilaren 29an Urrezko Ezteiak ospatu zituzten Xapakoko Fermin Etxekolonea eta Joanamariko Mari Carmen Loiarrek. 50 urte ezkondurik bete zituzten egunean, meza abestua izan zuten, familiakoek bertsoak kantatu zizkieten eta aureskua ere dantzatu zieten. Beraien iloba eta bilobek joaldunen pasilloa ere egin zieten. Zorionak eta segi horrela!



UTZITAKO ARGAZKIAK

Joanamariko Mari Carmen eta Xapakoko Fermin 1967ko eta 2017ko apirilaren 29an.



ARGAZKIA: NAFARROA OINEZ

Mikele Etxekolonea eta Joxe Mari Indakoetxea duatloian

Mikele Etxekoloneak mendi bizikletan eta Joxe Mari Indakoetxeak lasterka bikote eginez parte hartu zuten apirilaren 29an Lesakako Nafarroa Oinezeko ekitaldien baitan antolatutako *Bikin Batin* duatloian. Gustura ibili ziren proban eta gero bazkarian ere giro ederra izan omen zuten.

Altzari rustikoak
Altzari modernoak
Gazte tokia
Outlet txokoa
Koltxoak
Sukaldeak

MUEBLES
TELLETXEA
ALTZARIAK

www.mueblestelletxea.com

Rosa Seminario, 12 | DONEZTEBE
Tel. 948 450 258-948 451 811



Orain sukaldeak ere!

12
URTE

VEGASAKITCHEN

ARKUPEAK

GIZARTEA → EUSKAL HERRIAN ETA KANPOAN

Ateraldiz ateraldi dabiltza elkarteko bazkideak

Apiril
hondarrean eta
maiatz hasieran
166 bazkide
izan dira
Portugalen

Fernando ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko 166 bazkide ibili dira Portugal aldean, bi taldetan banatuak: 101 bazkide apirilaren 18tik 25era izan ziren eta 65 lagun apirilaren 29tik maiatzaren 6ra. Ibilbide bera egin zuten bi taldeek, eta hainbat toki ezagutzeko aukera izan zuten. Adibidez, Europako gaztelurik enblematikoena den Sintra-ko gaztelua ikusi zuten: ederra Pena Jauregia. Estorilen dago Kasino ezaguna eta Infernuko Ahoa itsas labarrean. Lisboa ezagutzeko aukera ere ez zuten galdu. Ezin aipatu gabe utzi Fatima ere, aski toki garrantzitsua, bai bere historiagatik eta bai Aita Santuak laster egitekoa duen bisitagatik ere. Horrez gain, Portugalgo Venecia bezala ezaguna den Aveiroko kanaletan barna itsas-badaia bat ere egin zuten.

Coimbra aldean ere ibili ziren. Han dago Europako unibertsitaterik zaharrenetakoa eta han aritu zen eskolak ematen Azpilikueta nafarra.

Etixerako itzulera bi egunetan egin zuten. Valladoliden egin zuten geldialdia eta han bertako eraikinik garrantzitsuenak ikusi zituzten. Azken egunean, Burgo-ko karriketan barna ere ibili ziren, eta katedrala ere ikusi zuten.

Ateraldi gehiago

Maiatzaren 11n 71 bazkide Lourdesera joatekoak ziren urteroko hitzorduari hutsik egin gabe. Doneztebeko apezak ematekoa zuen meza entzun ondotik, bazkaldu eta etxerako bidea hartu aurretik gaitxo-erprozesioan parte hartzekoak ziren.

Hilaren 13an, berriz, Benidormeko joatekoak ziren 41 bazkide, hamalau opor-egun pasatzera. Poseidon eta Fenicia hoteletan egitekoa zuten egonaldia.

Baina urteko lehenengo sei hilekoa bukatu aurretik bidaia gehiago ere egingen dituzte bazkideek. Ekainaren 8an Bardeetara joanen dira, beti ere, jendea apuntatzen bada. Cas-tejonen gosaldia eta gidaren laguntzarekin Bardeetan barna ibiltzea da asmoa. 50 bat bazkide izena ematen badute, bazkalondoren bodega bat ikustera joanen dira eta ehun bat bazkide inguratzen badira, dantzaldia izanen dute.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko bazkideak Portugalera egindako bidaian.

Ekainaren 22an, berriz, San Juan Baleontzia ikustera joanen dira Pasai Donibanera. Unescoren laguntzarekin, XVI. mendean hondoratu zen baleontziaren berdina egiten ari dira han. Baleontzia egiten ari diren tokira txalupan joanen dira Trintxerpetik, eta bisitaren ondotik, Pasai Donibanera joanen dira Nikolasa jatetxean bazkaltzeko.

Uztailaren 13an Bizkaiko kostara egingen du-

te ateraldia eta Ondarroa, Lekeitio, Elantxobe eta Bermeo ezagutuko dituzte. Eta uztailaren 26an Aralarko Santutegira joan eta Gorraiz-en bazkalduko dute.

Boletin berria

Orain arteko jarduerak, ikastaroak, bidaia eta mendi irteerak bildu eta bigarren sei hilekoan egingen diren bidaien berri emanen duen 16. boletina prestatzen hasiak dira. Bidaien artean,

Gaztelara egingen den sei eguneko bidaia aipatzekoa da: Salamanca, Avila eta Segoviara joanen dira. Horrez gain, Gipuzkoako Getariara ere joanen dira moda munduan XX. mendeko pertsonaia garrantzitsua izan zen Balentziagaren museoa ikustera. Azken urteetan, azaroan Kanariar Uharteetara antolatutako bidaia eta aurten Lanzarotera joanen dira.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

283 lagun Dantxarineko II. Euskal Kanta Egunean

Arrakastatsua izan zen joan den apirilaren 27an Dantxarinean egindako II. Euskal Kanta Eguna, 283 lagun elkartu baitziren. Benta berriak ezagutzeko ere probestu zuten bidaia eta 13:00 aldera hasi ziren Otxola jatetxean bazkaltzen. Bakoitzak bere zenbakia zuenez, ez zen arazorik sortu bakoitzak bere tokia hartzeko. Kantuen liburuxka banatu ondotik, Joxe Angelen laguntzarekin ordu bat eta erdiz aritu ziren kantari. Ondotik Guateke taldeak bere saioa eskaini zuen. Sei musikaritik bost jubilatutakoak dira, eta lehenengo eta oraingo kantuekin dantzan jarri zuten jendea. Atsedendialdiaren ondotik berriz kantuan aritu ziren, eta musikariaren saioaren eta dantzaldiarekin ilunabarrera arte luzatu zen besta.

MERKATARITZA → EGUNERO 30 EURO ETA ASTERO 200 EURO ZOZKETATZEN DITU

Oparia jasotzeko aukera ematen du berriz ere Denok Bat Federazioak



Udaberriko promozio kanpaina maiatzaren 2tik 31ra egiten ari dira

TTIPI-TTAPA

Baztan, Bera, Doneztebe eta Lesakako komertziantek biltzen dituen Denok Bat Federazioak udaberriko promozio berri bat egiten ari da maiatzaren 2tik 31ra. Denok Bat Giltzaria txartelarekin erosketak ordaintzen dituztenen artean egunero 30 euroko opari txartela zozketatuko dute eta astero 200 euroko opari txartela. Denok Bat Giltzaria eskaintzen duten edozein saltokitan erabiltzen ahal dira opari txartel hauek, ekainaren 5a bitarte.

Eguneroko zozketa goizean lehenengo orduan egiten da. Zozketa honetan, aurreko egunean Denok Bat Giltzariarekin eragiketa bat egin duten bezero guztiek parte hartuko dute. Astero zozketa, berriz, maiatzeko astelehen goizetako lehen orduan egiten ari dira. Zozketa honetan, aitzineko astean Giltzariarekin eragiketa bat egin duten bezero guztiek parte hartuko dute.

Irabazleak, telefonoz errandako saltokira joan beharko du eta opari txartela kanjeatzeko kode bat emanen zaio.

**TTIPI
TXARTELA
MALERREKA**

Erakutsi eta probextu aukerak!

Amaya Picabea %5 DESKONTUA kosmetikan %5 DESKONTUA oparietan 50€tik gora. Promozioetan ezik Amezti DONEZTEBE T. 948 45 01 63	ARRATE E/TETIKA ZENTROA %10 DESKONTUA Skeyndor Eternel kremetan Eliza, 18 behea 2 DONEZTEBE T. 948 45 02 86	DONEZTEBEKO UDAL KIROLDEGIA %10 DESKONTUA igerilekuko udako abonoan Inato Irazoki DONEZTEBE T. 619 10 73 03	Alustiza %10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Nagusia, 12 DONEZTEBE T. 948 45 01 13
Juan J. PICABEA %10 DESKONTUA arropa guztietan Amezti DONEZTEBE T. 948 45 16 70	Kimetz Bolardonda %5 DESKONTUA kosmetikan, opari artikuluetan eta haur-eramaletan T. 948 45 14 73 DONEZTEBE info@kimetzelbardonda.com	kukuka %10 DESKONTUA pijama eta barruko arropetan Zazpigurutz, 1 DONEZTEBE T. 948 45 02 52	lorea %5 DESKONTUA elikatzeko kontzienteko kontsultetan: elikatzeko nutrizional, energetiko eta emozionala T. 948 45 14 73 DONEZTEBE lorea@kimetzelbardonda.com
Plaisir Mode %5 DESKONTUA 50€ arteko erosketetan %10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan Promozioetan ezik Nagusia, 4 DONEZTEBE T. 948 45 07 27	MAJE ROKA %5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Nagusia, 1 DONEZTEBE T. 948 45 15 71	Mari Cruz %10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Parrokia, 11 DONEZTEBE T. 948 45 01 12	Miguelena %10 DESKONTUA erloju eta bitxietan 30€tik gorako erosketetan Amezti, 1 DONEZTEBE T. 948 45 09 25
Nekazarri Zerbitzuak %5 DESKONTUA zakur eta katuen pentsuak Mourges, 20 Nabe 1 DONEZTEBE T. 948 45 18 45	CASA ESTIZ %10 DESKONTUA oinetakoetan Parrokia, 17 DONEZTEBE T. 948 45 02 89	TINTORERIA JAIONE %10 DESKONTUA 12€tik gorako erosketetan Elizagibela, 7 DONEZTEBE T. 948 45 05 21	ttipi-ttapa %10 DESKONTUA eskeletan Koskontako bidea, 7-1. LESAKA T. 948 63 54 58

EZKURRA

GIZARTEA → LANAK AURRERATUAK DAUDE

Azken lanen faltan, ekainerako ireki nahi dute ludoteka

Azken lanak egitea baino ez da falta

Fernando ETXEBERRIA

Laster izanen dugu prest ludoteka, lanak nahiko aurreratuak baitaude. Azken ukituak ematea baino ez da falta. Zurgin, margo eta igeltsero lanak bukatzen dituztenean, lokalera materiala ekartzea bakarrik faltako da eta behin hori eginda, inaugurazioa ekainean egitea espero da.

Malerreka kantuz herria girotzen

Maiatzaren 6ko eguerdian talde ederra elkartu zen herrian, Malerreka Kantuz-ek egindako hitzorduari hutsik egin gabe. Musika lagun, euskal kanta zaharrrak kantari aritu ziren herrian barna, eta bi orduko saioa egin ondoren, Barranka Ostatuan hartu zuten atsedena. Pintxo batzuk janda indarrak hartu, eta 15:30 aldera arte segitu zuten kantari. Indartzen ari den ohitura da, gero eta jen-



UTZITAKO ARGAZKIA

Malerreka Kantuz goiko argazkian eta Aiora eta Oierren lehen jaunartzea behean.

de gehiagok parte hartzen baitu.

Aiora eta Oierren lehen jaunartzea

Malerrekako beste herrietan bezala, gurean ere maiatzaren 7an egin ziren lehen jaunartzeak. Aldi honetan, Aiora Andiaarena eta Oier Telletxearen txanda izan zen. Tiburcio Sanzberro apaizak zuzendutako meza eguerdian egin zen, eta eguneko bi protagonisten familiakoak ez ezik, haurrak ere hurbildu ziren.





**LEIHOAK / KONTRALEIHOAK
SARRERAKO ATEAK / ITXITURAK
PERTSIANAK / MOSKITERAK**

Ordoki ind. ARIZKUN / T. 948 453 259 / F. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com / www.betikopvc.com





Mundua ikusi, dirua aurreztu eta natura zaintzeko bitartekoak





BETIKOn LEIHOAK NEURTU, FABRIKATU eta INSTALATZEN DITUGU

20

URTE



* 70 mm

PVC-zko sistema bakarra* Passive house ziurtagiriarekin BETIKOn daukagu.

6 kamara 82 mm-ko profila Merkatuko isolamendurik hoberena.

A+++




URDAZUBIKO BESTAK

MAIATZAREN 24TİK ZĖRA

EGITARAU



MAIATZAK 21, IGANDEA

10:00 Kontrabandisten lasterketa.

MAIATZAK 24, ASTEAZKENA

20:00 Txupinazoa eta ezkila-jotzea herriko trikitilariekin eta aperitifa.
16:00 Herri afaria plazan Hauspolariek alaiturik.



MAIATZAK 25, ORTZEGUNA

11:00 Meza nagusia. **12:00** Ezkila-jotzea eta aperitifa txistulari eta dantzariekin. **16:30** Haurrendako jokoak **19:00** Holako taldearen kontzertua. **21:30** Paella jatea Holako taldeak alaiturik eta ondotik dantzaldia goizaldera arte.

MAIATZAK 26, ORTZIRALEA

12:00 Gorriti bere animaliekin. **14:00** Ugarana emakume elkarteko bazkaria. **16:00** Haurrendako zirku tailerra Zurrumuru antzerki taldearen eskutik, maki-llaje eta globoflexia ere bai. **19:00** Txokolatada plazan eta ondotik Zirkoloretsua ikuskizuna. **23:00** Kontzertuak Sofokaos, Frikun eta Estu&Larri taldeen eskutik.

MAIATZAK 27, LARUNBATA

14:30 Zikiro jatea Irungo Atxegiña txarangak alaituta eta ondotik, karrika-buelta herrian barna. **16:30** Haurrendako jokoak **21:00** Xingar jatea eta Txamukos mariatxiek dantzaldia. **00:00** Gabezin taldearekin dantzaldia.

MAIATZAK 28, IGANDEA

11:00 Nafarroako Txirindulari Itzuliaren etapa erregi-naren hasiera. **15:30** Ahate jokoa eta herriko zaldunen ikuskizuna. **17:30** Kantaldia Bankako Menditarrak taldearen eskutik. **19:15** Zozketa. **19:30** Pintxoak.



ETXELEKUA *ongi pasa bestak!*
ARDI LATXAREN GASNA
7. AK MUNDUAN
SALMENTA ZUZENA EGUNERO
Zugarramurako karretera
948 599 169 - Urdazubi
www.etxelekua.com

Bazteretxea
JANARI-DENDA **benta**
Tel.: 948 599048
Ongi pasa bestak!! **URDAZUBI**

IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN
HORMIGOI ESTANPATUA
ZOLADURAK
KURRINKA
CONSTRUCCIONES, S.L.
Barrio Leorlas, s/n - 31711 URDAX (Navarra)
Tel. (0034)609 878 162 (Antonio) - e mail: antonio@kurrinka.com
Tel. (0034)600 438 438 (Angel) - e mail: kurrinka@kurrinka.com
www.kurrinka.com



ONGI PASA BESTAK!

LANDA
Haurtzaindegia · Guarderia · Garderie
Juan Aguirre, 1 · 31711 URDAZUBI - URDAX
(0034) 693 764 949
info.landa03@gmail.com



ongi pasa bestak!

JOXEMI BENGOTXEA S.L.

TEILATUAK | FATXADAK | ESKAILERAK
EGURREZKO ESTRUKTURAK
LEIHOAK | ATEAK | ALTZARIAK | ZOLAK

ESKABAZIOAK | ESKOILERAK
LUR MUGIMENDUAK | HONDAKINAK

HARROBI MATERIALAK HORMIGOIAK

T. 660 501 584 | T. 948 592 111
Etxelekua | URDAZUBI (Na)
joxemibengotxea@yahoo.es | canterasaskape@gmail.com



URDAZUBIKO BESTAK

MAIATZAREN 24TIK ZORRA



Arantxa ETXEBERRIA BENGOTXEA
Urdazubiko gaztea

«Mahai-inguruan biltzen garenean giro paregabea sortzen da»

Bestaz gozatu ahal izateko jakina da aitzinetik norbaitek lan egin behar izaten duela eta zeregin horretan, buru-belarri dabil Arantxa azken hilabeteetan: «ardurak borts lagunaren artean banatzen ditugu eta denen artean musikariak aurkitu, ekitaldi guztiak antolatu, ordutegiak zehaztu... bestak aitzinerat ateratzeko egin beharrekoa egiten dugu». Ez dira bakarrik aritzen «gazteen eta herritar guztien laguntza izaten dugu normalean. Eskerrak lantalde ona dugun!».

GOGOA ETA EUFORIA

Bestak ailegatzean ere lanak ez du etenik izanen, «dena ongi ateratzen dela bermatu beharko da eta zerbait gertatuz gero arduradun gisara agertu». Edozein moduz, bestarako beti ateratzen dela denbora dio «lagunek bestazalea naizela erraten dute eta egia izanen da!». Horregatik, bestak goizago edo beranduago izan, «beti gogoz» hartzen ditu, «herriko bestak baitira». Gainera, bere ustez nabari da udako lehenbiziko bestak direla «gogoak eta euforia lehenengo egunetik nabaritzen dira eta beharbada horrek egiten ditu Urdazubiko bestak hain berezi».

«Paelladan herriko gehienak biltzen gara normalean eta hori ere polita da; haur zein zaharrago, denak elkarrekin egoten baikara».

Iruñean ari da ikasten eta egun seinalatu hauek ailegatzean, «herrian ahalik eta gehien» egoten saiatzen da. Burutan du dagoeneko egunez eguneko agenda: «asteazkenean txupinazotik hasi eta herri afarira arte ospatzen dugu besten hasiera. Egun honetan goizik erretiratu eta biharamunean meza nagusi ondoko aperitifako pintxoak egitera joaten naiz. Gero lana bukatu ondotik, aldatu

eta berriro herrira jausten naiz paella prestatzen laguntzeko. Paelladan besta pixka bat egin eta ortziralean berriro ere lanera bueltatzen naiz. Egun honetan ere, lana akitu ondotik herrira jausten naiz. Larunbatean goizean herrira jautsi eta zikiroko gauzak prestatzen hasten gara gero besta egiteko. Gaueko xingar-jatean ere laguntzen dut eta gero gauean gorputzak iraun artean besta egiten dut. Igandean, azken egunean, lana egin ondotik herrira jautsi eta beste amaiera on bat ematen diet».

EGUNIK BEREZIENA

Egun bakoitzak bere xarma duen arren, ortzeguna da beretzat bereziarena: «egun handia da eta herritarrek beti bereziki bizi izan dugu. Paelladan herriko gehienak biltzen gara normalean eta hori ere polita da; haur zein zaharrago denak elkarrekin egoten baikara». Egitaraua osatzeko orduan ere kontuan izaten dute denendako moduko bestak izatea «herriko gazteek etortzen den orok ongi pasatzeko lan egiten dugu eta elkartasun horrek sortzen duen giroa paregabea da!». Urtero berrikuntzaren bat sartzeko ahalegina ere egiten dute: «aurten, batzuk aipatzeko, ortziralean haurrentzat zirku tailerra izanen dugu eta gero zirku ikuskizuna. Igandean ere baditugu berrikuntzak, Bankako Menditarrak taldearen kantaldia adibidez. Kantu xaharrek beti izan dute lekua gure bestetan eta aurten inoiz baino gehiago izanen dute!».

Bukatzeko bestarako gonbidapena ere zabaldu du, «urdazubiar guztiei besta onak opa dizkiet eta inguruko herrietatik ere hurbil daitezela. Aupa Urdazubiko bestak!». Arantxa bertan izanen da lanean eta bestan, ongi pasatzeko ez du eta aunitz behar «lagungiro ona eta musika pixka batekin nahikoa dut! Eguna goizaldean hasi eta ordu tikitian akitzeko».



Ongi Pasa Bestak!



KUPELA SAGARDOTEGIA



Kupela
Cidrerie



MIKALA OSTATUA & PINTXOAK



MIKALA
BAR & SNACK



LUGARANA JATETXEA



LUGARANA
Restaurant



NUBA DANTZALEKUA



OUVERT 7J/7*

* Sauf 1^{er} Janvier et 25 Décembre

► **LANDIBAR CENTER:**

Barrio Dantxarinea s/n, 31711 URDAX Ext: 662 | ☎ 34 902 210 800 (es) | ☎ 0820 562 267 (fr)

WWW.VENTA-PEIO.COM | ☎ 34 902 210 800 (es) | ☎ 0820 562 267 (fr)
Arnegi | Dantxarinea | Behobia | Landibar | Agus Benta | Ibardin

BESTA
ZORIONTSUAK
OPA
DIZKIZUEGU!

BIOK

DANTXARINEA • VALCARLOS • IBARDIN

www.ventabiok.com

Josenea Gasolindegia

Urdax - Urdazubi Dantxarinea
www.urdax-dantxarinea.com

www.josenea.es

Faustino ETXABE tailerrak

Autoen konponketa

BESTA ON BATZUK PASA !!

☎ 948 599 038 • ZUGARRAMURDI

IRIGOIENEA

ongi pasa bestak!!

☎ 948 599 267 • URDAZUBI

www.irigoienea.com • reservas@irigoienea.com

indianoaabaita
ostatua

BAZKARIAK
AFARIAK
BOKATAK...

948 599 021
URDAZUBI

barostatuaapartamentosrurales

ARMUA JATETXEA

URDAZUBI • Alkerdi auzoa, Km. 3
Teléfono: 948599131 • Fax: 948599131

ONGI PASA
BESTAK!!

**CONSTRUCCIONES
A. BENGOTXEA**

- Etxebizitzak egin
- Zahar-berritze lanak
- Saneamentuak
- Obra publikoak
- Zeramika denda

ONGI PASA BESTAKI!

URDAZUBI

Tel. 948 599 166 • www.carrelagesbengotxea.com

URDAZUBIKO BESTAK

MAIATZAREN 24TIK 2017A



Patxi BENGOTXEA
Urdazubiarra

«Urtero ondoko urteko bestak ailegatzeko desiotan egoten ginen»

Urdazubiko Amutxekobordan sortu zen Patxi eta bertan bizi izan zen 30 urtez, Elizondora bizitzera joan zen arte. Gaztaroko oroitzapenek lotzen dute herrira eta egun bestetara egun bakarrean joaten den arren, «bezperan bazkaltzera joaten naiz» badu zer kontatua garai bateko besten inguruan.

Beraiek izan ziren erdi hilik zeuden bestak berpiztea lortu zutenak. Horretarako sekretua elkarlana eta ilusioa izan ziren bere ustez: «gogo handiarekin antolatzea eta herriaren laguntza osoa izatea izan zen bestak berpizteko gakoa. Horretaz gain, ikuskizun aunitz ekartzen ziren: dantzariak, Hossegor-eko zankoak... jendea hauek ikustera etortzen zen».

LANA ETA DIBERTSIOA

Bestetan lana eta dibertsioa uztartzen zituen «bestak antolatzen, egunero lanean eta bestan ere ibiltzen ginen». Eta denetarik egin behar izaten zuten arren, «urtero ondoko urtea ailegatzeko desiotan egoten ginen». Ez zuten aunitzik eskatzen: «denbora onak laguntzea, ez zegoelako lehorrik plazan». Baina ez pentsa euria oztipoa izaten zenik ere «euri aunitz egiten zuelarik Karreterora pasatzen genuen arratsaldetako dantzaldia!».

Antolakuntza lanetan, «primeran» moldatzen ziren «nahiz eta ni izan arduradun nagusia, herri guziak laguntzen zuen, batez ere Karreteroko Patxi eta Milagros». Bestarako dirua berriz, «ahal zen bezala» lortzen zuten: «zozketa, zikiroa, gazteen kuotak eta ikuskizunak zirelarik

«Bestarako dirua ahal zen bezala lortzen genuen: zozketak, zikiroa, gazteen kuotak eta ikuskizunak zirelarik ere zerbait biltzen zen boneta pasatuz».

ere zerbait biltzen zen boneta pasatuz». Baina, kontuak noizbait ez omen zitzaizkien oso ongi atera, «urte batez erran ziguten zikiro erretzera etorriko zirela urriarik afari baten aldera. Guri iruditu zitzaigun hori merke zela baina jatetxeak kontua pasatu zigutelarik, lau afariren kontua, bi egunetako orkestraren saria baino gehiago izan zen».

«Gogo handiarekin antolatzea eta herriaren laguntza osoa izatea izan zen bestak berpizteko gakoa. Horretaz gain, ikuskizun aunitz ekartzen ziren».

GARAI BATEKO ETA ORAINGOAK

Gaur egungo beste begira jarrita dio gazteak garai batekoak baino gautxoriagoak direla «besta bizitzeko modua berdintsua da baina orain gaur gehiago baliatzen dute. Guk arratsalde egiten genuen besta, gaur gutxiago». Bestan, orain ere, «umore ona» izaten dela nagusi iruditzen zaio «baina dantzan aritzeko ohitura, ez da gure denboretan bezalakoa». Berak gauak orain «lotarako» baliatzen dituen, ez du sobera ezagutzen bertako giroa baina egunez ibiltzen denetan jendea garai batean «gogotsuago» nabari zuela dio: «orain jendeak urte guztian badu besta egiteko manera, ez da gure denboran bezala». Orain bestetara egun bakarrean etortzen den arren, garai batean egun guztiak bizi zituen eta aipatu duenez, igandea zen egunik bereziarena «egun horretan antolatzen zen sokatira jaialdia. Amairuko taldea Sararen aurka aritzen zen. Beraien artean pike handia izaten zuten. Gainera hondarreko eguna izatearekin gero besta egiten genuen denok». Gaztetako kontuak nolako ilusioarekin aipatzen dituen ikusita, nork daki, bestarako grina berpiztu eta agian berriro ere bestan hasiko da...



ZUBIANDO
OSTATUA
AUTOZERBITZUA
OROIGARRIAK
Ongi pasa bestak!
(0034) 948 599 041
DANTXARINEA



ttipi-ttapa
FACEBOOK eta TWITTERREN
EGIN ZAITEZ GURE LAGUN



VENTA ARRECHEA
TABACOS
BUREAU DE TABAC

ZIGARRO PURUEN CAVA
ongi pasa bestak!



ARRETXE
ESTANKOA



DANTXARINEA (Urdazubi)
T. 948 599 018
F. 948 599 015
estancoarrechea@yahoo.es



ZORIONAK
URDAZUBI!

Axular
DANTXARINEA

www.mikelenborda.com



Mikelen Borda

Benta - Jatetxea

Dantexina 37112 (Nafarroa) - Tel. 00 34 948 544045

ongi pasa bestak!

Pinturas



Iñaki Alzuyet margoak

Tel: (0034) 659 862 417
31711 URDAZUBI (Na)

ONGI PASA BESTAK!

FATXADAK, BARNEALDEAK eta PLADURRA

pinturasalzuyet@yahoo.es

ongi pasa bestak!

Patxi Jaurena

**ZURGIN LANAK OROKORREAN
MENUISIER - CHARPENTIER**

628 550 490 - URDAZUBI(Na)
ursunea@gmail.com

SANTIAGO VILLARES S.L.

ongi pasa bestak!



**LUZERNA-PENTSU ETA FORRAJEAREN
SALMENTA ETA ESPORTAZIOA
LASTOA
LUZERNA**

Móvil (Santiago Villares): 609 415 777
T. (0034) 948 59 91 34
Fax. 948 59 91 56

info@santiovillares.com
www.santiovillares.com

**Miren SANSIÑENA****Urdazubiko gaztea**

«Barraren gibealeko aldetik denetarik ikusteko aukera izaten da»

Gurasoen ofizioari segida emateko erabakia hartu zuen duela urte batzuk Mirenek eta geroztik, Indianoa baita ostatuko jabea da: «gurasok erretiroa hartuta, ostatua hetsiko zen bertzenaz. Pena ematen zidan katea haustek, ostatuarekin nire birraitatxi eta birramatxi hasiak ziren eta». Ez zen beretzat lanbide berria, «gaztetatik gurasoei laguntzen aritu izan naiz eta». Urte hauetan guztietan «tabernako barraren gibealeko aldetik denetarik ikusteko aukera» izan duela ere gaineratu du «kontatu litezkeenak batzuk eta isilean gorde beharrekoak bertzeak».

«Gurasok erretiroa hartuta, ostatua hetsiko zen bertzenaz. Pena ematen zidan katea haustek, ostatuarekin nire birraitatxi eta birramatxi hasiak ziren eta».

Herriko bestetan ausarki lan egin beharra izaten duenez, ez du nahi adina gozatzeko aukerarik izaten: «lehen besta pixka bat egiten ere saiatzen nintzen baina orain gorputzak ez dit segitzen. Besta eta lana, gehiegi izaten da...». Edozein moduz, lanean egonik ere, egun bereziak izaten direla gaineratu du: «ongi pasatzen da, umore ona kutsatzen baita».

MUSIKARIEN AFARIA

Plazako musika zuzenean aditzeko modurik izaten ez duen arren, musikariaren bisita izaten dute ostatuan, bertan egiten baitute musikariaren afaria. Urtetan mantendu izan duten ohitura da eta bertatik igaro diren musika-talde guztiekin «tratu ona» izan dutela azaldu du «normalean jende jatorra izaten da». Tartean izan dituzte, lagun bihurtu diren bisitariak ere: «garai batean egun guztietan talde bera izaten zen, lo ere bertan egiten zuten eta

nire gurasoei harreman berezia izaten zuten». Musikariaren eta ostatuaren arteko lotura hain zen estua, bitxikeriaren bat ere gertatu zitzaioela Mirenen aitari: «Egan taldearekin batera aita kuartelera eramane omen zuten Guardia Zibilek gustuko ez zuten abesti bat kantatu zutelako».

«GOGO BETEZ»

Urdazubiko bestek data aldakorra dute: goizago batzuetan, beranduago besteetan... baina «berdin hartzen dira, gogo betez!». Jendea ere gogotsu izaten dela uste du: «batez ere denbora ona egiten badu». Mirenek bestetako egun guztiak ditu gustuko: «denek zerbait berezia dute, baina bat hautatzekotan larunbata erranen nuke, giro ederra izaten delako egun guztian». Eta eguneko eta gaueko giroaren artean, egunekoa nahiago du: «jendea lasaiago ibiltzen delako».

«Egan taldearekin batera aita kuartelera eramane omen zuten Guardia Zibilek, hauek gustuko ez zuten abesti bat kantatu zutelako».

PLAZAKO OTORDUAK

Urdazubiko bestetako bereizgarria «plazako otorduak» direla dio zalanztarik gabe eta zerrenda luzea aipatu du «bezerako afaria, Salbatore eguneko meza ondoko aperitifa, paella-jana, zikiroa, igandean pintxoak...». Eta guztietan giro «aski ona» izaten dela nabarmendu du. Egitarauan bada Mirenen familiarekin lotura duen beste berezitasun bat ere haurren egunean banatzen den txokolate beroa. Baina argi dio: «hori amaren meritua da, sekretua berak du!». Ea denborarekin amak sekretua kontatu eta ohitura horri ere Mirenek luzaroan segida ematen dion.

JATETXEA - ERRETEGIA

MONTXO

OSTATUA • TABAKO-DENDA

MAIATZAK 24, ASTEAZKENA,
BESTA BEZPERAKO AFARIA
MENU BEREZIA

Baratzuri zopa

Xuri ta beltz

Idi-txuletoia

Postrea: whisky-tarta

Ardoa, sagardoa, cava, kafea eta kubata.

Prezioa: **35 euro**

Txartelak jatetxean bertan

eros daitezke maiatzaren 21a
baino lehen.



TALOAK EGUNERO

ASTEAZKENETIK IGANDERA
GAUEZ BESTA GIROA
ETA DISKO MUSIKA



ONGI PASA BESTAK!

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK • PINTXOAK
MENUAK ENKARGUZ • ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN BORDA • URDAZUBI NAFARROA (Dantxarineatik 2km.tara)

T. 948 599 039 montxoblanco@gmail.com

BAZTAN MOTOR S.L.
TXAPA ETA PINTURA | MEKANIKA | ELEKTRIZITATEA



ONGI PASA BESTAK!
Zaldubia Industrialdea 31730 **IRURITA**
T. 948 45 21 19 • 948 58 06 55



MIGUELENE
OBRAS Y CONSTRUCCIONES · ERAIKUNTZAK

Ongi pasa bestak!

IRURITA | T. 677 225 112

sukaDeco
estudio cocina y baño



www.sukaldecoco.com
IRURITA 948 580 666

Arotxa



ONGI PASA BESTAK!

Aroztegia 1890az geroztik

*Moskitera batekin euli
eta moskitoetaz babestu
Eguzkiaz babestu toldo batekin*

M 650 53 20 73 • T. 948 58 14 18 • IRURITA
arotxa.taller@gmail.com
www.arotxataller.com

IRURITAKO BESTAK

MAIATZAREN 24TIK 20RA



Usoa URRUTIA FRIAS
Iruritako gaztea

«Lehendabiziko
bestak direnez
beti bada
aparteko animoa»

Agenda bete-betea izan du azken hila-beteetan Usoak: «taldeak bilatzen eta egitaraua ixten ibili gara eta orain etxetik ibiltzea tokatzen zait, egitaraua banatzea, kartelak paratzea... besten berri ematea, alegia».

Maiatzaren 24an, kirioak dantzan, gogotsu egonen da suziria noiz lehertuko zain: «lehenbiziko egunean txupinazora arte nerbioztua egoten naiz. Baina, txupina lehertu eta atorra janztean nerbioek emozioari egiten diete lekua». Hortik aitzinera, badaki etxean ez duela ordu aunitzik pasako: «ortzeguna familiarekin pasatzen dut, ortziralea eta larunbata lagunekin eta bertze gazteekin: elkarrekin bazkaldu eta afaldu, dantzan ibili, pilota ikusi, tortilla lehiaketan parte hartu... Eta azken eguna ditudan indarren araberakoa izaten da».

Konpainia eta plana desberdina da baina guztietan helburua bat eta bakarra:

**«Ortziralea ikaragarri
gustatzen zait gazte guztiak
Baigorriko merenderora
joaten garelako bertan
bazkaltzera eta eguna
pasatzera».**

«ahalik eta gehien disfrutatzen saiatzen naiz, bai egunez eta baita gauzez ere». Edozein moduz, nahiago du gaueko giroa: «musika eta taldeak izaten dira, bertze herrietako lagunekin elkartzen naiz...».

BESTEN BEREIZGARRIA

Iruritako besten bereizgarria zein den ere galdetu diogu eta irribarrez erantzun digu: «Elizondokoei galdetuz gero erranen lukete urtero euria egiten duela, baina haiek ere badute zer isildu». Bere ustez, «dantzak izaten dira derrigor egon behar duen ekitaldia. Horrek ez du hutsik egiten. Giro aparta izaten da, gurasoak, haurrak dantzaz jantzita, familiak... Guztiak elkartzen gara herriko plazan gaztetxoek ikustera». Horiekin batera, egitarauan berrikuntzak gehitzen saiatzen dira: «aurten erraldoiak izanen ditugu eta haurrekin eta gaiteroekin batera herrian barrena ibiliko dira».

Bukatzeke gonbidapena ere luzatu du «bestetara etortzera animatu nahi dut jendea, giro aparta izaten delako egun guztietan eta arras ongi pasatuko dutelako» eta gogorazi du «ez dugula inolako erasorik onartuko. Guztiondako errespetuzko bestak nahi ditugulako».

GARAJEKO ATEAK



TOLDOAK - ESTOREAK - MOSKITERAK





EGITARAU

MAIATZAK 24, ASTEAZKENA

12:00 Txupinazoa. Karrika-buelta Baztango gaitero eta erraldoiekin. **16:00** Haurrendako herri-kirolak eta **ondoren**, trinketeko pilota txapelketako haurren finalurreko partidak. **18:00** Merendua eta japoniar bonbak. **18:30-20:30** Dantzaldia plazan Salaberri akordeoilariarekin. **20:00** Ezkila-jotzea. **21:00** Baztan zopak. **01:00-04:00** Dantzaldia karpan Salaberri akordeoilariarekin.



MAIATZAK 25, ORTZEKUNA

10:00 Dianak. **11:00** Meza nagusia. **12:00** Herriko dantzarien erakustaldia. **13:00** Luntx herrikoia. **17:30** Trinketeko IV. Esku-pilota txapelketako haurren finalak. **18:15** Trinketeko X. Esku-pilota txapelketako finalak. **19:00** Karrika-buelta erraldoiekin. **20:00-21:30** Dantzaldia Gabezin taldearekin. **21:30** Mutil dantzak **00:30-04:30** Dantzaldia Gabezin taldearekin.

MAIATZAK 26, ORTIZIRALEA

10:00 Dianak baserrietan. **11:00** Haurrendako jokoak Errebote plazan. **13:30** Haurrendako bazkaria karpan. **14:00** Jubilatuen bazkaria Olari jatetxean. Gazte bazkaria Baigorriko merenderoan. **15:00** Haurrendako jokoak. **18:00** Txokolata-tada. **18:30** Karrika-buelta erraldoiekin. **20:30** Dantzaldia Laiotz taldearekin. **21:30** Mutil dantzak. **23:00** Burrumba elektrotxaranga eta ondotik Tirri&Tery karpan. **01:00-04:00** Dantzaldia Laiotz taldearekin.

MAIATZAK 27, LARUNBATA

10:00 Dianak txarangarekin. **11:00** Baztango musika eskolaren kontzertua. **12:00** Kalejira erraldoiekin. **14:00** Zikiri-jatea txarangarekin. **18:00** Karrika-buelta txarangarekin. **20:00** Dantzaldia Ezinze taldearekin. **21:30** Mutil dantzak. **01:00-05:00** Gaupasa Trikidantz taldearekin.



MAIATZAK 28, IGANDEA

10:00 X. Haur-krosa. **11:30** IX. Herri-lasterketa. **12:30** Sari banaketa eta luntxa parte-hartzaileendako. **18:00-19:30** Dantzaldia Tenampas taldearekin. **20:00** Patata tortilla lehiaketa. **22:00** Herri-afaria. Ondotik besten akabaila.



J.P. AGERREBERE

Karrozeria • Aroztegi Metalikoa



Zaldubi ind. IRURITA • Tel.: 948 580 538 | 630 184 847

ongi pasa
bestaki!

Carpintería

Lizasoain, S.L.

Erreformak orokorrean • Leihoak • Ateak • Eskailerak • Armairuak
948452077 • Zaldubia ind. • 31730 IRURITA

OLARI
jatetxea



jatetxea aire
egokituarekin hornitua
ongi pasa bestaki!

Tel. 948 452 254 • IRURITA
rteolari@hotmail.es
www.restauranteolari.es



IRURITA
Dukesa plaza
T 948580059
T 948452021
(Obradorea)

ELIZONDO
Santiago kalea 19
T 948452393

www.arkupagozotegia.com



Construcciones

URBALLO, S.I.

hargin lanak orokorrean

Eskatu
aurrekontua
konpromisorik
gabe!



- 30 urteko esperientzia
- Eraikuntza berriak eta zaharberritzeak
- Teiltuetan esperientzia handiko profesionalak
- Obra txikiak nahiz handiak:
- Etxebizitzak, nabeak, zangak, ur lanak, ukuiluak...

Luis Gaztelu, 6 | 31730 IRURITA | T. 610 367 000 / 610 367 009
c.urballo@hotmail.com

ARESO

DEIALDIA → LAU HILABETEZ ARITZEKO

Herri-lanetarako udarako bi lagun kontratatuko ditu Udalak

Bi langiletako bat emakumea izatea eskatuko dute

Juana Mari SAIZAR

Udalak uda sasoiari urtero kontratatu ohi ditu herri-lanetarako langileak. Aurten bi lagun hartuko dituzte, lau hilabetez eta %75eko lanaldia bete beharko dute. Emakumezko zein gizonezkoen lan aukera berdina emateko asmoz, bi langiletako bat emakumezkoa izatea eskatuko dute aurten. Lanpostura aurkezteko bi baldintza bete beharko dira: aresoarra izatea eta INEMen izena emanda egotea. Maiatzean irekiko dute deialdia eta data zehatza eta informazio gehiago lortu nahi dutenek Udallexera dei dezakete eta bertan galdetu.



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

Pesta borobila, erabakitzeko eskubidearen alde

Zeruan ikus zitekeen eguzkia bezain borobila atera zen Gure Esku Dagok antolatutako pesta. Maiatzaren 7rako egun osoko egitaraua zuten prest: mendi itzuliarekin hasi, haurrentzako jokoak, dantza herrikoia eta bazkaria. Jendetza bildu zen goizetik plaza inguruan eta bazkarian hirurogeita hamar lagunetik gorra elkartu ziren.

GURE ESKU DAGO

'Hemen gaude' bideo-klipean parte hartu dute herritarrek

Juana Mari SAIZAR

Ekainaren 18an egingo den herri-galdeketa girotzen joateko bideoklip berezia grabatzen aritu dira duela egun gutxi Gure Esku Dagokoak herrian. 'La jodedera' musika taldeak egin dako abestia oinarri hartuta, zenbait herritar eta herriko hainbat paraje agertuko dira: garbikua, plaza, eskola ataria.... Momentuz ezin dugu besterik aurreratu, sekretupean gorde dute eta informazioa, baina emaitza ikusteko gogoz gaude dagoeneko! Bideokliparekin batera, deialdia ere zabaldu dute, etxeetako balkoiak apainduz herri-galdeketa babes emateko. Plastiko zatia nahi duenak taldekoei eskatu.



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

Primeran ibili dira eskolako ikasleak Aurtitzen

Aresoko Nazabal eskolako ikasleak Aurtizko Abarun aterpetxean izan ziren apirillean egin zuten ateraldian. Bertan hainbat jolas egin zituzten Iriber, Amaia eta Unaiekin. Erreka ondoan bildutako harriak margotu eta magiko bihurtu zituzten. Oso gustura ibili ziren



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

Maiatzeko loreak

Aspaldiko ohiturarekin segiz, maiatzeko loreak eskaini zizkioten herriko tikiak Amabirjinari. Oraingoan gainera neska eta mutilak bertaratu ziren. Ermitaraino oinez igo ziren eta bertan egin zuten eskaintza.

KULTURA → UZTAILAREN 1EAN

Trabukoren antzezlan berreskuratuko dute Landarte programan

Olatz Beobide zuzendariaren eskutik, hasiak dira tailerra ematen, uztailaren 1ean antzezlan aurkezteko

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuko Kulturako Zuzendaritza Nagusiak sustatutako Landarte programaren baitan, Goizuetan, Olatz Beobideren eskutik, herri-antzerkia berreskuratuko dute; *Goizuetan Badataillerra* eskaintzen hasia da Beobide, eta uztailaren 1ean (20:00etan), Goizuetako herritarrek due-la 25 urte antzeztutako *Trabuko* lanaren bertsio berritua estreinatuko dute, optika berriarekin eta lengoaia eszeniko garaikideekin.

Kulturako Zuzendaritza Nagusiak Landarte jarri du abian, Nafarroako arte eta landa-tartasun programa, 2017an Nafarroako hamar herritan sorkuntzako tailer parte-hartzaileak sustatuko dituen proposamena. Goizuetan ez ezik, Zuriñigan, Galipentzun, Sesman,

Otsagabian, Fontella-sen, Abartzuza-Erezun, Zurukainen eta oraindik zehaztu gabeko beste batean, hain zuzen ere. Apirilean eta maiatzean egiten ari dira tailerrok, eta hainbat emanaldi-rekin aurkeztuko dira emaitzak ekainean eta uztailean.

Nortasun Agiria berritzea Leitza

Iruñera mugitu beharrik gabe, Nortasun Agiria berritzeko edo ateratzeko aukera izanen da aurten Leitza. Datuak ematera maiatzaren 23an eta ekainaren 12an joan daiteke eta karneta biltzera ekainaren 1ean eta 22an.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Giro bikaina aurten ere Txinoko festetan

Maiatzeko lehen asteburuan ospatu ziren Txino auzoko festak eta urtero bezala mundialak izan ziren. Ostiralean Unai Agirre eta Aitor Mendiluze bertsolariak aritu ziren Zubiondo tabernan eta bertsozaleek bizitasun handiko saioaz gozatzeko aukera izan zuten, festei hasiera emanez. Tabernako nagusiek zapela eta orogarria ere eman zieten bertsolariei, batzuk urtero urtero etortzen direlako festa hasierako ekitaldi honetara. Ondoren, bertsolariei txanda eginez, Mus txapelketa jokatu zen Zubiondon bertan eta 11 bikotek parte hartu zuten. Joan den urteko txapeldun ordeak, Josu Narbarte eta Bixente Callejón aurten goan txapeldun izan dira. Txapeldun ordeak, berriz, Euxtakito Zubieta eta Antonio Zubeldia. Larunbat goizean haurren krosa egin zen. Aurten ez da heldu-en lasterketarik egin, baina halere, animazio handia izan zen txikienekin ere. Ondotik, txupinazoa botatu zuen Kontxi Billabonak, Zubiondo taberna kudeatzen duen Mitxelena-Billabona familiaren izenean. Auzoko dragoia han-hemen ibili zen kalejiran. Txino auzoko eta herriko tiralarien arteko sokatira saioan auzotarrak nagusitu ziren. Herri bazkarian eta bazkalondoan ere giro ederra izan zen. Arratsaldeko ekitaldiari dagokionez, break dance ikuskizuna bikaina izan zen eta gauean ere Klaudion etxeko bajaran, urtero bezala montatutako tabernan kontzertua eta giro ederra izan zuten.

MAIATZAREN 20AN

IV. Goizutrail lasterketak bi ibilbide izanen ditu aukeran

TTIPI-TTAPA

Aurten ere bi ibilbide izanen ditu aukeran Goizutrail mendi lasterketaren laugarren edizioak maiatzaren 20an, bata 10 km-koa (631 m-ko desnibela) eta bestea 25 km-koa (1.636 m-ko desnibela).

Herriko plazan hasiko dira bi ibilbideak larunbat goizeko 9etan, Aitasemegi auzora igoko dira korrikalari guztiak xenda estu batetik, 680 metrotara dagoen Eneko Elorriko bizkarrera igoko dira, eta hemendik herrira jeitsiko dira Espideko sorotik pasatuz, ibilbide laburrekoak.

25 kilometroko ibilbidea aukeratzen dutenek, ordea, Alkainzuriain auzotik Mandoegiko gailu-



ARTXIIBOKO ARGAZKIA

Kirolariak aldapan gora, joan den urteko edizioan.

rrera igo beharko dute, 1.045 metrora. Ondoren Mandoegiko gailurretik jarraituko du ibilbideak harrespilen artean eta bukatzeko berriz ere herriko plazara jaitsiko da. Izen ematea zabalik dago www.herrikrosa.eus webgunean bezpera arte eta egunean berean plazan ere egin daiteke.

LEITZA

OSPAKIZUNA → XVIII. EDIZIOA

Eskolen arteko topaketa ospatuko dute maiatzaren 28an herrian

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzakoak elkarrekin

JM BARRIOLA

Leitzako eskolako haur, guraso eta irakasleak burubelarri ari dira maitzaren 28an ospatuko duten topaketa prestatzen. Beraiei egokitu zaie 18. edizioa antolatzeara eta beste urte batez ongi pasa eta lau herrietako haur, guraso eta irakasleen arteko harremanak indartzea izanen da festaren helburua.

Goizeko 11etan hasiko da festa, egunpasa etorriko direnei ongi etorrira eginez. Aurkezpena, txupinazoa eta erraldoiak ez dira faltako eta abestia ere kantatuko dute. Segidan, entzierr txikia izanen da adar txiki-ekin, Iruñeko Estafeta



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ederki pasatzen dute Goizueta, Arano, Areso eta Leitzako haur eta gurasoek elkarrekin.

kalearen antza hartuko duen Peritzafetan. Tailerrak eta jokoak ere antolatu dituzte, 11:30etik 13:30era. Indarrak hartzeko bazkaldu eta 16:00etan zumba saioa izanen da. Jarraian, kalejira egingen dute buru-haundiek lagunduta eta 17:30ean txokolatea, bizkotxoarekin jateko aukera izanen da. 18:30 aldera bukatuko da festa.

MAIATZAREN 20AN

Haur Eskolako azken lanak bukatzeko auzolana deitu dute

JM BARRIOLA

Haur eskolako langileen ekimenez eta kaleko udal langileen laguntzaz, Itzaire haur eskola kanpogan dagoen patioa eraldatzen ari dira hainbat egunez. Azken txanpan herritarrak gonbidatu nahi dituzte haurren jolas eta sormenerako espazioa txukuntzera eta haur-eskola bertatik bertara ezagutzera. 09:30ean hasi eta ondotik gosaria izanen da.

AISIALDIA

Haur txokoa eta udako tailerrak prestatu dituzte

JM BARRIOLA

Udan ez gelditu etxean lelopean, haur eta lehen hezkuntzako gaztetxoei zuzendutako udarako aisialdi eskaintza osatu dute Leitzako Udalak, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Euskara zerbitzuak. Ekainaren 26 hasi eta uztailaren 21era arte, 4 txandatan banatuta udako ekimenak egiteko aukera izanen dute Leitzako haur eta gaztetxoek. Izen-ematea maiatzaren 26tik ekainaren 2ra egonen da irekita. Izen-emateko 012 telefonora deitu behar da eta datuak emandakoan, zenbat ordaindu behar duten momentuan esanen diete. Informazio gehiago gizarte zerbitzuan edo euskara zerbitzuan.



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

85 urte bete dituzten herritarrak omendu dituzte

Mari Kruz Baraibar, Maria Bildarratz, Katalina Arribillaga eta Itziar Sagastibelzak omenaldi goxoa jaso zuten Jubilatu Elkartearen eta Udalaren eskutik. Aurten 85 urte bete dituzten herritarrak dira eta zifra borobila denez, lagun artean bazkari eder batekin eta musikarekin ospatzeko aukera izan dute. 70 jubilatu, Andone Salbarredi eta Julian Zabaleta zinegotziak eta herriko apaiza elkartu ziren festan.



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

Illarregi anaiek maila bikaina erakutsi dute Eskolarteko Txapelketan

Apirilaren 28an Atekabeltz Gaztetxean jokaturako 31. Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan, Joanes Illarregi herritarra izan zen hirugarrenez txapelduna. Xabat anaia izan zen txapeldunorde eta biek ordezkaturiko dute Nafarroa ekainaren 10ean Saran jokaturako den Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketan.

HIRIGINTZA → MAIATZAREN 12TIK EKAINAREN 12RA

Kultur Aroko egitarauak ez du etenik

XXXIX.
Eskulangintza
azoka
maiatzaren
28an izanen da

JM BARRIOLA

Maiatzaren 12an eman zioten hasiera 40. Kultur Aroari eta gerotik, musikaz, kirolaz, dantzaz ... gozatzeko aukera izan da. Asteari hasiera Andoni Urbisondoren *Annapurna bistare bistare* dokumentalak eman zion eta biharamunean, **maiatzaren 16an**, Haritz Otazuk *Nafarroako Lehen Konstituzioa* liburuaren aurkezpena egiteko azken 19:00etan Batzar Aretoan. **Maiatzaren 17an**, asteazkena, 18:00etatik aurrera zinemaren Funky eta Hip Hop erakustaldia eskainiko dute Bakartxo Aka-

demiaiko ikasleek. **Maiatzaren 19an** plazan Ekuadorko dantzak eta musika izanen dira 18:30ean. Gauean berri, Atekabeltzen film labur lehiaketa. **Maiatzaren 19an** 08:00etan plazatik abiatuta mendi irteera antolatu dute eta iluntzean antzerkirako aukera 20:00etan zinemaren *Atte hil aurretik* antzezlanaren taularatuko dute. **Maiatzaren 23an** Karmelo Landak, Gernikako bonbardaketari buruzko hitzaldia eskainiko du 19:00etan Aurreran eta **maiatzaren 24an**, toki eta ordu berean Bioenergiaz ariko da solasean Teresa Martinez psikologoa. **Maiatzaren 25ean**, *Eskola Jantokiak eta inguruko garapena* hitzaldia antolatu dute 19:00etan jangelan. **Maiatzaren 26an** *Leitza argazki zaharretan* liburuaren aur-



ARGAZKIA: JOSEBA SAGASTIBELTZA

Abel Barriola pilotariaren agurra

Guztion ahotan ibili da azken hilabeteetan Abel Barriolaren izena. Hainbat omenaldi jaso ditu Euskal Herri osoko hainbat pilotalekutan eta azken partida maiatzaren 7an jokatu zuen, azken tanto ikusgarri bat egin eta partida irabaziz. Donostiko Atano III. pilotalekua jendez gainezka zegoen eta tartean asko ziren herritik joandako lagunak. Horietako asko Leitzaan bildu ziren gero, Erleta eskolako jangelan egindako afarian. 300 lagunetik gora bildu ziren.

keztuko dute 19:00etan Udaletxean, segidan elkartasun ekintza izanen da eta Peritzan 22:30etik aurrera gau musikatua. **Maiatzaren 28an** Eskulangintza Azokak hartu-

ko du plaza 10:00etatik aurrera. Eta maiatzeko ekitaldiekin bukatzeko, **maiatzaren 30ean** Sarrion lantegiari buruzko grabazioak 19:00etan plazan eta **maiatzaren**

31n, Nafarroako memoria guneen inguruan ariko dira Nabarraldeko ki-deak 19:30ean Aurreran. Ekaineko ekitaldien berri hurrengo aldizkarian emango da.

MAIATZAREN 18AN ETA 21EAN, HURRENEZ HURREN

Mahai-ingurua eta eskualdeko festa antolatu ditu Gure Esku Dago dinamika

JM BARRIOLA

Kultur Aroaren baitan, ekitaldi bereziak antolatu ditu erabakitze eskubidearen aldeko plataformak. **Maiatzaren 18an**, mahai-ingurua izanen da Leitza zinemaren 19:00etatik aurrera. Zelai Nikolas (Gure Esku Dago), Iñaki Zarroa, (EAJko Getxoko alkate ohia) eta Floren Aoz (Iratzar Fundazioa) ari-

ko dira solasean eta Juan Kruz Lakasta izanen da moderatzailea.

Maiatzaren 21ean, eskualdeko festa antolatu dute. Ekimenaren aurkezpena egin, jendea parte hartzera animatu eta ondoren luntxa eskainiko dute. Kamisetak ere salgai jarri dituzte 10 eurotan eta bi egunetan erosteko aukera izanen da.



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

‘Dantza’ filmaren grabazioa herrian

Euskal dantzen inguruko filma grabatzen ari da Telmo Esnal zinemagilea, Koldobika Jauregi eta Juan Antonio Urbeltzekin elkarlanean. Eta Leitzaan eginen dituzte grabazioak maiatzeko bi asterburutan. 250 dantzarik parte hartzen dute filman.

KALEJIRA HERRIKOIA ANTOLATU DUTE MAIATZAREN 31N

‘Leitza urratsez urrats’ proiektua landu dute Amazabalgo ikasleek

JM BARRIOLA

DBH eta Batxilergoko lehenbiziko mailako ikasleek herriko segurtasunaren inguruan lanketa berezia egin dute. Herrian zehar ibilaldiak egin dituzte eta zenbait gabezia ikusi dituzte: «ohartu gara espaloiak txikiak direla, trafikoko seinaleak estalita daudela, kotxeak espaloietan aparkatzen dutela, kotxeek abiadura azkarra daromatela...». Lehenbiziko mailako batxilergoko ikasleek, txosten bat egin zuten herriko mugikortasunaren inguru-

an eta alkatearekin bilduta, Udalari aurkeztu zioten. Baina, kontzientziazio lana egitea ere beharrezkoa dela ikusi dute eta horregatik, kalejira herriko bat antolatu dute. Kalejirarako kartelak eta eskuorriak... prestatu dituzte *Leitza urratsez-urrats!* lelopean eta abesti bat prestatu eta bideoklip bat ere egin dute. Kalejira maiatzaren 31n izanen da eta 11:30ean eskolatik atera eta plazan bukatuko da. Kalejira amaitzeko, egindako abestiarekin dantza egingo dugu.

BAZTAN



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Lekarozko ikasñe ohiak, 126 urte bete dituen magnolia ondoan ezarritako plakarekin.

GIZARTEA → APIRILAREN 21EAN ELIZONDON

Lekarozko ikasle ohiek presidente berria dute

Fermin Goñi idazle eta kazetaria aukeratu dute

TTIPI-TTAPA

Lekarozko ikastetxeko ikasle ohiek urteko batzarra egin zuten apirilaren 29an beraien Txokoan. Elkarteko kontuen berri eman ondotik, Kontseilu Nagusia berritu dute. Fermin Goñi idazle eta kazetaria da presidente berria, Miguel Angel Letamendia-
ren orde. 1891an lantutako magnoliaren

ondoan oroigarri bat jarri dute eta Lourde Txoko lezean, Luis Mari Ruizen omenez ere plaka paratu dute.

Magnolia zuhaitzak 126 urte bete ditu, ikastetxeko eliza ondoan. Obrak egin zirenean lurrarekin estali zuten enborra, baina orain, txukuntze lanak egin ondotik, osasuntsu ageri da. Larunbatean presidente aukeratu zuten Fermin Goñik aurtengo argitaratu duen *Lecároz en 100 palabras* libururako egindako dokumentazio lanari esker, magnolia 1891ko aza-

roaren 10ean erosi zela jakin ahal izan du, orduko faktura eskuratzerik izan baitu. 126 urteren ondotik, Lekarozen sendo mantentzen den bizidun bakarra da magnolia.

24. Mendi Itzulia

Berroetan hasi eta akituko da Baztango Mendigoizaleak elkarrekin antolatutako duen Baztango XXIV. Mendi Itzulia. Maiatzaren 28an izanen da eta mendizaleek bi ibilbide izanen dituzte aukeran: 33 kilometro eta 1.900 metroko malda duen ibilal-



UTZITAKO ARGAZKIA

Pello San Millan-en kartelak iragarriko du Baztandarren Biltzarra

Uztailaren 16an Elizondon ospatuko den Baztandarren Biltzarreko kartel lehiaketaren irabazlea aukeratu dute antolatzaileek dagoeneko. Pello San Millan baztandarra da egilea eta *Zortziko* izenpean aurkeztutako lana izan da antolatzaileen artean bozkatuena. Lehiaketara 21 lan aurkeztu dira eta Baztandarren Biltzarrak eskerrak eman nahi dizkie parte hartzaile guztiei. Irabazleak 600 euroko saria jasoko du Baztandarren Biltzarra egunean, uztailaren 16an, hain zuzen. Bertalde, aipatu, uztailaren 17tik aitzinerat, parte-hartzaileek beren kartelak berreskuratu ahal izanen dituztela antolatzaileekin harremanetan jarri.

dia eta 24 kilometro eta 1.300 metroko malda duena. 07:00etatik 07:30era bitartean abiatu beharko dute.

Maiatzaren 26ra arte ematen ahal da izena, www.baztangomendigoizaleak.org atarian sartuta.

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruak
- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
- Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Mármoles SOULE

HILETA ARTEA

T. 948 453 444 | M. 688 605 182
ARIZKUN



Pierreseneea

OSTATU · JATETXEA

Jaki tipikoak · Etxeko giroa

Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONÓZ - MUGAIRI

GIZARTEA → MAIATZAREN 4AN IZAN ZIREN URNIETAKO EGOITZAN

Esne sektorearen geroaz aritzeko Kaiku kooperatibarekin bildu da Udala

Baztango esne guztia, etxalde batekoa izan ezik, kooperatibak biltzen du orai

TTIPI-TTAPA

Esnetako behien sektoreak bizi duen kinkari buruz solastatzeko Udalaren ordezkariak Kaiku kooperatibako arduradunekin bildu zen maiatzaren 4an. Joseba Otondo alkatea, Mikel Ortega alkateordea eta Florentino Goñi zinegotzia Kaiku kooperatibako presidentearekin Joxe Urrestarazurekin, kudeatzailearekin Alex Garmendiarekin eta kooperatibako Baztan, Urdazubi, Zugarramurdiko administrazio kontseiluko ordezkariarekin Jon Arretxearekin bildu ziren.

Bilera Urnietan egin zen Kaikuren egoitzan. Danonek Nafarroako mendialdeko zazpi nekazariri esne gehiagorik ez biltzeko hartutako erabakiaren ondotik Kaikuk kaltetutako nekazarien esnea hartuko du. Modu berean, Danonerendako ari ziren gainerako nekazariak ere Kaikurekin lana egitera pasatu dira. Horrela, Baztango esne guztia, etxalde batekoa ez bertzetik, Kaikuk hartzen du. Kaikuren ordezkariak erran zuten baztandar nekazariei esnea hartzeko konpromisoa denboran iraunen duen erabakia da, koo-

peratibaren hasierako helburu sozialetan heldu denez sektorearekin eta lurraldearekin konpromisoa baitute. Horregatik, nahiz esnea biltzeko kostuak igan, urrun edo barreiatuak diren baserrietako esnea biltzen segituko dute.

Bertzalde, Kaikuren ordezkariak kooperatibaren antolaketari buruzko argibideak eman zituzten eta beren arri-muan eratu ziren lparlat esnetegiari eta Kaiku Korporazioa esneki enpresari buruzkoak ere bai. Kaiku kooperatiba 350 abeltzain bazkidek osatzen dute eta horietan, behitegieta zuzenean, 1.000 pertsona inguru lanean ari dira. Kooperatibak, bere aldetik, hamabortz langile eta esnea biltzeko 25 kamioi ditu. Bileran



UTZITAKO ARGAZKIA

Udal ordezkariak, Kaikukoekin bildu ziren Urnietan.

emandako datuen arabera Kooperatibaren eta lparlaten artean Nafarroako esnearen %70 biltzen dute. Modu berean kuota sistema kentzearen ondorioz eta oraingo produkzio

ereduaz aritu ziren; nekazariei ordaintzen zaien prezioaz eta produkzio kostuetaz, baita nekazaritza sektoreak bizi duen gainbeheraz ere. Bileraren ondotik lparlatek Urnietan duen lan-

tokia bisitatu zuten.

Udaleko ordezkariak bileraren balorazio positiboa egin eta baztandar nekazarien esnea biltzeko Kaikuk hartutako erabakia eskertu dute.

**NAFAR MENDI
HIPERSIMPLY**
merkatalgunea
Arraioz, Baztan | 948.452.656 | 9h00-21h00

1 HYUNDAI I10 AUTOA


2 100 EUROKO 5 EROSKETA TXARTEL ARROPA DENDAN ERABILTZEKO


3 BERTAKO PRODUKTUEKIN OSATUTAKO 3 SASKI


PARTE HARTU HIPER SIMPLYKO ZOZKETAN CLUB SIMPLY TXARTELAREKIN ETA IRABAZI...



BAZTAN

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 20AN ORONOZ-MUGAIRIN

Sahararekiko Elkartasun Eguna ospatuko dute larunbatean

Saharaztan elkarteak egun osorako egitarau zabala prestatu du

TTIPI-TTAPA

Sahararekiko elkartasun eguna antolatu du hirugarren urtez Saharaztan taldeak. Maiazaren 20an egingen da Oronoz-Mugairin eta egun osoko egitarau zabala prestatu dute.

- 10:00etan kalejira trikitilariekin.
- 11:00etan irekiera eta harrera politikoa frontoian, Hasana Aaliarekin. Jaiman te dastaketa, pintxoak, musika eta haur jolasak ere izanen dira.
- 14:30ean bazkaria. (Txartelako salgai dau-de 6 eurotan). Menuan kuskusa edo paela, kafea eta bizkotxoak izanen da eta ondotik, kantuan aritzeko aukera.
- 17:00etan musika kontzertuak eskainiko dituzte Trikidantz,



UTZITAKO ARGAZKIA

Mus eta seien txapelketetako sariak banatu dituzte Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxean

Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxean merendu xarmangarria izan zuten, kartetan mus eta seien txapelketak burutu direla eta akabaila emateko apirilaren 24an. Merendu honetan 45 bat persona bildu ziren, bertako xaharrrak, barride eta lagunak, hau da, martxo eta apirila bitarte jokatuak txapelketen parte-hartzaileak. Mus txapelketan, Felipe Santamaría eta Jesus Etxeberria izan ziren txapeldun, Jose Luis Altzugarai eta Pedro Aleman txapeldun orde, Pilar Ariztegi eta Antonio Ilzauspe hirugarren eta Trini Urtaşun eta Miguel Migeltorena laugarren. Seien txapelketan Inocencia Arriada izan zen txapeldun, Juan Jose Durruty txapeldun orde, Marina Remiro hirugarren eta Adela Ascunce laugarren. Sari berexiak ere izan ziren, Antonia Etxenike, M^a Carmen Ugarte eta Dolores Osas-endako.

Txarros Txilapastrosos eta La Chula pota taldeek. Sarrera 6 euro kobratuko da. Bokatak (bejetalak ere)

izanen dira, 4 eurotan.

- 21:00etatik aitzinera kontzertuak eskainiko dituzte Ufestuek, Utopia, Azken Trena, Ka-

tez, Kalera, Lur J eta Tirri&Tery taldeek. Tarreetan batukada eta gan-torri autobus zerbitzua ere izanen da.

FLASH

Pilar Alcolearen margo erakusketa

Pilar Alcolearen margo erakusketa zabalik dago Arizkunenean maiatzaren 16tik 31ra. As-telehenetik larunbatera, 19:00etatik 21:00 etara dago ikusgai.

Benito Menniren solasaldiak

Elizondoko Benito Menni ospitalaren eskutik, buruko eritasun batzuen sorburua ezagutuz, horiek prebenitzen laguntzeko eta jendartea kontzientziazteko asmoarekin solasaldiak eskaintzen ari da Arizkunenean. Honderrekoa maiatzaren 18an, ortzegunean 18:00etan eskainiko du Maite Dendarietak, buruko osasunean espezialdutako erizainak. *Menpekotasunak, alkohola eta drogak* izan diren solasgai, Drogamenpekotasunaren kontrako Laguntza Fundazioaren kanpainaren baitan.

Eztigintza eta erlezaintza hastapena

Baztango agroekologia eskola herriarreko bertez ikastaro bat antolatu du Hazitik hoxiek: *Eztigintza eta erlezaintza- Hasberriendako hastapenak*. Maiatzaren 20an, larunbat goizeko 10etatik 12etara Arizkunenean egingen den ikastaroan morfologia, haziera zikloa, bertako espeziea, bizkarroia eta harraparia, ekipamendua eta lanabesak, kofoinak, kokapena, nukleoaz den eta bertez hainbat ikasgai izanen dituzte. Izen emateko hazitikhozie@gmail.com

zergalan | **asegi**
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesak

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 - F. 948 580 648

www.zergalan.es | info@zergalan.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 - F. 948 451 304

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 6KO BESTA

Elizondoko Lanbide Eskolak osasuntsu bete ditu 50 urte

Kalejirak,
argazki
erakusketa,
180 lagun bildu
dituen
bazkaria,
musika eta
bertze hainbat
ekitaldi izan
dituzte

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Lanbide Eskolak joan den urteko urriaren 13an 50 urte bete zituen eta egun horretan ospakizun xume bat egin zuen. Ikasurtean zehar ere zenbait ekitaldi egin dituzte eta oraingoan berriz, maiatzaren 6an egun osoko festa eder bat egin zuten garai bateko ikasle, langile eta irakasle ohiek eta orain ari

diren guztiek. Larunbat goizeko ekitaldiak hasitako txalaparta eta aurrekua izan zuten, Jo ala Jo taldearen eskutik. Ondotik, kalejira izan zuten Iturengo hamar joaldun eta Jo ala Jo taldeko txistulariekin. Segidan, eskola irekiera egin zuten Baztango dantzariak. Argazki erakusketa eta bisita gidatuak ere izan zituzten eskolan eta garai bateko ikasle, irakasle eta langileek gustura ikusi zituzten gazte denborako argazkiak. Eguerdian pilota partida jokatu zuten eta ondotik Gaztelu abesbatzaren emanaldia.

Gaur egungo ikasleek zerbitzatu zuten bazkarian 180 bat lagun elkartu ziren ikasle garai zaharrak gogoratuz eta bazkalondoan segitu zuten musikak eta besta giroak.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

180 lagun bildu ziren Elizondoko Lanbide Eskolako mende erdiko ospakizuneko bazkarian.



UTZITAKO ARGAZKIA

Oihana Retegi arraioztarra eta Elizondoko Fantxike sarituak

Urte hasieran Baztan, Malerreka eta Bortzirietako Euskara Zerbitzuek *Herrian erosi, euskaraz erosi* kanpaina abiatu zuten. Kanpaina honen bidez hiru euskara zerbitzuek hainbat euskarri eskaini dizkiete merkatari eta ostalariei, erraterako *irekita/itxita* eta merkealdia karteltxoak eta langileek duten euskara gaitasunaren araberako bi mezurakin egindako pegatinak (*Gurekin euskaraz lasai aski* eta *Poliki baina euskaraz*). Kanpaina 100 saltokik baino gehiagok parte hartu zuen. Kanpaina hasteko argazki lehiaketa bat antolatu zuten. *Euskara eta Merkataritza* izan zen proposatutako gaia eta argazkiak kanpaina parte hartzen duten saltokietan atera behar ziren. 17 argazki jaso dituzte euskara zerbitzuek eta Oihana Retegi arraioztarrak Elizondoko Fantxike arropa eta opari dendan atera zuen argazkia izan da irabazlea. Bai Oihana Retegik baita Fantxike dendak ere 150 euroko erosketa txartela jaso dute.

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa
www.facebook.com/ttapi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

NELI YANCI
BIZI eta OSASUN AHOLKULARIA
ASEGURU MOTA GUZTIAK
C007272664074J

GENERALI

Santiago 72B 31700 ELIZONDO
T./F. 948 580 504 • 649 947 182
generalielizondo@hotmail.com

OSASUN ASEGURUAK

Itxaron zerrendarik gabe,
zuk erabakitzen duzunean

- Klinika hoberenak (Unibersitaria, Quirón, Poliklinika,...)
- Espezialitate guztiak, txkeoak, hospitalizazioa, etb... barne
- Autonomoak %100 desgrabazioa IRPFen

ESKAINITZA BEREZIA

Abendu arte %30rainoko deskontuak
Adibidea: 30 urteko Gizon/emekumea
(23,14€tik/hilean) Aukera desberdinak

Berigatu aukera gehiago gure web orrian
corneliayanciberrueta.seguros.generalis.es



BAZTAN

BESTAK → EKAINAREN 2TIK 5ERA

Berroetako Mendekoste bestak ekitaldi berezieki datoz

Egun handiko mezan Gaztelu Abesbatza eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoko kideak izanen dira

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 2an, ortziraletako 8etan botako den txupinazoarekin hasi eta asteleheneko zikiro eguneko zikiro eta zingar jateak bitarte, lau eguneko Mendekoste besta dotoreak prestatu dituzte Berroetan.

ORTZIRALEA 2, BEZPERA

- 20:00 Suziriak beste hasiera emateko.
- 20:30 Txopo goratzea herriko trikitilariak. Ondotik mutil dantzak.
- 21:30 Baztan zopak eta kantu zaharrak (txartelak sagai).
- 00:00 Dantzaldia Salaberriekin.

LARUNBATA 3 HAURREN EGUNA

- 11:00 esperientzia bir-

tuala (4 euro).

- 14:00 Gazteen bazkaria Aizkoan
- 16:00 esperientzia bir-tuala (4 euro).
- 19:00 Bertso-triki-poteoa, Alazne Untxalo eta Iker Gorosterrazu bertsolariekin.
- 20:00 paella lehiaketak.
- 21:30 Herri afaria (Txartelak salgai).
- 00:00 Dantzaldia Trikitidantz taldearekin. (gan-torri autobus zerbitzua gau osoan)

IGANDEA 4

MENDEKOSTE EGUNA

- Puzgarriak egun osoan.
- 10:00 Erraldoiak eta gaiteroak herrian barrera.
 - 11:00 Meza nagusia Gaztelu abesbatzarekin eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoko kideekin.
 - 12:00 Luntxa plazan eta pilota partidak.
 - 18:00 Mattin Lerissa Iparraldeko abeslariarekin kantaldia.
 - 19:00 dantzaldia Salaberriekin.
 - 21:00 Talo eta zingar jatea herriko trikitilariak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Hondar eguneko zikiro jatearen ondotik giro polita sortuko da aurtien ere.

ASTELEHENA 5

ZIKIRO EGUNA

- Puzgarriak egun osoan izanen dira.
- 11:00 XLIV. Berroeta-

ko bizikleta itzulua.

- 12:00 Mus txapelaketa.
- 14:00 Zikiro jatea Fer-nandok eta Beñatek

alaiturik.

- 21:30 Zingarjatea kantu zaharrekin.
- 00:00 *Gaixoa ni* bestak akitzeko.

MAIATZAREN 5 ETA 6AN

Errefuxiatuen egoeraren berri izan dute Berroetako Asteburu Kulturalan

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 5 eta 6an asteburu kulturala izan zen Berroetan. Ekitaldiak ortziraletan hasi ziren, eraso sexisten kontrako tailerrekin. Jende ugari bildu zen tailerretan, gaiari buruz solastu eta dinamika desberdinak eginaz anitz ikasi eta hausnartu zuten bertaratutakoek.

Asteburuak larunbatean izan zuen segida; egun guztian zehar giro paregabea izan zen herriko plaza inguruan, gazteek antolaturiko pala txapelketa dela eta. 12 gaztek parte har-

tu zuten, eta txapela Anizko Gabon Gamiok eraman zuen.

Ekitaldiekin akitzeko, *Errefuxiatuen ahotsoa* dokumentala eta solasaldia izan zen batzartegian. Errefuxiatuek bizi duten egoera gogorra Berroetara ekarri zuten dokumentaleko irudiek, eta ondotik, bertan egondako boluntarioek emandako solasaldiak borobildu zuen emanaldia. Iru-dien saminari buelta emateko, afaria-rekin akitu zen eguna.

Giro eta parte hartze handiko asteburu kulturala izan zen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Errefuxiatuen ahotsoa aditzeko eta egoera ezagutzeko aukera izan zuten Berroetan.



Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAJA IREKIA

www.olasagardotegia.eus
102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · Tfnoa 943 623 130

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → 2007KO MAIATZAREN 4AN

Herrian izandako uholde handienen 10. urteurrena

Moldaketak
franko fite eta
ongi egitea
lortu zen

krisian sartuak, eta mol-
daketak franko fite eta
ongi egitea lortu zen.

Abeslari eta musikari ttikien emanaldia

Josebiñe eta Koro

10 urte bete dira he-
rriak jasan duen uhol-
derik handienetakotik.
2007ko maiatzaren 4an
izan zen, eta kalte han-
diak izan ziren, herriko
karriketan, kanposan-
tuan, lezeetan, eta ba-
tez ere mendiko bide
eta erreketan. Garai
haietan ez ginen oraino

Maiatzaren 6an kon-
zertu polita eskaini zu-
ten Sorginen museoko
auditorium-ean eskola-
ko ikasleek, trikitixa eta
pandereta ikasleek eta
Elizondoko Abesbatza
Ttikikoek. Jende azkar-
ki bildu zen ikustera, eta
denen artean giro poli-
ta muntatu zen.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Kalte handiak sortu zituzten 2007ko maiatzaren 4ko uholdeek.



ARGAZKIA: JOSEBINE ETA KORO

Herriko musikariek Elizondo eta Urdazubikoekin batera kantatu zuten museoa.

BAZTAN-BIDASOA

GIZARTEA → KALERA KALERA DINAMIKA

Fleuryko espetxera aterako da autobusa

Joseba Iturbide
lesakarra han
dago preso

burutuko da Frantziako
Fleury Merogis, Saint
Maur eta Roanne es-
petxetara, eta Espainia-
ko Puerto, Curtis eta Pi-
casent espetxetara.
Baztan, Malerreka eta
Bortzirietako jendeari
Joseba Iturbide lesaka -

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 20an Ka-
lera-Kalera dinamikaren
baitan, espetxe martxa



UTZITAKO ARGAZKIA

Ireki kanpainari babesa emateko Baztan-Bidasoaldean argazkia ateratzeko bildu ziren Zalainen maiatzaren 5ean. Honen bitartez beraien asmoa Ireki kanpainari babesa ematea zen, ekainaren 17an, Gasteizen, egingen den manifestazioaren deialdia zabaldu eta aldi berean sinadura bilketa indartu. «Baztan-Bidasoako langileon bultzadaz preso eta iheslariak etxerako bidean!», adierazi zuten maiatzaren 5eko elkarretaratzean.

rra preso daukaten Pa-
risko Fleury espetxera
joatea egokitu zaio.

Maiatzaren 19an, or-
tzirale gauean abiatuko

da autobusa, larunbat
eguerdian Fleuryko es-
petxe atarian egingen den
ekitaldira iristeko. Au-
tobuserako txartela 20

euro kostako da eta
apuntatu nahi duenak
ohiko lekuetan alde
aurretik eman ahal iza-
nen du izena.

URDAZUBI

GIZARTEA → ALOKAIRURIK ORDAINTZEN EZ DUELAKO

Xareta ostatua errentan hartu zuen emakumea kaleratzeari ekin dio Udalak

Herriko Etxeak kontratua hautsitzat eman du eta zor duen kopurua berehala ordaintzeko agindu dio

Iñigo IMAZ

Apirilaren 28an egin udal bilkuran, Urdazubiko Udalak Xaretako maizterraren kaleratze prozesua abian jartzea erabaki zuen. Xareta ostatua Dantxarinean dago, muga ondoan, aduana zaharra zena-ren alboan. Garai batean aduana zaintzen zuten polizien egoitza izan-dakoa, gerora turismo bulegoa bertan paratu zen eta, azken urteotan, Herriko Etxearen ostatua da. Udalak, azken urteotan ez du errenta kobratzeko neuririk hartu, hori dela eta, aurretik ostatuan egondako errentariak 20.000 euroko zorra utzi zuen. Zorra ez da kitatu gaur egun.

Gaur egungo maizterrek, bertze 13.042,50 euroko zorra du. Frantziar nazionalitatea duen emakumeak, enkan-tean atera zen alokai-rua bere gain hartzea lortu zuen, 2016ko api-ri-laren 29ko udal batzarrean onartu ondoti-k. Kontratua alkatea den Santiago Villaresek sinatu zuen 2016ko ekainaren 17an, hileko 1.850 euroko errentare-

kin. Horri BEZ zerga erantsi behar zaio. Ha-la ere, Xareta ostatuan gaur egun lanean ari den emakumeak ez du hile-roko errenta ordaindu, hortaz, Herriko Etxeak kontratua hautsitzat eman du eta zor dituen diru kopuruak bereha-la ordaintzeko agindua eman dio. Gainera, lo-kala berehala libre uzte-ko exijitu dio.

Mikel Markez eta Juanlu Aranburu Indianoabaitan

Urtero Indianoabaita ostatuan ospatzen den kantu zahar bazka-rian Mikel Markez abes-laria eta Juanlu Aranbu-ru trikitilariak bazkal on-doko kantu sorta gida-tu zuten. Antolatzaile-ak, Erratzun egonaldi lu-zeak pasatzen dituen Fernando Lete donosti-arrak, azken unera arte ez zion inori erran gon-bidatu zituen musikari-eren izenik. Hortaz, ezus-teko polita jaso zuten ostatura hurbildu ziren ia 50 pertsonak.

Bazkaria, apirilaren 29an ospatu zen, larun-batarekin. Menu opa-roa prestatu zuen Miren Sansinenak gidatzen duen lan taldeak, pre-zio onean gainera, 35 euro pertsona bako-i-tzeko. Bertan, aurreka-ri gisa edo, eta Marke-zek azaldu zuenez, udazken aldera argita-ratuko du bere diska berria, eta Benta Zaha-reko Mutiko Alaiak tal-deko Juanlu Aranburu eta Leteren bitartez ja-so zuen gonbitea.



ARGAZKIA: INIGO IMAZ

Xareta ostatuko azken bi maizterrek zorrak utzi dituzte.

2017 honen hasiera Indiano Baitarentzat urte hasiera tristea izan da, herrian aski maitatua genuen Patxi Sansinena, Patxi Karretero, urtarrean zendu baitzen. Baina, ohiturari eutsiz, euskal kantu zahar eta berrie-kin, ostatu zaharrean alaitasuna nagusitu zen gan den hilabete- eta, akitze-ko, kalejira batekin amaitu zuten festa he-rriko ostatu-etan barna.

Venta Patxik atek itxiko ditu 35 urteren buruan

Dantxarineako Venta Patxik atek itxiko ditu behin betiko maiztza-zen 14an. 1982an eraikitako etxearen ja-be egin ziren, 1983an, Venta Pacoren jabeak diren bidaurtar-ak. Bi bentek, hortaz, bat egi-nen dute maiztza-zen 18tik aurrera. Ezin bes-tekoak ziren hainbat lan akitu ondoren, Venta Pa-co denda eta ostatu be-riak aro berri bati emanen dio hasiera maiz-tzetik aitzinera.



ARGAZKIA: INIGO IMAZ

Juanlu Aranburu eta Mikel Markez, emanaldi sorpresan.



UTZITAKO ARGAZKIA

35 urte eta gero, atek itxi egingen ditu Patxi Bentak.

GIZARTEA → MAIATZAREN 6AN

Senpertar zonbait Sartagudako omenaldian

Bertako
historiaz ainitz
ikasi dute
herritarrek

Pierre BASTRES

Lapurdi 1609 elkar-
teko lagun zonbait bisi-
taz joan dira Sartagu-
darat, maiatzaren 6ko
ospakizunak ikusterat.
Sartaguda Nafarroako
hego muturrean dago,
Errioxako mugatik hur-
bil. Hantxe, urtero 2008-

az geroztik, omentzen
dituzte 1936ko golpe
militarrean erail zituzten
nafarrak, abantsu 4.000
orotarat. Horietarik 86
Sartagudakoak ziren,
eta horregatik hain zu-
zen, 'Alarguntsen he-
rria' izengoitiz ezaguna
da Sartaguda.

Kulturaz eta historiaz
artatzen da Lapurdi
1609, eta bisita horie-
sker ikusi dute «nola, zi-
naurriak bezala, berta-
koak aritu izan diren me-
moria historikoaz berriz



ARGAZKIAK: PIERRE BASTRES

Senpertarrek Sartagudako omenaldian parte hartu zuten.

jabetzeko» dio Mixel
Mendiburu taldeko ki-
deak. Ana Ollo, Nafarro-
ako Gobernuako orde-
z-kariak bere aldetik, ho-
lako zeremonia «iraga-
neko makurrak errepi-
ka ez daitezen» baitez-
padakoa dela adierazi
zuen.

Usaiako omenaldiaz
gain, aurten goraipatua
izan da Julio Sesma, as-
palditik eta atsedenik
gabe memorialaren al-

de aritzen dena. Ondo-
tik bertakoekin bazkal-
du dute, hor ere izigarri
hartze ona eta goxoa
egina izan zaiote. Atse-

ginez ohartu dira eskual-
de huntan ere eskual-
dunik ez zela falta, eta
bizpahiru kantu elgarre-
kin eman dituzte.

MAIATZAREN 21EAN

Ate Idekiak INRA zentroan

P. BASTRES

Maiatzaren 21ean Ate idekiak INRAn, goizeko
10etarik arratsaldeko 6etarat. Arrain migratzaileak
aztertzen dituen INRA Ikerkuntza Zentroak bere 40
garren urtemuga beteko du.

KIROLA → MAIATZAREN 7AN

V. Bizikleta ibilaldia antolatu dute Zaldubi ikastolako gurasoek

Eguzkia lagun,
jende ainitz
bildu da eta
arrakasta
ederra ukan du
bizikletaz nahiz
oinez egiteko
ibilbideak

Pierre BASTRES

Maiatzaren 7an,
igandearekin iragan da
borzgarren Mendi bizi-
kleta-ibilaldia, Zaldubi
Ikastolak (96 ikasle) an-
tolatuta. VTTz edo oi-
nez lotzen ahal zen bi-
deari. Mendi bizikletaz
egiten ahal ziren 20 ki-
lometra (800 metroko



ARGAZKIAK: PIERRE BASTRES

Eguzkia lagun, batzuk oinez eta bertzeak bizikletaz ibili ziren.

desnibelatuarekin) edo
30 kilometra (1300 me-
troko desnibelatuare-
kin), oinez 15 kilometra
ala 8 kilometra. Senpe-
reko jauregitik abiatzen
zen eta Urguri auzorat
buruz segituz upatzen
zen Senpere, Sara eta
Azkaingo gainetarat.
«Gan den urteko edi-

zioa euripean iragan
zen, jende guttiarekin, al-
diz aurten xantza izan
dugu aroarekin, dene-
tarat 220 mendi bizi-
kletak eta 150 ibiltzailek
parte hartu dute, bozka-
riatuak gara» azpima-
rratzen du Benoit Ha-
rotcarene gurasoen el-
karteko kideak.



SARA

KULTURA → MAIATZAREN 27 ETA 28AN

Europako musika taldeak bilduko dituzte zortzigarren Usopop jaialdian

Zazpiak Bat dantza taldeak 2016ko kabalkadako dantzak ere aurkeztuko ditu

Joana GERENDIAIN

Bada 8 urte Usopop elkarteak Europako musika taldeak Sarara ekarrazten dituela musikazaleen loriarendako, arrakasta honetaz azkar elkarteak bere ahalegin guziak egiten ditu gertakari hau ederrena izan dadin. Aurten bi egunez iraganen da maiatzaren 27 eta 28an, betiko moduan mendia eta herriko plaza txandakatuz. Larunbatean Laish artistaren pop britaniarra, Paxkal Irigoyenen rock orkestrala, Mamu tiki bat eta Totorro bretoi taldea entzuten ahalko dira. Haurrentzat xoko bat izanen da ere. Gaualdia Musique D'Apéritif DJak eta Los Chimberosen zuzeneko karaokearekin buka-



ARGAZKIA: USOPOP

Zortzigarren urtez, jendetza erakarriko du Usopop musika jaialdi bereziak.

tuko da. Igandean, eguerdi aldean Howdy SS eta Bigott taldeak plaza girotuko dute. Arratsalde osoan, MerkatuUSO saratar eta kanpoko artesauek sortu merkatua izanen da eta A side B Side taldeak joko du; horrez gain, Zazpiak Bat dantza taldeak 2016ko kabalkadako dantza ederrak aurkeztuko ditu. Familiari edo lagun artean

momentu goxo bat pasatu nahi baldin baduzue baso baten inguruan, jateko aukera ere izanen da, dudarik gabeko data hauek gogoan atxiki. Larunbatean sartzeara 12 eurotan izanen da eta igandean urririk.

Axuri'arte

Maiatzaren 20tik ekainaren 5era, Axuri'arte galerian Francine Bonnefis-en arkatzezko

marrazkiak erakusgai izanen dira. Galeria eguerdi 10etatik eguerdi arte eta arratsaldean 3,30etatik 7ak arte.

Sara VTT igandean

Azken alean aipatu bezala, Olhain ikastolak VTT ibiladi bat antolatu du igande honetarako, maiatzaren 21erako. Bi ibilaldi proposatuak dira bat 26 ki-

lometrokoa eta bestea 35 kilometrokoa, ibilaldian zehar jateko eta edateko puntuak izanen dira.

Izen-emateak egunean berean egingen dira goizeko 7,30etatik goiti, 5 euroko parte hartze batekin, abiatzeak 08:30etik goiti egingen dira. Kaskoa beharrezkoa da eta haurrek ibilaldia heldu batekin egin beharko dute. Informazio gehiagorentzat <http://saravtt.jimdo.com>

Kirol emaitzak

Joan den apirilaren 30ean, errubilaria 4. mailako finala jokatu dute Kanbon, Labatuteko ekiparen kontra baina titulua ez dute lortu 7-0 galdu baitute.

Esku baloain, mutikoen ekipa erdi finaletarako kalifikatu dira. Joate matxa 20-16 irabazi dute Garlinen kontra. Beste ekipek galdu egin dute 19-15 13 urte azpikoentzat, 38-17 15 urte azpikoentzat, 20-17 18 urte azpikoentzat.

tanatorios
IRACHE

24 ORDUKO TELEFONOA
948 581 959 | 948 637 404


BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

erran

Mendialdeko Albisteak
TTIPI-TTAPA aldizkaria eta XORROXIN irratiak
elkarrekin eskuko telefonoan eta tabletan

e ERABILI ETA ZABALDU EDUKIAK



EZKONTZAK

Francisco Javier Etxepetleku Etxeberria eta **Maria Isabel Urroz Telletxea**, Ituren eta Oizkoa, maiatzaren 5ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Ane Ramirez Oseguera, Gartzaingoa, apirilaren 26an.

Mikel Barrenetxe Altzuri, Arantzakoa, apirilaren 28an.

Xabier Subizar Lakar, Legasakoa, maiatzaren 3an.

Miren Pikabea Alberro, Lesakakoa, apirilaren 23an

Xan Almandoz Ansalas, Zugarramurdikoa, apirilaren 30ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

ttipi-ttapa

Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

HERIOTZAK

Felipa Mindegia Larunbe, Elizondokoa, apirilaren 25ean, 97 urte.

Jose Maria Larrane Alzugarai Ordoiki, Lesakakoa, apirilaren 25ean, 91 urte.

Alvaro Telletxea Lazkano, Lesakakoa, apirilaren 26an, 79 urte.

Miguel Javier Iribarren Iturralde, Erratzukoa, apirilaren 26an, 81 urte.

Santiago Maritxalar Gofii, Lesakakoa, apirilaren 27an, 73 urte.

Saioa Miura Ariztia, Urdazubikoa, apirilaren 30ean, 37 urte.

Maria Juncal Bengoetxea Aizpiolea, Lesakakoa, maiatzaren 1ean, 72 urte.

Emilio Zabala Loiarde, Doneztebekoa, maiatzaren 1ean, 89 urte.

Bittor Irazoki Laurenzena, Zugarra-murdikoa, maiatzaren 3an, 79 urte.

Maria Jesus Otegi Olano, Leitzakoa, maiatzaren 9an.

Brigida Iparragirre Etxenike, Elizondokoa, maiatzaren 9an, 92 urte.

Martin Tapia, Sarakoa, apirilaren 27an, 76 urte.

*Beti ondoko denen laguna
Beti denekin bakean
alaitasuna zabaltzen eta
irria ezpain artean
adiorik ez, gero arte bat
ez da inoren kaltean
nola pertsona bat ez den inoiz
desagertzen bat-batean
oroitzen den bitartean*



ITZIAR VIGUERA IJURCO
Leitzan, 2017ko apirilaren 23an

LEITZAKO AMAZABAL INSTITUTUKO
GURASO, IKASLE ETA LANGILEAK

Saioa MIURA ARIZTIA

Urdazubin hil zen, 2017ko apirilaren 30ean
37 urterekin

*Isilean sofritu zenuen,
Itxaropenean hil zara*

AUZOKO OLAIZOLA-ZALDAINENA FAMILIA

MB ETA LASTERKA → APIRILAREN 29AN LESAKAN

224 kirolari bildu ditu Bikin Batin Duatloiak

Asier
Apezetxea
arantzarra eta
Unai
Santamaria
hernaniarra
izan dira
bizkorrenak

TTIPI-TTAPA

2017ko Nafarroa Oinezeko urteko jardueren baitan, *Bikin Batin* Duatloia kirol proba berezia burutu zen apirilaren 29an Lesakan, Tantarumairu Ikastolak antolatuta. Nafarroa Oinezeko leloari lotuta, kirolariak bi modalitateetan osatu zuten proba. Lehenengo 20 kilometroko ibilbidea mendi bizikletan egin zuen bikote partaideetako batek (854 metroko desnibel positiboarekin), eta ondoren 13 kilometro lasterka (450 metroko desnibelarekin) osatu zuen bigarren bikotekideak. Denera 112 bikotek parte hartu dute, 224 kirolarik guztira.

Horien artean Arantzako Asier Apezetxea txirrindulariak eta Hernaniko Unai Santamaria lasterkariak lortu zuten lehen postuan ailegatzea. Ordubete, 56 minutu eta 22 segundo behar izan zituzten lana burutzeko. 20 segun-



ARGAZKIAK: A. AROTZENA

Bikin Batin duatloiko gizasemeen podiuma.

doko aldea bertzerik ez zioten atera bigarren sailkatuei, Berako Juan Carlos Garro eta Joseba Larralderi (01:56:42). Podiumeko hirugarren kokxara Gipuzkoako bikote bat igo zen, Amasako Eneko Gurrutxagak eta Adunako Liher Etxeberriak osatutakoa (02:00:11).

Emakumezkoek bakarrik osatutako bikote bakarra atera zen. Iturengo Oihana Mindegia eta Lesakako Kristine Txoperenak hiru ordu, 14 minutu eta 9 segundo behar izan zituzten proba egiteko.

Bikote mistoen sailkapenari dagokionez, bizikletako zatia lehen postuan bukatu zuen Javier Sein iturendarra eta Marina Aznal elizondarra izan ziren bizkorrenak (02:07:50), Astigarragako Iñigo Reoyo eta Lesakako Idoia Maritxalar bigarren (02:22:14)

eta Lesakako Irati Otxoteko eta Berako Juan Ramon Pikabea hirugarren (02:30:00).

Bortzirietako kirolariak osatutako bikoteei dagokionez, Juan Carlos Garro eta Joseba Larralderi beratarrek lortu zuten lehen saria, sailkapen orokorrean seigarren izan ziren Aitor Begino igantziarrak eta Xabier Etxegarai lesakarrak bigarrena (02:03:22) eta orokorrean zortzigarren izan ziren Aitor Almandoz eta Mikel Urtxegi igantziarrek hirugarrena (02:05:52).

Ez zen dirurik sarirako, baina lehenbizikoek, Anas Alberro Tantarumairu ikastolako gurasoak egindako oroigarri bikainak jaso zituzten saritzat.

Sari banaketaren eta luntxaren ondotik, 420 lagunek parte hartu zuten frontoian egindako herri bazkarian.

ESKUALDEKOAK SAILKAPENEAN

- 1 Asier Apezetxea (Arantz)-Unai Santamaria (Hernani)
- 2 Juan Carlos Garro (Bera)-Joseba Larralde (Bera)
- 5 Ibai Ordax (Doneztebe)-Aitor Bertiz (Doneztebe)
- 6 Aitor Begino (Igantz)-Xabier Etxegarai (Lesaka)
- 8 Aitor Almandoz (Igantz)-Mikel Urtxegi (Igantz)
- 9 Jon Bru (Bera)-Adrian Gajate (Lesaka)
- 10 Aitor Apeztegia (Sunbilla)-Xabier Maritxalar (Lesaka)
- 11 Javier Sein (Ituren)-Marina Aznal (Elizondo)
- 12 Xabier Irazoki (Sunbilla)-Iñigo Arrieta (Sunbilla)
- 13 Iker Telletxea (Lesaka)-Ugaitz Ado (Bera)
- 15 Unai Plaza (Baztan)-Joseba Elizagoien (Bertizarana)
- 17 Joseba Iziar (Oñati)-Enaitz Antso (Baztan)
- 18 Javier Otxoteko (Lesaka)-Julio Cesar Asto (Lesaka)
- 19 Mikel Mugika (Urdazubi)-Dani Etxeberria (Baztan)
- 21 Tomas Garmendia (Elizondo)-Endika Eugi (Elizondo)
- 22 Igor Agesta (Doneztebe)-Eneko Herrera (Sunbilla)
- 24 Guillermo Perugorria (Bera)-Iñaki Pikabea (Bera)
- 27 Joseba Lasarte (Bera)-Angel Pombar (Bera)
- 30 Mikel Conde (Irun)-Mikel Inda (Bera)
- 31 Ibai Bereau (Lesaka)-Jon Otxoteko (Lesaka)
- 32 Martin Lanz (Lesaka)-Unai Telletxea (Igantz)
- 33 Mikel Garro (Lesaka)-Felix Irazoki (Lesaka)
- 34 Gerardo Telletxea (Bera)-Andoni Garbisu (Sara)
- 35 Fco Javier Meoki (Baztan)-Borja Jaimarena (Elizondo)
- 36 Joseba Pikabea (Lesaka)-Beñat Saralegi (Lesaka)
- 37 Iurgi Berrueta (Etxalar)-Ugaitz Garde (Etxalar)
- 38 Iñigo Reoyo (Astigarraga)-Idoia Maritxalar (Lesaka)
- 39 Beñardo Petrikorena (Igantz)-Iñaki Larrañaga (Bera)
- 40 Aitor Erdozain (Bera)-Julen Pikabea (Bera)
- 42 Ander Loarte (Baztan)-Santiago Yanci (Elizondo)
- 43 Iñigo Laxtol (Lesaka)-Juan Mari Indakotxea (Lesaka)
- 44 Iñaki Yanci (Baztan)-Asier Gamio (Baztan)
- 47 Jonan Arbelaitz (Lesaka)-Beñat Conde (Lesaka)
- 48 Jose Antonio Arruti (Lesaka)-Ganix Arruti (Lesaka)
- 49 Jose Mari Martinez (Lesaka)-Jon Ruiz (Irun)
- 50 Jabier Arregi (Baztan)-Gorka Aldako (Elizondo)
- 51 Irati Otxoteko (Lesaka)-Juan Ramon Pikabea (Bera)
- 53 Joxean Irazoki (Bera)-Joxemari Salgado (Bera)
- 55 Alberto Elgorriaga (Bera)-Juan Luis Irazoki (Bera)
- 56 Martzial Agirre (Bera)-Xabier Etxegarai (Bera)
- 57 Asier Aiestaran (Lesaka)-Xabat Gonzalez (Lesaka)
- 58 Mattin Garbisu (Bera)-Joseba Aranibar (Bera)
- 59 Xabino Korta (Bera)-Patxi Pikabea (Bera)
- 61 Beñardo Yanci (Lesaka)-Xanti Susperregi (Bera)
- 62 Jesus Almandoz (Lesaka)-Argiñe Ordoki (Lesaka)
- 63 Fernando Korta (Bera)-Mikel Viñao (Bera)
- 65 Iñaki Garaikoetxea (Baztan)-Xanti Lertxundi (Baztan)
- 66 Iban Iturbide (Bera)-Inaxio Agara (Bera)
- 67 Fernando Nagore (Baztan)-Mikel Larregi (Elizondo)
- 69 Ioseba Ripa (Baztan)-Gorka Urtaun (Baztan)
- 71 Sergio Morate (Bera)-Maite Aiestaran (Lesaka)
- 72 Mikele Etxekolonea (Zubiet)-Joxe M^a Indakotxea (Azpeitia)
- 74 Rafael Criado (Bera)-Joseba Petirrena (Ituren)
- 75 Imanol Retegi (Igantz)-Imanol Moreno (Bera)
- 76 Noel Eiheragarai (Urdazubi)-Arantxa Blanco (Urdazubi)
- 77 Patxi Urtxegi (Bertizarana)-Xabier Andueza (Lesaka)
- 78 Igor Retegi (Baztan)-Xabier Mihura (Baztan)
- 81 Unai Gurrutxaga (Lesaka)-Mikel Leiza (Lesaka)
- 82 Ruben Otxandorena (Donamaria)-Aitzol Fernandez (Donamaria)
- 86 Aitor Oartzabal (Lesaka)-Paxual Taberna (Lesaka)
- 87 Ion Areitio (Hondarribia)-Amaia Almandoz (Lesaka)
- 89 Loles Iturzaeta (Baztan)-Joxe Iturzaeta (Baztan)
- 91 Mikel Oartzabal (Lesaka)-Ibon Lopez (Aulesti)
- 92 Ander Sancho (Iruña)-Asier Etxeberria (Lesaka)
- 93 Oihana Mindegia (Ituren)-Kristine Txoperena (Lesaka)
- 94 Josune Iturzaeta (Baztan)-Imanol Arretxea (Elizondo)

MENDI BIZIKLETA → MAIATZAREN 6AN IGANTZIN

Antonio Diez nagusitu da VII. Xabi Telletxea BTT jautsieran

Zumai Txoperena Eugi igantziarra Nafarroako txapelkun izan da 23 urtez beheitikoetan

TTIPI-TTAPA

Antonio Diez nagusitu da Xabi Telletxea

zenaren omenez maiatzaren 6an egindako Igantziko BTT jautsiera probaren zazpigarren edizioan. Nafarroako txapelketa ere Euskadiko Irekirako baliagarria zen proba honetan erabaki zen.

Irabazleak 2 minutu, 46 segundo 21 zentesimako denbora egin zuen bere jautsierarik onenean eta 14 zentesimako aldea bertzerik



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Zazpigarren Xabi Telletxea BTT jautsierako podiuma.

ez zion atera elite mailako bigarren postuan gelditu zen Fernando Olañetari (02:46:35). Beñat Oronozek osatu zuen elite mailako podiuma (02:48:36).

Master30 kategorian Ivan Blanco izan zen bizkorrena, 23 urtez be-

heitikoan Xabi Urdanpilleta, junior mailan Unai Castro eta kadete mailan Jon Fernandez.

NAFARROAKO TXAPELKETA

Nafarroako tituluari dagokienez, elite kategorian, iaz bezala, Be-

ñat Seminario nagusitu zen, Julen Alvarezzen aitzinetik. 23 urtez beheitiko kategorian, Zumai Txoperena Eugi igantziarra izan zen txapelkun, Master 30 kategorian Iñaki Esarte eta junior kategorian Txomin Baztan.

TXIRRINDULARITZA → MAIATZAREN 6AN BERAN

Joseba Otaola (Lintxu) garaile suertatu da Felix Errandonea 40. Memorialean

Irabazleak bildotsak izan zituzten saritzat, lehenbiziko edizioetan bezala

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 6an jokatu zen Beran Felix Errandonearen omenez 40. aldiz antolatutako

txirrindularitza saria, junior mailako txirrindulariei zuzenduta Gure Txokoak antolatua. 61 txirrindularik parte hartu zuten eta Lintxu Fundazioko Joseba Otaola izan zen 79 kilometroko ibilbidea osatzen bizkorrena.

Zortzi laguneko talde txoak tropeletik ihes egitea lortu zuen 57. kilometroan, Behobiatik bueltan eta horien arte-



UTZITAKO ARGAZKIA

Felix Errandonea Memorialeko hiru lehenbizikoak eta talde irabazlea, sariekin.

an sprintean erabaki zen garailea. Otaolaren gibeletik, El Caserio taldeko Alfonso Gastónek eta Combustibles Galdano taldeko Miguel Mugikak osatu zuten podiuma. Tropela 36 segundora sartu zen. Denora, 61 txirrindularietatik 49k lortu zuten proba burutzea.

Tarteko helmugan sailkapenean Pindal taldeko Alejandro Fernandez nagusitu zen eta taldeko Lintxu Fundazioa gailendu zen. Lehenbiziko edizioetan egiten zen bezala, argazki zaharra horren lekuko, bi bildots eraman zituzten saritzat taldekideek. Ohiturekin segituz, Jo-

seba Otaola irabazleak lore-xorta eman zion Rosa Errandoneari, Felix zenaren alabari.

Gure Txokoa elkarrekin, proba antolatzea posible egin zuten boluntarioen lana eskertu nahi du lerro hauen birtatez, beraiek gabe ez baitzen posible izan horrelakorik egitea.

maiatzak 18 - ekainak 1

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Tailerrak



BERA | 2017.05.24

Drogen inguruko ikastaroa antolatu dute Bortzirietako gurasoentzat

Drogen inguruko gaietaz hitz egiteko, izan ditzagun gauzak argi izenburupean egiten dute eta hiru egunez izanen da: maiatzaren 24an, 29an eta 30ean. Izen ematea: 948 635 036 edo ssb@lesaka.eus.

Ospakizunak



LEITZA | 2017.05.27

Leitza, Areso, Arano eta Goizuetako haur, guraso eta eskolen topaketa

XVIII. aldiz ospatuko dute festa hau eta 11:00etan botako duten txupinazoaren ondotik, egun osoan izanen dituzte ekitaldiak: erraldoiak eta buruhaundiak, entzie - rro txikia, bazkaria, jolasak, zunba...

Kontzertuak



ERRATZU-ARANTZA | 2017.05.19-27

Kaskezur taldeak bere laugarren diska aurkeztuko du ZubiPuntan

Azpisugeak izena du Kaskezur taldearen hamar kantako azken diskoak eta hori aurkeztuko dute maiatzaren 19an Erratzuko ZubiPuntan eta 27an Arantzako Aterpean.

Hitzaldiak

BERA

'Wagner auziaz'

Maiatzaren 19an Hedoi
Etxarte Beralandetan (19:00).

LEITZA

Gure Esku Dagoren baitan

Maiatzaren 18an 19:00etan
Zineman.

'Gernikako bonbardaketa 80 urte' Karmelo landarekin

Maiatzaren 23an 19:00etan
Aurreran.

Eskola jantokiak eta inguruko garapena hizpide

Maiatzaren 25ean 19:00etan
Jangelan.

'Leitza argazki zaharretan' liburuaren aurkezpena

Maiatzaren 26an 19:00etan
Udaletxean.

'Nafarroako memoriaguneak' Nabaraldekoen eskutik

Maiatzaren 31n 19:30ean
Aurreran.

ELIZONDO

'Adikzioak, alkohola eta drogak' Arizkunenean

Maiatzaren 18an 18:00etan
Maite Dendarietarekin.

LEKAROZ

Ernesto Praten liburuaren aurkezpena

Maiatzaren 19an 20:00etan
Hiru Iturri ostatuan.

Erakusketak

BERA

Isidoro Fagoagaren ibilbidearen erakusketa

Maiatzaren 21era arte Kultur
Etxean. Ortzegunetik larunba-
tera 18:00-20:00 eta igandee-
tan 11:30-13:30.

ELIZONDO

Pilar Alcolearen pintura lanak

Maiatzaren 16tik 31ra Ariz -
kunenean, astelehenetik la-
runbatera (19:00-21:00).

Juan Luis Torralbaren margoak Arizkunenean

Ekainaren 2tik 17ra.

Antzerkiak

LEITZA

'Atte hil aurretik' Zineman

Maiatzaren 20an 20:00etan.

Tailerrak

BERA

Drogen inguruan gurasoentzat

Maiatzaren 24, 29 eta 30ean
Beralandetan. Izen-ematea:
948 635036 edo ssb@lesaka.eus.

ELIZONDO

Eztigintza eta erlezaintza

Maiatzaren 20an hasibe -
rrientzat, 10:00-12:00. Izena:
hazitikhozie@gmail.com.

LEITZA

Bioenergia tailerra

Maiatzaren 24an 19:00etan
Aurreran.

Kontzertuak

ERRATZU

Kaskezur taldea ZubiPuntan

Maiatzaren 19an 23:00etan.

BERA

Musika Eskolako saioak

Maiatzaren 19an trikitixa eta
akordeoia, 18:00etan.

Maiatzaren 22an txistu
entzunaldia, 18:00etan.

Maiatzaren 23an piano
entzunaldia, 18:00etan.

PROPOSAMENA

URROZ

Egun osoko besta Malerrekako Egunean

Bertizarana eta Malerreka-ko hamahiru udalerrien besta maiatzaren 27an egingen dute Urrozen. Egun osoan izanen dituzte ekitaldiak: musika, mus txapelketako finala, artisauak, dantzariak, abesbatzak, joaldunak, paella-jatea, muxikoa, buru-haundiak, aizkora apustua, bingoa... Omenaldien tartean, 85 urtetik goitiko herritarrek omenduko dituzte, zazpi guztira.



Maiatzaren 29an perkusio entzunaldia, 18:00etan.

Maiatzaren 30ean bibolin entzunaldia, 18:00etan.

Karrantzako Abesbatza

Maiatzaren 27an 20:00etan Kultur Etxean.

SARA

Erlauntza abesbatza

Maiatzaren 18an 21:00etan elizan.

Lapurdiko haurren kantu txapelketa

Maiatzaren 21ean 16:00etan Kiroldegian.

Usopop festibala

Maiatzaren 27an eta 28an 16:00etan Lizarietan.

Goraki abesbatza

Maiatzaren 30ean 21:00etan elizan.

IRURITA

Haur eta gazte kantarien saioa

Maiatzaren 20an 19:00etan elizan.

Udal Musika Eskolako saioa

Maiatzaren 27an 11:00etan.

LESAKA

Lesakako Abesbatza eta Musika Eskolako ikasleak

Maiatzaren 21ean 19:00etan Harriondoan.

Su Ta Gar taldearen kontzertua

Maiatzaren 20an 20:00etan Harriondoan.

ARANTZA

Kaskezur taldea

Maiatzaren 27an Aterpean.

LEITZA

Anariren kontzertua

Ekainaren 2an 22:30ean Atekabeltzen.

Ospakizunak

LEITZA

Gure Esku Dago besta

Maiatzaren 21ean.

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako haur, guraso eta eskolen arteko XVIII. topaketa
Maiatzaren 27an.

Nire aukera



Jaione ARIZTEGUI

Ttapi-Ttapa Urrozko berriemailea

«Ederra da herriko gazteak elkarrekin egon eta hain ongi moldatzea»

Ikasketak tarteko, Gasteizen ematen du astea Jaionek eta asteburuetan bueltatzen da Urrozera. Orduan probesten du herriko berriak bildu eta txukun idazteko, bera baita Ttapi-Ttapa aldizkariako fitxaje berria. Berriemaile lanetan hasi berria den arren, dagoeneko badu burutan gustura emanen lukeen albiste bat «Urrozen haur anitz jaiotzen ari direla, horrek gauza on anitz ekarriko zizkion herriari». Denbora libre eta lagunak, lotuta doaz Jaionerentzat «anitz gustatzen zait lagunartean egotea». Horregatik, denbora ona egiten duen asteburu bateko planaz galde-tzean segidan aipatzen ditu «ortziral arratsean herriko ostatuan egon, larunbatarekin lagunekin egunpasa bat egin leku politen batera, haiekin afaldu eta besta-ara atera. Igandea Urrozen pasatu, etxe inguruan eta bestondorik gabe bada ezin hobeto». Bestazalea ere bai baita, «horretarako beti izaten dut gogo». Bestarako Donezteben izaten den giroa maite du «eta etxea hurbil izateak ere lasaitasuna ematen du. Momentu hauetan Gasteiz ere arrunt gogoko dut, giro ezberdina, baina anitz gustatzen zait». Bestaz aparte, «trikitixa jo eta entzutea, bizikletan ibiltzea, zinemara joatea...» ere gustuko ditu. Baita bidaiatzea ere «baina momentuan diru anitzik ez dut horretarako». Urrutira joan gabe, baditu Urrozen bertan gustuko tokiak «nire etxe ingurua eta plaza. Leurtza alderdi hori ere polita da, baina bertan ez naiz hainbertze egoten». Edozein moduz, parajeak baino gehiago herritarren artean duten giroa azpimarratu nahi izan du: «gazteen artean gehienbat, nahiz eta adin eta gustu ezberdinetakoak izan, ederra da elkarrekin egon eta hain ongi moldatzea». Giro horregatik agian, etorkizunari buruz solasten hasitakoan argi dio: «ez dut horretan anitzik pentsatu baina gaztea naizen bitartean leku ezberdinetan bizi eta lanean aritzea gustatuko litzaidake, asteburuetan Urrozera itzuliz. Gero, Urrozen bizi nahi dut». Momentu hori ailegatu bitartean, Gasteizko egun eta gauak, sorterriarekin lotzen segiko du. Eta badirudi neurria ongi hartua diola batuketari, amets egiten hasita «orain nagoen bezala jarraitzea» eskatzen du eta.

«Gaztea naizen bitartean leku ezberdinetan bizi eta lan egin nahi nuke, asteburuetan Urrozera itzuliz. Gero, Urrozen bizi nahi dut».

ORONÓZ-MUGAIRI

Sahararekiko Elkartasun Eguna
Maiatzaren 20an.

LESAKA

Nafarroako Dantza Garaikidearen Jaialdia

Maiatzaren 20tik ekainaren 3ra.

URROZ

Malerrekako Eguna
Maiatzaren 27an.

BERA

Gure Esku Dago besta
Ekainaren 3an.

NARBARTE

Sagardoaren Eguna
Ekainaren 3an.

ETXALAR

Gasna FERIA Eguna
Ekainaren 4an.

Filmak

LEITZA

Sarriori buruzko dokumentala

Maiatzaren 30ean 19:00etan plazan.

Bestak

IRURITA

Herriko bestak
Maiatzaren 24tik 28ra.

URDAZUBI

Herriko bestak
Maiatzaren 24tik 28ra.

BERROETA

Herriko bestak
Ekainaren 2tik 5era

Azokak

ELIZONDO

Baztandarren azoka
Maiatzaren 20an goizez.

LEITZA

XXXIX. Eskulangintza azoka
Maiatzaren 28an 10:00 - etatik aurrera plazan.

ETXEBIZITZAK**salgai**

ORONÓZ-MUGAIRI. Pisua salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe mobleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisua, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE


- Aukera: 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 57.900 euro. ☎646 774117.

ITUREN. Neurri desberdinetako apartamentuak hagitz prezio interesgarrian salgai. ☎948 451337 / 667 275013.

BERA. Ugalzubia kaleko 2. zenbakian 79 m²ko pisua salgai: sukalde-jangela-egongela, 2 logela, 2 terraza, igogailua, margotu berria eta garajea barne. 185.000 euro. ☎607 437189.

**MERKATU TTIKIA****948 63 54 58**

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

BERA. Eztegarra pasealekua, 23 - 2. solairuan pisua errentan emateko. Sukaldea, egongela, 4 logela, 2 bainugela eta 2 balkoi. ☎948 630598 (Galdetu Zela Kirolak-en).

BERA. Itzea karrikan apartamentua errentan emateko. ☎609 973306.

ETXEBIZITZAK
errentan hartzeko

BERA. Pisua errentan hartu nahi da. ☎630 432695 / 618 936395.

BERA. 3 edo 4 gelako etxebizitza hartuko genuke errentan. ☎653 703623 / 658 741180.

BORTZIRIAK. Hizkuntz Eskolako irakasle batek logela behar du ekainean Beran edo inguruko herrietan. Ingeleseztasolasteko aukera debalde. ☎652 700311.

Borda edo baserria errentan hartu nahi dute **Bortzirietan, Malerrekan edo Baztanen.** ☎689 537474.

LURRAK/ORUBEAK
salgai

ARANTZA. Larreta auzoan 419 m²ko lursail urbanizatua salgai. ☎617 239361.

LANA
eskaintzak

On-line lanean aritzeko zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo bertzelangileak behar dira. ☎699 382673.

BERA. Jatetxe batean asteburuetan aritzeko zerbitzaria behar da. ☎607 827309.

BERA. Jatetxe batean zerbitzaria behar da. ☎948 630392.

BAZTAN. Jatetxe batean, barran eta pintxo-bo-

katak prestatzen esperientzia duen zerbitzaria behar dugu. Euskaraz eta gaztelaniaz jakin behar du eta frantsesez jakitea baloratuko da. Bidali curriculumak: hr_bztn@yahoo.com.

BAZTAN. Jatetxe batean ostalaritzako ikasketak dituen sukalderia behar dugu, guttienez 2 urteko esperientzia duena eta berehala lanean hasateko. Bidali curriculumak: hr_bztn@yahoo.com.

IRUÑEA. Neska bat behar da gozotegi batean lan egiteko. ☎948 220618.

LESAKA. Frontoiko ostatuan emakume bat behar da barran eta sukaldean lan egiteko. Esperientzia pixka batekin. ☎663 516107.

IRUÑEA. Biltegian lanean aritzeko langilea behar da, karga eta deskarga lanean eta goizal-

dean. Bidali curriculumak: saioakris@gmail.com-era.

IRUÑEA. Goizaldean produktuen harreran, fakturazioan eta eskaerak egiten aritzeko langilea behar da. Bidali curriculumak: saioakris@gmail.com-era.

LANA
eskariak

Doneztebeko emakumezko bat lan bila: haurrak zaintzen, garbiketana: etxeak, dendak, kafetegiak... Arduratsua. ☎619 913375.

Gizonezkoa zonaldean lan bila. Pintura lanetan, abeltzaintzan edota adinekoak zaintzen esperientziaduna eta lan hauetan edo besteren batean interesatua. Ikasteko gaitasunarekin eta arduratsua. ☎638 433871.

Adinekoak zaintzen, haurrak zaintzen edota animaliekin lan egiteko **neska** lan bila. Ezagutza eta ikasketak animalien ingurukoa. ☎604 152370.

ESKUALDEA. Interna moduan adinekoak zaintzeko, emakumezkoa lan bila. ☎630 274738.

ZERBITZUAK
psikoanalistak

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordua
☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(apirilaren 28tik maiatzaren 5era bitarteko prezioak)



Zerrikumea
(19 kilo): 72 €

Zerri gizena
1,355 € kiloak.

Zerramak:
0,830 € Kg/bizirik.



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,32

1.koa 4,10
2.koa 3,90

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,34
1.koa 4,20
2.koa 4,00

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 160,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:
urruxak 140,00
idixkoak 185,00

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,26/3,36
Zaldi-behorrak: 1,93/2,10

Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,40/6,00
8-10 kilokoak: 4,70/5,20



2. eskuko bizikletak



Kantionberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
kateabera@telefonica.net



UDALEKUETAKO BEGIRALEEN LAN-POLTSA EGITEKO DEIALDIA

Bete beharrekoak:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
- Euskaraz jakitea (C1 mailako titulazioa edo maila horretako proba gainditua)

Eskaerak:

- Eskaerak ekainaren 7ko 13:00ak baino lehen aurkeztu behar dira, beheko helbidean.

Informazioa:

- Deialdia www.bortzirriak.eus webgunean dago ikusgai.
- Informazio gehiago nahi izanez gero **deitu beheko telefonora, edo idatzi beheko e-Postara.**

Arantzan, 2017ko maiatzaren 11n
Mankomunitateko lehendakaria, Mentxu Peña Lizarazu

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea
Herriko Plaza, 7 - 2. 31790 ARANTZA

Tel. 948 634 125 / e-Posta: euskara@bortzirriak.eus
www.bortzirriak.eus



DONAMARIAKO UDALA

Donamariako Ostatuaren alokairua

Udalak, erabaki du lehiaketa publikoaren bidez **Donamariako Herriko Ostata** errentan ematea. Lehiaketa, bertzeak bertze, baldintza hauek arautuko du:

- Alokairuaren iraupena: 2 urte, luzatzeko aukerarekin.
- Hilabeteko errenta: 400 euro/hilabetea gehi BEZA.
- Lehiaketan, bideragarritasun plana, eskarmentua, hobekuntzak eta diru eskaintza baloratuko dira.
- Behin-behineko fidantza: 400,00 euro.
- Eskaintzak aurkezteko epea: **2017ko maiatzaren 22an, 14:00ak arte.** Eskaintzak Donamariako Udaleko Idazkaritzan aurkeztuko dira, horretarako onetsitako administrazio baldintzen agiriari adierazten den gisara.

Administrazio baldintza partikularren agiria interesdunen eskuara dago Udal Idazkaritzan. Informazio gehiago, korreo bat bidaliz helbide honetara udala@donamaria.es eta 948-450046 telefonora deituz (astelehena eta ortziralea 12:00-15:00etara, eta asteazkenetan 08:00-15:00etara).

Donamarian, 2017ko maiatzaren 8an
Alkatea, Maite Urroz Oyarzabal

ZERBITZUAK
zurgindegiak

ARANTZA
Zurgindegia.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gorritibaita - ARANTZA

MOTORRAK
salgai

Volkswagen California
Coach T4 salgai. 2.5 TDI 5 zilindroak 102 cv. Nazionala. 335.000 KM. Oso ongi zaindua, beti garajea. Extra asko: portabizikleta, toldoa, *avance* tunela, kalefakzio estatikoa, konbertidorea... **630 041480.**



Peugeot 207 1.6 HDI sport autoa salgai. 90 cv.



Egoera oso onean. 2011 urtekoa. 155.000 km, 120.000 km-tan korrea eta kit osoa aldatuta. Extra ugarirekin. Prezioa: 5.990 euro. **665 731414.**

BMW-F 650 GS moto - rra salgai. 2001ekoa, 652 cc eta 17.999 km. IAT-ITV 2018ra arte. Garajea dagoena. Bi kaskoren-tzako atzeko maleta barne. Olio filtroak eta atzeko gurgila berriak. 3.000 euro. **659 215879 / 948 456079.**



MOTORRAK
tailerrak



GANIX
Tallerra

948 63 06 69
Zalain Pol., 11 - BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

ANIMALIAK
salgai

Ahuntz azpigorriak salgai. **617 723475.**

Ahari mutur gorriak salgai. **697 440590**

ANIMALIAK
oparitzeko

OIZ. Zakurrak oparitzeko. **674 414645.**



DENETARIK
salerosketak

Altzairuzko sei fregadera salgai, 1,5 metro luze, forma borobilduna-ekin. **948 585036.**

ORONÓZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramanen da. **676 242520.**



ERATSUN. Ardi parrilak salgai, 80 m² (2,50 x 0,50). Burdinezko sarea eta abar. Prezio onean. **616 325546.**



IRUN. Taxi lizentzia salgai. **653 011145.**

ARANTZA. Taxi plaza salgai. **617 296458.**

DONEZTEBE. Haritz egurra salgai, 39 euro to-na. Prezioa Donezteben jarria da. **686 314036** (deitu 09:00-13:00 edo 15:00-17:00 astetartez).




744 484 361

ttipi-ttapa



BERAKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZORDEAREN AKORDIOA
-HIRIGINTZA-

Udaleko Tokiko Gobernu Batzordearen akordioa, 2017ko apirilaren 6koa:

3. poligonoko 229. lur-zatian (Legia karrika, 46) Hiri-Jarduketako Plan Berezia, Berako Udal Plan Orokorra aldatzen duena, hasiera batez onestea.

Espediente hau jendaurrean izanen da hilabete batez, dagokion iragarria NAOn argitara ematen denetik.

Bera, 2017.04.25
ALKATEA,
Josu Iratzoki Agirre

hemen
agertu
nahi
duzu?

egin zure erosketa
erran.eus en

IRAGARKIA
2 aldizkaritan
interneten

10
EURO

PLAZAN BAZAN



MARIPURTZIL ETA PELLOZIRI

MENDIAN



Irudi honetan ikusiko dituzun hainbat elementu ez genituzke mendian inoiz aurkitu beharko. Bederatzi dira guztira. Zeintzuk dira?

Animalia hauen artetik zeintzuk agertzen dira irudi handian?



Bestalde, bada beste animalia bat paisaian, eskuineko koadroan ageri ez dena. Zein da?

Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

INTERNETEN ERE BAI !



plazanbazan.eus

KIOSKOA - JOLAS-PARKEA
AZOKA - UDALETXEA - IKUSKIZUNAK
IPUINAK - KOMIKIAK - MARRAZKIAK



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

3 SUDOKU

Idatzi sudoku bakoitzeko letrak dagokion tokian. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta lau laukiko area bakoitzeko



A			Z
		P	
	Z		
O			

B			I
L		B	
	A		

BLAI
ala **BILA**?



ZAPI
ala **AZPI**?

A	P		
		A	
			I
		Z	

PUBLIZITATEA



UDALEKU IREKIAK BORTZIRIETAN 3-12 urte

Arantza, Bera, Etxalar eta Igantzin:
uztailaren 3tik 28ra

Lesakan:
uztailaren 17tik abuztuaren 11ra

IZEN EMATEA

- > Maiatzaren 22tik ekainaren 2ra
- > Tfnoz: 948 634 125 / 948 928 918
- > Internetez: www.bortziriak.eus

Informazio gehiago
www.bortziriak.eus

urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,45€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekia; 4) erran.eus bitartez



ELENE IRISARRI
AGESTAK 4 urte bete ditu maiatzaren 2an. Zorionak gure printzexitak, Etxalarko eta Irungo familiaren partetik!



URKO MITXELENA lesakarrak 6 urte bete ditu maiatzaren 8an. Zorionak aunitz bitxo, attatto, Neka eta lakoren partetik.



LESAKAKO UGAIZ eta MAITANE
CANAL ARTOLAK 3 urte bete berri dituzte maiatzaren 4an. Zorionak bikote!!! Nola bixkortu zareten!!! Orain bezain jator eta alai jarrai dezazuela!!! Muxu handi handi bat familia osoaren partetik!!!



URRUTI xamar da- goen **AINHOA LARRETXE** Agirre beratarak maiatzaren 13an bete ditu 21 urte. Honat etortzean ospatuko dugu, bale? Etxekoak.



BERAKO AINHOA DEL POZO
RIOPEDE gure etxeko printzesak apirilaren 22an 4 urte bete ditu. Zorionak!!!



IGANTZIKO OHIAN
ANDUEZA LARZABALEK maiatzaren 31n 2 urte beteko ditu. Zorionak Sunbilloko familiaren partetik.



OIER IPARRAGIRRE
ALBERDI arantzarrak 3 urte bete ditu maiatzaren 12an. Zorionak! Arantza eta Erreterriako familiak eta attatto, amatto eta Ariz.



GOIZUETAKO IZARO SALDIAS
MAKAZAGAK 5 urte bete ditu maiatzaren 14an. Zorionak Goizueta eta Iturengo familiaren partetik!



URDZUBIKO OIAN MUGIKA
GARRIKARI maiatzaren 10eko partez, zorionak aunitz, zure 9 udaberriengatik. Zure lagun Pablo Irazoki Olaiolaren partetik!



ORONOZKO ANE GARAIOETXEAK
maiatzaren 25ean 8 urte beteko ditu. Zorionak eta ongi pasa zure egunean. Muxu pottolo txiki zure familiaren partetik.

hemen
agertu
nahi
duzu?egin zure erosketa
erran.eus enargazki
soila
5
EUROargazki
bikoitza
10
EUROALDIZKARIAN
eta
INTERNETEN

TELEFONO GIDA 2017

INGURUOTAKO TELEFONO GUZTIAK

Baztan | Bertizarana | Bortzirriak | Malerreka | Mendialdea | Urdazuri



- 5.700 ale
- Praktiko eta erraza

- Komertzioak
- Lantegiak
- Zerbitzuak
- Erakundeak
- Partikularrak...

Zure
enpresaren
datuak internet
eta app bidez
klik batean

TELEFONO GIDA

Baztan | Bertizarana | Bortzirriak | Malerreka | Mendialdea | Urdazuri

Zure enpresa sartu nahi?

Milaka pertsonen ikusiko dute zure iragarkia

Informa zaitez

T. 948 63 54 58 | publi@ttipi.eus

Ttipi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

685 aleko
irabazleak >



ZOZKETAK

BKZ abentura - 2 tiket
Rakel Irazoki Etxeberria | OIZ
Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera
Marisa Gamio Gaztelu | BERROETA
Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Izaskun Altzuri Arretxea | SUNBILLA
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Vidal Etxarte Martinez | IGANTZI
Buatxabal - Kamiseta bat
Maite Otegi Laurentzena | URDAZUBI
La Rhune - 2 sarrera
Aitor Huitzi Baztarrika | LEITZA
Lanku argitaletxea - DVD bat
Raimundo Lizardi Tranche | IRUÑEA
Lanku argitaletxea - DVD bat
Pedro Bermo Iriarte | ORONÓZ-MUGAIRI

2 sarrera



CAMELOT PARK
www.camelotpark.es

Txingudi
Merkataritza
gunea
IRUN

2 sarrera



IRRISARI LAND
www.irisariland.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu



2 sarrera helduentzat

LI BU RU AK



- Wakou-Naturari buruzko nire
entziklopedia txikia
• Animaliak
• Piztia txikiak

TTARTTALO
www.ttarttalo.eus

LA GUN TZAI LEAK



www.ttarttalo.eus



www.eurekamuseoa.es

Sampi Aragón



Bortziriak, Baztan eta Malerrekako Ford Zerbitzu Ofiziala



Multimarka tailerra

Txapa, pintura, mekanika
eta elektrizitate **konponketak**

**HURBILDU
GURE TAILERRERA!**

Nonahi erositako kotxeen mantentze-lanak eta konponketak

T. 948 450 354 | DONEZTEBE | sampiaragon@sampiaragon.com